

# Zu hemen zaude. goiena



## GERTU DAGO EKIOLAREN EGUZKI PLAKEN PARKEA

Leintz Balarako Ekiolak bukatu du Garaiaiko parkea. 500 watteko 2.520 panel daude, energia sortzen hasteko / 2

Leintz Balarako Ekiolaren eguzki plaken parkea, Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan. LEINTZ BAILARAKO EKIOLA

**Kalean da Bergarako 23 musika talde eta bakarlariren abestiz osatutako 'Loratzen' diskoa** / 33



SANTAMASAK 2023 / 23

**"Aurrekontuaren zatirik handiena errepideen mantentze-lanetara bideratuko dugu"**



MARIA UBARETXENA BIDE AZPIEGITURETAKO DIPUTATUA

### SINADURAK

	XABIER BERASATEGI / 8		AMAIA EROSTARBE / 38
	MARIXE RUIZ DE AUSTRI / 11		MIKEL ARREGI / 48



40 urte bete ditu Debagoieneko Gurutze Gorriak

Anton Costas ekonomialariari elkarrizketa

2mó 99€

erreflexuen aurkako betaurreko graduatuak

*Kontsultatu optikan kanpoinaren ezaugarriak.*

**MULTIÓPTICAS**

943 79 29 95  
Otalora Lizentziaduna, 18  
ARRASATE

943 76 15 75  
Ibargarai, 16  
BERGARA

www.multioplicas.com



eskatu hitzordua





# Leintz Bailarako Ekiola, eguzki plakak instalatuta

Leintz Bailarako Ekiolak amaituta du parkea eta, aurreikuspenen arabera, 2024ko apirilean abian izango da. Bazkideekin, ordea, lehenago jarriko dira harremanetan. Gaur egun, 220 bazkide dira; proiektura batu daiteke, ordea

## Amaia Ramirez de Okariz

### Kortabarria ARRASATE

Leintz Bailarako Ekiolak eguzki plakak instalatu ditu dagoeneko, eta, beraz, bukatuta dago parkea. Bostehun wattoko 2.520 panel ezarri dituzte Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan, eta, aurreikuspenen arabera, gai izango dira 1.375 megawatt sortzeko orduko, 550-600 familiaren beharrik asetzearekin batera. "Kontsumo horren kostua jasangarria eta egonkorra izango da bazkideentzat –egun, 220 dira–, merkatu elektrikoan gertatuko diren aldaketak ekidingo direlako", adierazi du Jon Loitik, kooperatibako lehendakariordeak.

Hain justu, kooperatibak atzo egin zuen proiektuaren berri emateko agerraldia Leintz Bailarako Ekiolak, Garaia Parke Teknologikoan, eta han eman zituzten azalpenak. Alabaina, oraindik ez da martxan. Loitiren hitzetan, euren esku dauden faseak amaitu dituzte, baina kanpoko eragileen jarduketan "menpe" daude: parkean sortuko den energia elektrizitatea banatzeko sare orokorrean injeztatzea ahalbideratuko duen konexioa martxan jartzeko zain daude. "Hori banatzailearen [I-DE] lana da, eta urtarileko lehen astean egitea espero da. Sarera



Loiti, Iturbe eta Aranburu, atzo, eguna, Garaia Parke Teknologikoan. EKIOLA

konektatzea posible denean, administrazio bidezko legeztatze prozesua hasiko da". Baimen hori "ezinbestekoa" baita instalazioa bazkideentzat energia ekoizten has dadin.

Ez dute data zehatz baten berri eman, baina, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako beste Ekiola batzuetako epeak aztertuta, gutxi gorabeherako data baten berri eman du Maite Iturbe komunikazio arduradunak. "Epe horiek gure egiten baditugu, 2024ko apiril aldera jar liteke martxan". Are gehiago, erantsi du "aste batzuen buruan" joko dutela bazkideengana. "Instala-

zioa martxan jarri baino lehen, harremanetan jarriko gara hornitzailearen kontratu berriak nola eragingo duen jakinarazteko, jasoko dugun faktura eredu azaltzeko eta gure kontsumo ohiturei buruz aholkatzeko, ahalik eta probetxu handiena ateratzeko".

## "BAZKIDE GEHIAGOREKIN GURE OINARRI SOZIALA ZABALDU NAHI DUGU"

IÑAKI ARANBURU  
LEHENDAKARIA

## Bazkideetza, 18tik aurrera

Webgunea birmoldatzen ari da Leintz Bailarako Ekiola, eta izen-emate prozesua online egiteko "erraztasunak" jarriko dituzte. Zehazki, abenduaren 18tik aurrera egongo da bazkideetza prozesua behar bezala egiteko aukera; Iturbek aurreratutako due- nez, lau urratsetan.

Bazkide egin nahi dutenek inprimakia betetzea izango da lehen urratsa, eta helbide elektrikoan jasoko duten formularioa osatzea, berriz, bigarrena. Urteko kontsumo elektriko adierazi beharko dute, edo, bestela, kontsumoaren aurreikuspen bat egiteko azalerari, instalazio elektrikoari eta etxebizitzaren edo lokalaren erabil-tzaileei buruzko galdetegi bat erantzun beharko dute. Bada, datu horiek beteta, interesdunei kooperatibara batu ahal izateko gehitu beharko duten kapitalaren zenbatekoa bidaliko zaie, estatutu sozialekin batera, eta bi aldeen artean formalizatu beharreko kontratuaren baldintza orokorrekin.

Hirugarren pausoari dagokionez, "hamar egun baino gutxiagoko epean" mezu elektronikoko bat jasoko dute interesdunek, eta, bazkide izateko interesa izaten jarraituz gero, nortasun agiriaren kopia –bi aldeetatik– eta egindako banku transferentziaren egiaztatzea –zenbateko ekarpenarekin– bidali beharko dute. Hala, azkenik, kontratua

## "2024KO APIRIL ALDERA JAR LITEKE MARTXAN LEINTZ BAILARAKO EKIOLA"

MAITE ITURBE  
KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

bidaliko zaie bazkide kontsumitzailetzat. "Horrela, eskaera erabat formalizatuta egongo da Kontseilu Errektoreari aurkezteko, eta hark, onartu ondoren, kooperatibarekin bat egiten duela jakinaraziko dio interesdunari".

## Kontzientziazioan eragiten

Bazkide izateko aukera, beraz, oraindik, badago, proiektua ekonomikoki babestuta dagoen arren kontzientziazioan eragin nahi baitute, Iñaki Aranburu Leintz Bailarako Ekiolako lehendakariaren arabera: "Kooperatibaren helburua Leintz Bailarako herritarren artean energia jasangarrien kontsumoa sustatzea da, eta, ondorioz, bazkide gehiagorekin gure oinarri soziala zabaldu nahi dugu, bereziki, ezinbesteko energia trantsizioan protagonista izan nahi duten familiekin".

Aranburuk, gainera, erantsi du komunitatearen kontzientzian ere eragin nahi dutela. "2024an Leintz Bailarako biztanleok ditugun erronka energetikoen inguruan kontzientziazteko ekimenak jarriko ditugu martxan". Izan ere, uste dute "gizarte osoaren erantzukizuna" dela trantsizio energetikoari ekitea. "Itxaropen izpiak ikusten ditugu eta eskualdeko familiak, norbanakoak edo negozio txikia animatu nahi ditugu aldaketarekin bat egin dezaten".

## "GURE ESKU DAUDEN FASEAK AMAITU DIRA; KANPOKO ERAGILEEN MENPE GAUDE"

JON LOITI  
LEHENDAKARIORDEA

**bertako**  
igogailuak | ascensores

**BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA**  
**100€-tik/hileko**

**IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA**

**2.500 bezerok gugan dute konfiantza**

943 903 450  
bertako.eus

# Gabonetako argiak eta erosketa-bonuak, prest

Bailarako udaletako askok argitu dituzte dagoeneko herriko kaleak Gabonetako argiekin, eta, horrez gain, herri bakoitzeko komertzioak sustatzeko erosketa-bonuak zein bestelako ekimenak jarri dituzte abian Debagoieneko hainbat herritan

**Julen Murua Mesonero** DEBAGOIENA Gabonak ate joka daude, eta, beraz, hasiak dira dagoeneko bailarako herrietako kaleak eta plazak urteko sasoi honetako apaingarriz janzen. Horrekin batera, hainbat udalerritan tokiko komertzioak hauspotzeko bonuak eta erakusleho lehiaketak antolatatu dituzte.

## Argiak piztu dituzte

Arrasatekoak izan ziren lehenak Gabonetako argiaz pizten –abenduaren 5ean piztu zituzten–, eta urtarrilaren 7ra arte argituko dituzte kaleak. Aurtengo argien kontratazioak 36.300 euroko aurrekontua izan du, iazko aurrekontuarekin alderatuta 2.000 euro inguru merkeagoa –iazko kontratazioak 38.672,60 euroko aurrekontua izan zuen–.

Oñatin eta Bergaran, berriz, astelehenean piztu zituzten argiak, eta bergararrek, oñatiarrek ez bezala, urtarrilaren 7ra arte mantenduko dituzte –Oñatin aurreko egunean itzaliko dituzte argiak–. Oñatin eginiko gastua 14.700 eurokoa izan da –BEZik gabe– eta Bergarakoa, berriz, 20.824,1 eurokoa izan da –BEZa barne–.

Gainontzeko herrietan ez dute bestelako inbertsiorik egin Gabonetako argiei dagokionean,

askotan, argi indarra bera izan baita gastu bakarra.

## Tokiko komertzioei laguntza

Gabonetan ohitura izaten diren bonuak ere egongo dira aurtun bailarako herrietan. Arrasaten Udalak 30.000 euroko inbertsioa egin du eta 74 establezimenduk hartu dute parte; erosleek 20 euro ordainduta 30 euro gastatu ahal izango dute. Bergarako Udalak 20.000 euro gehiago jarri ditu Euskadi Bono Dendak herri indartzeko, eta 55 negozioi batu dira ekimenera; bakoitzak

119 bonu izango ditu. Herritar bakoitzak hamar euroko balioa izango duten bost bonu erabili ahaliko ditu herriko komertzioetan. Antzuolari dagokionez, 500 euroko inbertsioa egin du Udalak eta hamalau komertzio hartu dute parte ekimenean. Bestalde, Arrasaten, Bergaran, Oñatin eta Aretxabaletan mar txan dira dagoeneko erakusleho lehiaketak. Guztietan, herritarrek erakusleho gustukoenak aukeratu ahal izango dituzte. Gabonen atarian ezagutzera emango dituzte denda irabazleak.



Gabonetako argiak, Arrasaten, iaz. IMANOL SORIANO

## Garraioa izan zuten hizpide udal ordezkariak Foru Aldundian

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean aritzea adostu zuten udaletako ordezkariak batzarrean

**J.M.M. DEBAGOIENA**

Gipuzkoako Foru Aldundira joan ziren hilabete hasieran Maider Morras Arrasateko alkatea, Izaro Elorza Oñatiko alkatea, Garikoitz Iturbe Aretxabaletako alkatea, Edorta Zubizarreta Eskoriatzako alkatea, Ibon Unzetabarrenetxea Elgetako alkatea eta Aritz Igeltz Antzuolako zinegotzia, Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolaketako Saileko diputatu Azahara Dominguezekin eta Mugikortasuneko zuzendari Ivan Pedreirarekin batera garraio publikoaren gainean hitz egiteko.

Aldundiarekin eginiko lehenengo bileran "erakundeen arteko lankidetzan beste paus bat" ematea izan zuten helburu, eta bi lan-ildo nagusirenean lanean aritzeko asmoa adostu zuten: lankidetzan jarraitzea Lurralde busek eskualdean ematen duen zerbitzua hobetze aldera eta udalekin batera mugikortasun antolaketan plan berri batean aurrerapausoak ematea. Parte-hartzaileek adierazi zuten, bileran "eraikitzailea" izan zen.

## Joerarekin jarraitzeko asmoa

Joan den irailaren 20an, autobus zerbitzuak hobetzeko eskaera egin zuten bailarako herrietako alkateek Gipuzkoako Batzar Nagusietako EH Bilduren talde politikoaren bitartez. Azahara Dominguezek kargua hartu zutenetik hainbat neurri zuzentzai-

le hartu ditu, eta, orduetik, datuek erakusten duten moduan, garraio publikoaren gaineko kexen kopurua nabarmen jaitsi da.

Horregatik, joera berberarekin jarraitzeko asmoa erakutsi zuen Mugikortasun Departamentuak, eta, hori lortzeko, Avanzak ematen duen zerbitzuaren "azterketa sakona" egiten jarraituko dutela adierazi zuten; betiere, "hartutako neurri zuzentzaileak egokiak diren aztertzeko eta ziurtatzeko autobusen mantentzea eta zerbitzuaren kalitatea hobea dela". Debagoieneko udalek zerbitzuaren duintasuna bermatzen dela ziurtatzeko jarraipena egiteko konpromisoa hartu zuten.

## Mugikortasun plana

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Debagoieneko herrietako alkateek aurrerantzean ere elkarlanean aritzea adostu zuten, bailarako udal ordezkariak adierazi zuten. "Mugikortasunaren berrikuspenean eta hobetzea lantzeko lanean jarraitzea" adostu zuten ordezkariak. Alde batetik, Azahara Dominguezek jakinarazi zuen "2024ko aurrekontuetan eskualde guztietan mugikortasun plan bat bultzatzeko partida propio bat" aurreikusten dela, eta, bestetik, udalerriek "plan estrategiko hori lantzeko urratsak" egingo dituztela adierazi zuten, "larrialdizko beharrak identifikatu ostean". Aldundiak eta udalerriek beste bilera bat egingo dute aurrerago.



# Erabili meloia

## Gorde erosketa-tiketa

**Kontsumitu buruarekin**

**#KontsumitzenJakin**

Euskadi, argelano, hiru comunitatek





# "Europak gu erreferente moduan ikustea nahi dugu"

**MARIA UBARRETXENA BIDE AZPIEGITURETAKO DIPUTATUA**

GOIENAK elkarrizketa egin dio, orain artekoaren errepaso egin, aurrera begirakoak zeintzuk diren jakin eta gure errepideetan egiten ari diren lanen berri izateko



Maria Ubarretxena, Goienan egindako elkarrizketan. XABIER URTZELAI

**Iñigo Barrena** ARRASATE

Sei hilabete dira Maria Ubarretxenak (Urretxu, 1980) kargua hartu zuela, eta ilusioz hartu du eginkizun berria.

**Arrasateko Udaletik Gipuzkoako Foru Aldundira. Arrasate eta Debagoiena ezberdin ikusten dituzu, orain, Donostiatik, lurralde agintaritzako erakundetik?**

Bizitza Debagoienera egiten jarraitzen dut, eta uste dut ondo datorrela lurralde ikuspegia izatea. Izan ere, Gipuzkoa Donostia baino askoz gehiago da, eta garrantzitsua da beste bailara batzuk ere badaudela jakitea.

**Duela bi hilabete pasa, errepideetan ziklo berriaren oinarriak finkatzeko garaia orain dela azpimarratu zenuen. Nolako izango da ziklo berri hori?**

Errepideen kontserbazio eta mantentze fasean sartuko gara. Errepideen sare zabala dugu, baina hori guztia mantendu egin behar da. Egitura batzuk zaharrak dira eta beste batzuk euren bizi amaierara iristen dabilta. Gauza berriak egiteaz gain, haiek birgaitu beharra dago, batez ere, segurtasuna bermatzeko.

**Departamentua 2021an hasi zen digitalizazio eta berrikuntza estrategia garatzen. Ze aurrerapauso eman dira gaur egunera arte?**

Gure errepideak etorkizun digitalerako prestatu behar ditugu. Esaterako, AP-1 eta AP-8 errepideetan balizak kokatzen gabilta, eta urte amaierarako amaitzea espero dugu. Horrek bide emango du baliza horiek auto berriekin konektatzeko eta errepideetan gertatzen denaren

gaineko informazioa zuzenean autoan jasotzeko. Jasangarritasunari lotuta, CO2 isurketak neurtzeko neurgailuak jarri nahi ditugu. Horrekin, auto bakoitzak isurtzen duena neurtuko da eta horren arabera bidesari ezberdinak ordainduko dira.

**Europa mailan erreferente izan gura duzue, eta Lovainan izan berri zara, Europako Batzordeari azken aurrerapenak aurkezten. Zer moduzko harrera izan dute?**

Herrialde askotariko hainbat politikari eta teknikari batu ginen, gure lanketak nola dauden erakusteko. Europak Gipuzkoa kontuan hartzea nahi dugu, eta zertan gabiltzan jakitea. Erreferente bezala kontuan hartzea nahi dugu. Bada, aukera paregabea izan zen horretarako.

**Debagoienera etorrira, irailean jarri ziren martxan Bergara eta Elosu arteko errepideko zorua eraberritzeko lanak. Zer moduz doaz?**

Bide-zorua botatzeko itxaroten ari gara, baina horretarako eguraldi baldintza onak izan behar ditugu. Horiek betez gero, ondo bidean, datorren urte hasierarako amaituta egotea espero dugu.

**Martxan dira, era berean, Elgeta eta Kanpanzar arteko errepideko lanak ere. Nola doaz? Noizko amaituta?**

**"GIPUZKOA DONOSTIA BAINO ASKOZ GEHIAGO DA, ETA ONA DA LURRALDE IKUSPEGIA IZATEA"**

Sei bihurgunetan egin ditugun esku-hartzeak amaituta daude, eta han ere bide-zorua botatzea falta zaigu. Laster amaitzea espero dugu.

**Kanpanzarko errepidea hobetu eta zabaltzeko lanak ere egin dira. Egindakoekin nahikoa da ala ari zarete besterik aztertzen Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera?**

Asko hitz egin zen bere garaian Beasain-Elorrio errepidearen inguruan. Proiektua egin zenetik gaur egunera legealdia aldatu egin da eta bete beharra dago:

**"GURE ERREPIDEAK ETORKIZUN DIGITALERAKO PRESTATU BEHAR DITUGU"**

Laban zoriontsuak  
eta  
urte berri on  
denoi!!

Eskerrik asko 2023 honetan  
gurera etorri zareten guztioi.

Garibai etorbidea 6 behea  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 25 80 86

@ begia\_optika



gaur-gaurkoz, ez lituzke arauak beteko. Horregatik, lanean ari gara Bizkaiko Foru Aldundia-ekin, proiektu jasagarria egokitze eta errealitate bihurtu ahal izateko.

**Arlabango GI-627 errepidean ere badiharduzue lanean. Bukatzetik gertu dago?**

Lan batzuk egin ditugu jada bertan. Hurrengo urtekoei begira, lizitazioa atara, lehiaketa egin eta udaberri aldera errepidea hobetzen hasteko asmoa dugu.

**AP-1 autobidean, bestalde, Lesarriko tunelean, Bergaran, Gasteizerako noranzkoan sabai zatiak erori ziren iazko azaroan, eta tunela osorik birgaitzen diharduzue aurtengo iraila ezker. Zer moduz doaz lanak eta noizko aurrekusten duzue amaitzea?**

Gaur egun, sabaian dagoen materiala aldatzen ari gara, eta datorren udan amaituta egon daitekeela uste dugu, baina, ondoren, beste noranzkoan hasiko gara lan berak egiten. 2026an bi noranzkoak amaituta egotea nahiko genuke.

**Zertan ari zarete gaur egun Bergarako artapen zentroan?**

Tokia egokitzeko hautua egin zen, eta 2 milioi euroko inbertsioa du. Lehenengo fasean, kanpoko zonan aparkalekuak egokitu genituen, kamioiendako eta bestelakoendako. Orain, barruko zatia egokitzen ari gara.

**Zerk eroango du diru zatirik handiena aurrekontu horietan eta, oro har, agintaldian?**

**"AURREKONTUAREN ZATIRIK HANDIENA ERREPIDEEN MANTENTZE-LANEK ERAMANGO DUTE"**

Aurrekontuaren zatirik handiena errepideen mantentze-lanetara bideratuko dugu. Ondoren, energiara, besteak beste, tuneletako LED argiteria aldatuko dugulako. Gainontzean, zatirik handiena AP-15eko tuneletako lanek eramango dute.

**Neguko Bidezaintza Planaren operatiboa prest dago? Aurreko urteetakoekin alderatuta, bada berrikuntzarik?**

Plana prest dago, prest egon behar duelako. Gainera, toki batzuetan elurrarentzako operatibo bereziak ditugu, eta, iaztik, Telegram talde bat ere bai, elurteei buruzko informazioa helarazteko.

**Muturreko egoera meteorologikoak gero eta ohikoagoak dira eta eragina dute errepideetan. Bide Azpiegiturarako Departamentuaren lan-lerroetako bat da?**

Bai. Guri dagokigu errepideen egoera ona izatea eta segurtasuna bermatzea. Baina, era berean, kontrako baldintza meteorologikoak daudenean, ardura-ekin gidatu beharra dagoela azpimarratu behar dugu.

**Bergara-Beasain tartea ordainpekoak denetik zenbat diru jaso da eta zertara bideratu da?**

Iaz, 9, 8 milioi euro inguru batu ziren, eta bildutako guztia errepideko mantentze eta birgaitze lanetan erabili da. Halaxe dio, gainera, arau foralak.

**2024an Espainiako autobietan bidesariak indarrean jartzea zen asmoa, baina atzeratu egin da hori. Deskargakoa eta AP1 ordainpekoak dira. Badago atzera-bueltarik?**

Gipuzkoa horretan erreferente bilakatu da, eta hainbat gobernu nola egin dugun galdezka ditugu. Espainiako Gobernuak atzeratu egin du, baina jarri egin beharko ditu. Horretan Europa oso garbia da.

## Mondragonek lehendakari berria izango du

2024ko abuztuaren 1etik aurrera, Pello Rodriguez Zabaleta izango da Mondragoneko lehendakaria, datorren uztailen hartuko baitu erretiroa gaur egungo lehendakari Iñigo Ucinek. Rodriguez 2015a ezker da Mondragoneko lehendakariordea. Batzorde Iraunkorrak gidatu du Pello Rodriguez Zabaletaren izendapenarekin amaitu den prozesua. Mondragonetik kaleratutako oharrean adierazi dute haren erronka nagusia datorren laurtekorako korporazioaren ibilbidea martxan jartzea izango dela. Ibilbide hori 2025/2028ko Politika Sozioenpresarialean garatuko da eta datorren uztaileko kongresuan aurkeztuko da".

## Umeentzako jostailu bilketa egin du Gurutze Gorriak

*Jostailu hezitzailea* izeneko kanpaina jarri zuen abian Gurutze Gorriak, familia zaugarrietako edota gizarte bazterkeria arriskuan dauden familietako haurrek ere Gabonetan jostailu berriak izan ditzaten. Banaketa hilaren 21ean egingo dute, eta, momentuz, 135 jostailu inguru batu dituzte, Eroskin jasotakoak eta eurek erositakoak batuz. Datorren astean ere gehiago jasotzea espero dute, 250era iritsi ahal izateko. Jostailu bilketa jada amaitu dute, baina hilabete osoan egongo da dohaintzak egiteko aukera Gurutze Gorriaren kontu korrantean: ES52 3035 0050 72 0500751008. 20055-JOSTAILUA kontzeptua jarrita.

## '3x1' izeneko kanpaina jarri du martxan Mundukidek

Herritarrek 20, 50 edo 100 euroko ekarpena egin dezakete Mozambique iparraldeko nekazariei laguntzeko

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Mundukide gobernuak kanpoko erakundeak 3x1 izena duen kanpaina jarri du martxan, Mozambique iparraldeko familia nekazariei laguntzeko asmotan. Nekazaritzak herrialde hartako

%75i eragiten diola adierazi dute, eta, kanpaina horrekin, familia nekazarien garapen ekonomikoa bultzatzeko, aukerak sortzeko eta prozesuetan laguntzeko helburua dute. 3x1 kanpainak, beraz, helburu du 2023-

2024ko aldiaren hobekuntzak egitea nekazaritzari dagokionez, eta, horretarako, 20, 50 edo 100 euroko ekarpena egin dezakete nahi duten herritarrek. Baita beste zenbateko bat ere. Euro bakoitzeko, gainera, hiru euroko errentagarritasuna lortzen dute Mozambiqueko nekazariak. Laguntza emateko, Mundukidaren webgunean egin daiteke, eta hiru modu aurkitu daitezke bertan: txartel bidez, Bizum bidez 00989 zenbakia sartuta edo transferentzia bitartez.

## GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOAN

2024an beste 70 enpresaz osatutako espazio ireki eta berritzaile batean kokatu nahi baduzu zure enpresa, Garaia Parke Teknologikoan hainbat aukera dituzu: kokapen birtuala, coworking-a, bulegoak, partzelak eta abar.



Edozein enpresa jarduera eta tamainatara egokitu daitezkeen baldintzetan.

Zatoz eta galdetu zehaztasunak.

*Garaia Parke Teknologikoak Gabon jai zoriontsuak opa dizkizu!*



Harremanetan jartzeko hemen



Goiru Kalea, 1, 20500 Arrasate, Gipuzkoa  
ptgaraia@ptgaraia.eus • www.ptgaraia.eus





Eider Mendoza, ahaldun nagusia, eta Irune Berasaluze, Gobernantza diputatua, 2024ko egutegia eskuan dutela.

# Foru Aldundiak 2024ko egutegiaren 40.000 ale banatuko ditu Gipuzkoa osoan

Opari itxurako edukiontzi erraldoi bat lurraldeko eskualde guztien barrena ibiliko da eta herritarrak egutegiaren bila irribarre batekin hurbiltzera gonbidatuko ditu.





Pablo Perez, lehiaketako irabazlea, eta gainerako hamabi aukeratuak, Aldundiko ordezkariekin, sari banaketa ekitaldian.

Opari itxurako edukiontzi erraldoi bat Gipuzkoa osoan barrena ibiliko da, Gabonetako espiritua zabaltzeko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero berariaz antolatzen duen argazki lehiaketako argazkiekin osatutako egutegia banatzeko.

2024ko egutegiaren leloa *Gipuzkoa kirolzale* da. Kontzeptu horrek balioa eman nahi dio lurraldeak ari horretan duen jarduerari, Gipuzkoaren kirol espirituan laguntzen duten pertsonak, klubak, federazioak eta taldeak ikusarazteko. Guztira, 479 argazki jaso dira, eta Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak hamahiru hautatu ditu: garailea, azalean jartzeko; eta hamabi hilabeteetarako beste argazki bana.

### Abenduaren 21ean Debagoiengan

Abenduaren 13an hasiko dira egutegia banatzen, Donostian, eta, ondoren, abenduaren 23ra arte edukiontzia udalerrir hauetan barrena ibiliko da: Errenteria, Irun, Andoain, Tolosa, Beasain, Urretxu, Eibar, Bergara, Azpeitia eta Zarautz. Hain justu ere, Debagoienera, Bergarara, abenduaren 21ean helduko da. 18:00etatik aurrera, San Martin Agirre plazan banatuko dira egutegiak.

Goizero, aipatutako egunetik aurrera, opari edukiontzia udalerrir horietako erdigunean azalduko da, herritarren artean interesa pizteko, eta 18:00etan zabalduko dute. Ordu

horretatik aurrera jaso ahal izango dira egutegiak. Opari edukiontzia barruan, gainera, Aldundiak testuinguru horretan abian jarri duen kanpaina bat aurkituko dute. Bertan, irribarre egiteko gonbidapena egiten da, eta keinu horrek bakoitzaren osasun psikologikoan dituen onurak aipatzen dira, *Zure irribarre* oparirik onena lelopean.

### Pablo Perezen irudia, azalera

Pablo Perez urretxuarrak irabazi du Aldundiak egutegia osatzeko egindako argazki lehiaketa eta, ondorioz, haren argazki harrigarria jaso du azalean. Aurtengo lehiaketak gipuzkoarren kirolzaletasuna eta balioak erakustea izan du helburu eta urretxuarraren argazki irabazleak lokaztutako jokalaritza taldea eta haur bat ditu protagonista.

Iruñe Berasaluze Gobernantza diputatuak sari banaketa ekitaldian azaldu zuenez, 479 argazki aurkeztu dira lehiaketara, denetariko kirol praktikak eta kirolariak erakusten dituztenak. Eta, hain justu, horixe bilatu dute aurtengo deialdian, Berasaluzeren esanetan: "Gipuzkoarren kirolzaletasuna erakustea, bizimodu aktibo eta osasuntsu baten alde egiten dugun apustuari balioa emanez eta kirolaren bitartez elkarbanatzen duguna ospatuz".

Horrekin batera, honako hau gehitu zuen: "Natura da beste protagonista, argazkietan oso ondo ikusten baita gure menditsasoen edertasuna eta horietaz gozatzeko gipuzkoarren zaletasuna, urtaro guztietan".

Pablo Perezekin batera, hauek dira aurtengo lehiaketaren irabazleak: Iñaki Oregi (urtarrila), Lazaro Gonzalez (otsaila), Ander Morea (martxoa), Jose Venegas (apirila), Iosune Negredo (maiatza), Lander Tolosa (ekaina), Carlos Mediavilla (uztaila), Mikel Caverro (abuztua), Arbil Iciar (iraila), Alberto Beloki (urria), Aitor Agirrezabal (azaroa) eta Gurutze Ariznabarreta (abendua). Guztira, 4.000 euro banatu dira saritan, 1.000 euro irabazlearentzat eta 250 euro gainerako 12 aukeratuarentzat. Urtero bezala, epaimahaia Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen kideek eta Aldundiko ordezkariak osatu dute.

### 40.000 egutegi banatuko dira

Ekimen horrekin, Aldundiak 40.000 egutegi banatuko ditu lurralde historiko osoan.

Ildo horretan, gainera, Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak Donostiako egoitzan abenduaren 18tik urtarrilaren 5era erakusketa bat izango du ikusgai, egutegiaren edizio honetarako jasotako hogeita argazkirik onenekin –San Juan kalea 27–.



ZATOZ  
ALDUNDIAREN EGUTEGIAREN BILA  
*Irribarre batekin*

Abenduaren 21ean jaso dezakezu  
18:00etatik aurrera  
Bergarako Herriko Plazan.

Eta abenduaren 18tik urtarrilaren 5era  
Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen erakusketan.





ZABALIK

XABIER BERSATEGI

## Etorkizuneko autoak

Pedro Harriketarrak ez du batere arazorik Dinorekin eta Pablarekin tronkomobilean bolatokira joateko. Ez du gasolindegira joan beharrik, ezta entxufearen beharrik ere. Haren oinak eta, batzuetan, Pablarenak nahiko dira autoari propulzioa emateko.

Gaur egun, erosleari ziurgabetasun handia dakarkio autoa gasolinazkoa edo elektrikoa erosteak. Industriak ere ez daki ondo nora doan: gasolinazkoa, elektrikoa edo hidrogenozkoa. Zer esanik ez, ingurumenarendako izan dezakeen eragina bata edo besteak.

Eroslearen ikuspuntutik, gaur egun aukera gutxi daude auto elektrikoaren eskaintzan eta, gehienbat, azpiegiturretan. Gasolina edo gasolioa da irabazlea oraindik, eta elektrikoa aukera izateko azpiegiturak falta dira: elektrolinerak, entxufeak garajeetan...

### ZEIN LEHENGAI BEHAR DIRA BATERIAK EKOIZTEKO? ZER EGIN BIZITZA GALTZEN DUTENEAN?

Etorkizunak zer ekarriko digun inork ez daki. Argi dago auto elektrikoak gelditzeko etorri direla, baita hidrogenoa ere erregai garbi bezala.

Zein teknologia irabaziko du? Hori ez da proposatu beharreko galdera, nolako izango den trantsizioa baizik.

Teknologia buruz oraindik duda asko daude: nola sortuko dugu indar elektrikoa bateriak kargatzeko? Zein lehengai behar dira bateriak ekoizteko? Zer egin bizitza galtzen dutenean? Zein energia mota erabiliko dugu hidrogenoa isolatzeko?

Teknologia aurrera doa, eta, harekin batera, trantsizioa energiaren eta mugikortasunaren munduan. Autoei dagokienez, urteetan elkarrekin biziko dira teknologia horiek. Bitartean, automoziorako lan egiten duten enpresa ekoizleek euren trantsizioa bizi beharko dute. Hidrogenoak indarra hartzen badu gasolinaren ordezko erregai bezala, gaitz erdi! Aldaketa gutxiago.

Gure inguruko enpresei begira, arriskua ekoizten ditugun piezetan dago, aldatzeko edota desagertzeko: motorrak, transmisioak, frenoak... Beraz, adi egon behar dugu, eta sortzen diren aukerak aprobetxatu.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Adimenak

ANDONI EGAÑA  
'BERRIA'-N ARGITARATUA  
HTTPS://LABUR.EUS/UPOQL

Euskara irakaslea DBHko gela batera sartu da, eta musika-aparatuan Gozategiren *Nirekin* kantua jarri du.

Bukaeran, abestiaren letratik zer nabarmenduko luketen galdetu die ikasleei.

Batek hitza hartu du, eta uste duela bizkaieraz mintzo dela bota du; beste batek "marrubi usaintxue" aipatu du...

Irakasleak pizarran esaldi bat idatzi du: "Ta ez eixu pentsa ez dela

errex gauza politte pentsatzie".

Ulertzen duten galdetu die ikasleei.

Buruaz, baiezkoa egin dute gehienek.

Eta irakasleak, ezetz esan die.

Ez dutela ulertzen.

Hizkuntza ulertzen dutela, baina ideia, nekez uler daitekeela.

"Erreza ala zaila da gauza politik pentsatzie?", galdetu du.

Isildu egin dira ikasleak.

"Kantekin berdin gertatuko zaizue batxilergora heltzean", eman du epaia irakasleak,

kantu-kanten txistea ulergarri bihurtu nahian

hatzekin imintzio bat eginez.

*Zuzendariari* sailean Unai Artabe Oleak herenegun argitaratu zuen eskutitzak ematen du zer pentsatua.

Hezkuntzak ertz asko ditu, eta Unai aipatzen zuen klase magistralena da horietako bat.

Adimen emozionalaz mintzo bazara, sentibera eta jantzizat hartuko zaituzte.

Adimen artifizialaz hitz egiten baduzu, moderno eta etorkizunaz kezkatzen den irakasletzat.

Eta adimena, soil-soilean, non geratzen da?

Non geratzen?

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Itziar Murgiondo.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**  
Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Leire Etxebarria.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 18.550 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



## BERBAGAI

# "Natura gurekin eskuzabala da; gu ez gara esker onekoak"

**NEREA LAZPIUR 'HIRU ITSASARGI' DOKUMENTALAREN EGILEETAKO BAT**

**Julen Murua Mesonero** BERGARA Gaur, egubakoitza, estreinatuko da *Hiru itsasargi* dokumentala, eta hiru egileetako bat da Nerea Lazpiur bergararra. Urpeko gaiak ditu hizpide dokumentalak, eta, hain zuzen ere, hura sortzeko prozesuaz eta jorratutako gaiak duen garrantziaz aritu da GOIENA Lazpiurrekin.

**Zein da ikus-entzunezko horren abiapuntua?**

Istoria luzea da. Hiru lagun aritu gara horrekin lanean, guk sortu genuen-eta Olatua, Itsasoa eta Natura Elkartea, elkarrekin nabigatzen dugulako. Itsasoarekiko dugun sentsibilizazioa aintzat hartuta erabaki genuen dokumental hori sortzea, bertan dagoen kutsadura, espezie falta eta biodibertsitate murrizketa arazo bat delako eta horri eutsi behar diogulako. Ezagutu izan ditugu babestutako eremuak, Mediterraneoan, bereziki,



Nerea Lazpiur, *Hiru itsasargi* dokumentalaren egileetako bat. TXOMIN MADINA

arrantzako interesekin lotuta dauden itsas erreserbak eta parke nazionalak, esaterako, eta ikusi dugu ur azpian sartzean nolako ezberdintasuna dagoen babestutako eremu baten eta

babestu gabeko eremu baten artean. Hori erakutsi nahi izan dugu ikus-entzunezkoan. **Zergatik Hiru itsasargi?** *Hiru itsasargi* izena jarri diogu dokumentalari Mediterraneo itsasoko hiru

tokitan grabatu ditugulako irudi guztiak: Columbreteren (Castello), Cabo de Palosen (Murtzia) eta Cabrera irlan (Balear uharteak). Hiru itsasargi, bertako hiru itsasargiak irudikatuz. Egin daitekeenaren eta guk ezagutu dugun errealitatearen ispilu da.

**Nolakoa izan da prozesua?**

Esfortzu handia egitea eskatu digu, baina asko gozatu dugu prozesu osoan zehar. Bi urte eta erdi edo hiru urte inguru behar izan ditugu lan guztia egiteko, eta, beraz, ordu askoko grabaketak egin ditugu ur azpian; azkenengo ia urtebetea ikus-entzunezkoaren muntaiarako erabili dugu. Edozein denbora tarte aprobetxatu dugu itsasora joateko: oporrak, egun libreak, Aste Santua, zubiak eta abar; eta hortik atera dugu lana egiteko denbora guztia.

**Adituak ere entzungo ditugu.**

Bidean lagun eta profesional asko ezagutu ditugu; biologoak, itsas ozeanografoak eta parkeetako zainzaileak, esaterako. Horiez gain, gaur egun Europako Parlamentuan dagoen kide bat baina bere garaian Arrantza Ministerioiko zuzendaria zena elkarriketatzeko aukera ere izan dugu.

**Zuri, Nerea, noiztik datorkizu zaletasuna?**

Nire zaletasuna aspaldikoa da; gaztetan igerian aritu nintzen, eta nire bizitzaren zati handi bat uretan pasa dudala esan nezake. Oporretan joan naizenetan ere, motxilan beti eraman izan ditut uretako betaurrekoak, hodia eta hegatsak. Dokumentala grabatzeko bi diziplina erabili ditugu, apnea moduan eta botilekin urperatu garelako, baina guri gehien gustatzen zaigun jarduera apnea da. **Itsasoaren egoera aldatu egin da?**

Bai, eta oso nabarmena da. Kutsadurari edo biodibertsitateari dagokionez, aldea oso nabaria da. Babestutako tokietan, hau da, gizakiak esku hartzen ez duen toki horietan, ikusi dugu nola loratzen den bizitza. Pandemian ere ikusi zen hori: natura gurekin oso eskuzabala da, baina gu ez gara horren esker onekoak. **Eibarren aurkeztuko duzue dokumentala.** Cimasub zikloaren barruan izango da estreinaldia. Ez dakit noraino helduko garen, baina gustatuko litzaiguke Euskal Herri mailan ere dokumentala aurkezteko aukera izatea.



## Realaren eta Alavesen arteko derbirako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

### GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Alaves norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partida 2024ko urtarrilaren 2an, 19:15ean, izango da.

Parte hartzeko azken eguna: abenduak 25.



Egin Goienakide eta Realak ikusteko aukera izango duzu!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!





# 45,8 milioi euroko aurrekontu proposamena

"Datozen urteetarako oinarri eta abiapuntu" izango den aurrekontua proposatu du 2024rako EH Bilduren eta Elkarrekin Arrasateren Udal Gobernuak. 2023koarekin alderatuta, %15eko hazkundera izango luke, eguazteneko osoko bilkuran onartuz gero

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Udal Gobernuak 45,8 milioi euroko aurrekontu proposamena aurkeztu du 2024rako. Onartuz gero, 2023koa baino %15 handiagoa izango litzateke, sei milioi euro gehiago, guztira. Ordenantza fiskalen eguneraketarekin 1,5 milioi euro gehiago jasotzea aurreikusten du Udal Gobernuak, eta Aldundiak banatzen duen foru funtsetik 1,3 milioi euro milioi gehiago.

Aurrekontu proposamenak hiru ildo nagusi eta estrategikori erantzuten die: ehundura komunitarioa indartu eta zaintzea; herri hobe, eroso eta jasangarriagoa sortzea eta gobernantza eredu kooperatiboa eraikitzea, hurrenez hurren.

Ongizatea izango da Gobernuaren ardatzetako bat, eta "eredu komunitarioaren berme" izatea gurako lukete. Hala, bi proiektu azpimarratu ditu alka-teak arlo horretan: osasun mentalaren inguruko diagnostikoa egitea, hainbat eragilerekin elkarlanean, eta aniztasun politiketan esku hartzea. "Herri-tarren osasun mentala zaintzeko apustu argia egiten dugu, horrek zuzeneko eragina duela-ko norbanakoen ongizatean, baita, aldi berean, herriko bizikidetzan ere".



Joseba Ezpeleta, Maider Morras eta Eva Abuin, prentsa agerraldian. TXOMIN MADINA

Aniztasun politikari dagokionez, egun Udalak duen Aniztasun Plana gauzatzeko giza baliabideak kontratatuzko partida sortu du Gobernuak. "Hiru urteko exekuzio programa bat egingo dugu, Aniztasun Mahaiarekin lankidetzan, eta, horretarako, jardun osora egongo den teknikari bat kontratatuko dugu epealdi horretarako. Helburua izango da Arrasateko jatorrien eta identitateen arteko bizikidetzeta eta integrazioa bultzatzea".

Hirigintza arloan, Santa Teresa eta Doneztebe Portuko ka-

leen urbanizazioei jarraipena emango lioke Gobernuak, horretara hiru milioi euro bideratuta. Halaber, Jose Luis Iñarra kalearen berrurbanizazioaren lehen fasea egiteko bi milioi euro erabiliko litzukete. Horrez gain, beste bi guneren proiektuak egin gura dituzte: "Gudarien plazakoa urte hasieratik hasita dugu, eta urte amaierarako Grupo San Juaneko proiektua idazteko deialdia egitea espero da".

Ingurumenari erreparatuta, bestalde, udalerriko hiru natur parkeri garrantzia ematea izan-

go litzateke lehentasuna. "Etxezarretako lorategi eta ibilbideen berreskuratze plan proposamena gauzatzeari helduko diogu eta datozen urteetan Monterron eta Santa Barbara birpentsatzeko txanda izan nahi dugu".

**Iturripeko proiektua, egin barik** Morrasedek baieztatu du kirol azpiegitura berrien obrak ez direla 2024an hasiko; bai, ordea, horiek egiteko proiektuen erre-dakzioa. Lehen Iturripekoa izango da. "Proiektua egon baze-goela uste bagenuen ere, Gobernura heldu ginenean proiekturik ez zegoela konturatu ginen. Beraz, proiektua egin eta lizitatze-ko 2024 osoa beharko dugu".

Halaber, kirol azpiegitura handiak eginda egoteko "urteak" beharko direnez, mantentze eta konponketa inbertsio berriak ere egingo litzuketela dio alka-teak. "Batzuk aipatzearen, 841.000 euro atletismo pista berritzeko eta 520.000 euro Moja-tegiko argiteria aldatzeko. Azken horren kasuan, LED sistemadun argiak ezarriko dituzte. Gainera, "azken urteetan ez bezala", kirol klubei dirulaguntzak handituko litzukete 2024an.

## Amaia, "hilabeteak" itxita

Kulturari dagokionez, "urrats berriak" egin eta sormen beka bat abiarazteko asmoa agertu du Gobernuak.

Horrez gain, Amaia antzokiari lotutako ustezko eraberritzearen proiektua idazteko partida ere jaso dute proposamenean. "Abenduan zehar jasoko dugu txosten teknikoa, eta orduan jakingo dugu interbentzioaren beharra eta horren nondik norakoak". Edozelan ere, aurrera begira, antzokia "hilabete luzeak" itxita egotea aurreikusten dute.

## Feminismoa ardatz

Feminismoa eta LGTB+ Sailari erreparatuta, Emakume Txokoaren kokaleku berria definitzeko proiektura 20.000 euro bideratuko litzuzke Gobernuak eta partida berri bat egongo litzateke "Arimazubiko lokala egokitu eta Emakume Txokoan sortu diren emakume taldeek haien jarduerak gauzatzeko", saileko zinegotzi Eva Abuinen esanetan. Horrez gain, 2024an Emakume Txokoak berak egiten dituen jarduerak 120.000 euroko partida izango lukete. Azkenik, sorkuntza feminista lantzeko bekarako 10.000 euro egongo lirateke, eta beste horrenbeste emakumeen memoria lantzeko.

Lehen aldiz, LGTB+ politiketan "urrats esanguratsuak" egin gura dituzte Arrasateko Udalean. "Lehenengo pausoa izango da diagnostia egitea eta formakuntza tekniko eta politikoa eskaintzea. Kolektibo horrek herrian bizi duen egoera aztertu eta datozen urteetarako ekintza plana osatzen hasiko gara", adierazi du Abuinek. Halaber, kolektiboaren memoria historikoa jasotzeko beka bat irekiko lukete.

Belaunaldiartekotasunari dagokionez, aurrenerabean aisialdi zerbitzu berria martxan jartzeko 50.000 euroko partida aurreikusi dute eta 9-12 urte bitarteko haurren beharrak identifikatzeko diagnosi txostena egiten ari direla jakinarazi dute. (Informazio gehiago, [Goiena.eus-en](http://Goiena.eus-en))

## ITURRIPE BERRITZEKO PROIEKTUA EGIN ETA LIZITATZEKO 2024 OSOA BEHARKO DU UDAL GOBERNUAK

Oparitu elkartasuna!

# harremandenda

Arrasateko Hiper Eroskin gaude 943 77 00 78

Oparitu elkartasuna!

## Zergatik aukeratu Bidezko Merkataritza?

Produktu bakoitzaren atzean pertsonak daudelako

Soldata justua  
Lan eskubideak  
Haur esklabotzarik ez  
Bizi baldintza duinak

Kimikorik gabeko  
kafea, azukrea, kakaoa...  
Kosmetiko naturalak, artisautza eta  
Gabonetako saskiak

**SOS PALESTINA SOS PALESTINA SOS PALESTINA SOS PALESTINA SOS PALESTINA SOS**





Alfontso VIII kaleari izena aldatuko diote eta, aurrerantz, 17 Emakume kalea izango da. E.A.B.

# Alfontso VIII.aren orde, hamazazpi emakume

Zuztarrak Errotuz taldeak abenduko osoko bilkuran aurkeztutako mozioak aurrera egin du eta Alfontso VIII kaleari izena aldatuko diote. Hala, '17 Emakume kalea' izena hartuko du aurrerantz, 1969an Auzo Lagun sortu zuten emakumeen omenez

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE San Andresko Alfontso VIII kalearen izen berria izango du laster: *17 Emakume kalea*. Izan ere, Zuztarrak Errotuz taldearen mozioa onartu egin du udalbatzak, eta, orain, horretarako prozesu administratiboa martxan jarriko du Kultura Sailak.

Hainbat eskaera jasotzen zituen mozioak; nagusiki bi: batetik, Alfontso VIII.aren izena Arrasateko kale-izendegitik kentzea; eta, bestetik, kale horri *17 Emakume kalea* izena jartzea. "1969an, frankismoak emakumeentzat inposatuta zituen hainbat lege: emakumeek, ezkondukoan, lana utzi behar izatea, senararen baimena behar izatea hain-

bat gauzetarako, senarra eta seme-alabak zaintzea eta abar. Bada, garai hartan, hamazazpi emakumeek erabaki zuten, ezkondukoan, lan egiteko eskubidearen alde borrokatzea, haien garapen pertsonala eta independentzia ekonomikoa lortzeko. Hala, Auzo Lagun sortu zuten, eta historiaren norabidea aldatu", azaldu zuten Zuztarrak Errotuz taldeko kideek osoko bilkuran, eta zera gaineratu: "1971n, emakume haien ekimenez sortu zuten estatu mailako lehen haurtzaindegia ere".

Era berean, mozioa onartuta, Udal Gobernu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarriko da, Alfontso VIII.aren

loturiko ekintza historikoak eta kronologiak aztertzeko. "Izan ere, 1200. urtean Gipuzkoako foruak ez zeuden. Gipuzkoa berez ez zen existitzen eta ez dago baieztatuta Alfontso VIII.a urte hartan Arrasaten izan zela foru horien zina egiteko".

Azkenik, Portaloiko eskuinaldeko fatxadan errotulu bat jarriko dute, Alde Zaharra Birgaitzeko Planak ahalbidetzen duen heinean, testu honekin: *Gaztelako konkistaren aurretik, Arrasate Atxorrotz izeneko tenentzian kokatua, egitura bate-ratu batean antolatua zegoen: Nafarroako Erresuma*. Errotuluak, halaber, Nafarroako bandera izango du goialdean.

## Nafarroatik Gaztelara

Mozioa aurkezteko, hainbat azalpen eta datu eman zituzten Zuztarrak Errotuz taldeko kideek; besteak beste, honako hau: "1200. urtera arte, Leintz bailara osoa, Arrasate barne, Nafarroako Erresumaren baitan zegoen, baina Gasteizko setioaren ostean, Gaztelako Erresumak Gipuzkoa, Araba eta Durangaldeko lurak konkistatu zituen, Alfontso VIII.a buru zutela. Garai hartan, ez zen existitzen egun ezagutzen dugun Gipuzkoa, eta lurralde horretan hiru entitate zeuden: Aitzorrotzia, Ipuscaiko Lurra eta San Sebastian. 1200ko konkistaz geroztik, Gaztelako eta, gero, Espainiako erresumakoa da ofizialki".

## Erabateko adostasunik ez

Sozialistek aurkako botoa eman zuten eta jeltzaleak, proposamenarekin bat egin arren, abstenitu egin ziren. "Oso ondo ikusten dugu proposamena, baina iruditzen zaigu protokolo bat lantzen hasi gaitzkeela kaleen izenak aldatzeko, horrelako proposamen gehiago egon daitezkeelako. Udal Gobernuari eskatzen diogu protokolo bat martxan jartzeko", zioen Agurne Juldain EAJko zinegotziak.

EH Bilduren bozeramaile Kepa Urteagak, aldiz, eskerrak eman zizkion Zuztarrak Errotuz taldeari, "memoria historikoari eta Arrasateri mesede egiteagatik", haren esanetan. "Alfontso VIII.aren izena Arrasateri lotuta geratu da, zoritxarrez, eta beharrezkoa iruditzen zaigu hori aldatzea". Elkarrekin Arrasateko Eva Abuinek zera azpimarratu zuen: "Eskerrak hamazazpi emakume haiei, bidea zabalteagatik, eta eskerrak Zuztarrak Errotuzi, egindako lanagatik".



NIRE USTEZ

MARIXE RUIZ DE AUSTRI

## Ez gara berdinak

Imajinatu taberna ilun batean zaudela, eta zigarro-mutxikin gehien pilatzen diren izkina horretara begiratzen duzula. Gizon mengel bat dago, garagardoari zurrutaka ari den artean txanpon bat bestearen atzetik makinan xahutzen. Eta demagun horretan daramatzala hamarnaka urte, ordu gehienak han pasaz makinari begira eta lerroan aterako zaizkion hiru figura berdinak irudikatuz. Hainbeste urte jokaten eta ez du bueltan xentimorik ikusi.

Eta zuk, hor ertzetik begira zabiltzan horrek, penaz begiratzen diozu. Gaur, kontzientziak hainbeste dizu pisatzen, ezen tipoarengana hurbildu baitzara joko txarra dela zurrunki baieztatuz, dirua probetxuzkoago den zerbaitetan xahutu dezala gomendatuz. Gizonak kasu zipitzik ere egin ez dizun sentipenarekin atera zara taberna-zulotik.

Zure errutinako hiru ardoak hartuta, kalean nahasi samar aurrera zindoazela, konturatu zara kiniela eta loteriaren zenbakiak tabernako barran ahaztu dituzula. Eta bertara itzuli zara, makinako tipoak zuk esandako hitz berberak zurekin erabili ditzakeela pentsatu ere egin gabe; "ez gara berdinak".







Arimazubi plazan hainbat terraza daude. E.A.B.

## Terrazak arautzeko balioko duen ordenantza

Udalbatzak aho batez onartu du bide publikoa terrazekin eta bestelako instalazioekin okupatzea arautuko duen ordenantza berria sortzea; bide horretan, lehen pausoa herritarren iritzia jasotzea izango da, eta bi hilabeteko epea irekiko dute horretarako

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Gaur-gaurkoz, Arrasaten ez dago terrazak arautzen dituen ordenantzarik. "Kale erabilerarako ordenantza badago, baina ez daude araututa terrazak. Irizpide batzuk badaude horretarako, baina ordenantzarik ez", azaldu du Kepa Urteagak, Obrak, Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoak Saileko zinegotziak.

Horri konponbidea eman gura dio Udal Gobernuak, "lehenbailehen" ordenantza bat sortuz. Hala, osoko bilkuran aho batez onartu ostean, ordenantza sortzeko bideari ekingo diote, eta lehen pausoa herritarren ekarpenak jasotzea izango da. "Bi hilabeteko kontsulta-epe bat zabalduko dugu, herritarrek ekarpenak egin ditzaten", dio Urteagak. Seguruenik, urtarrilean irekiko dute epe hori, eta BAZen edota *Arrasate.eus*-en egin ahal izango dira ekarpenak.

Epealdi hori bukatzean, aurreko Udal Gobernuak Aztierekin egindako lanketa ere

aintzat hartuko dutela nabarmendu du Urteagak. "Akordiorik ez zen egon garai hartan, baina lanketa eginda dago eta berreskuratu egingo dugu. Modu horretan, saiatuko gara lanketa hori herritarren ekarpenekin osatzen eta ordenantza berria sortzen", gaineratu du.

**Ordenantzaren "beharra" dago** Udal Gobernuak uztaila ezkeror ari da bizilagunekin eta hainbat ostalarirekin harremanetan, adostasunera heltzeko helburuarekin. "Argi daukagun gauza bakarra da guztiok ikusten dugula ordenantza baten beharra. Aurreko agintaldian, saikerak egin arren, ez zen adostasunik lortu, baina horrek ez

**GOBERNUAK AINTZAT HARTUKO DU JOAN DEN AGINTALDIAN AZTIKERREKIN EGINDAKO LANKETA**

du esan nahi beste alde batera begiratu behar dugunik. Gure intentzioa da epe laburrean ordenantza hori martxan egotea".

Urteagak adierazi duenez, "zaila" da ordenantza batek pertsona jakin batzuen beharrak betetzea, baina herritar guztiak araudi baten baitan egotea "onuragarria" izango da herriarendako. "Guztiok joko-arau berak izango ditugu eta jakingo dugu zer dagoen araututa eta zer ez. Elkarbizitza da helburua eta horren alde egingo dugu".

**Asmoa: 2024an martxan izatea** Urrats horiek egin ostean eta behin proiektua idatzita, alegazio-epe bat irekiko dute, eta, ondoren, osoko bilkuran onartu beharko dute berriro. "Epea ez da motza izango, baina ez dugu urtebete luzatzerik nahi, lehenbailehen egin gura dugu", azpimarratu du Urteagak. Modu horretan, 2024an bertan ordenantza martxan izatea da Udal Gobernuaren asmoa.

## Soziolinguistika Klusterreko saria, Eneko Barberenarentzat

'Multinazionalen hizkuntza politika egokirako hainbat gako' lanarekin jaso du aitortza idazle arrasatearrak

**E.A.B. ARRASATE**

Txillardegí-Hausnartu Soziolinguistika Saria jaso zuen atzo Eneko Barberenak, EHuren Donostiako egoitzako Karlos Santamaria liburutegiko Txillardegí aretoan.

*Multinazionalen hizkuntza politika egokirako hainbat gako* izenburu duen lanarekin irabazi du saria arrasatearrak. Lan horretan, hainbat multinazionalen praktika aztertu du hizkuntza kudeatzeko orduan. "Ahalegindu naiz identifikatzen multinazional batek hizkuntza politika egokia izateko gakoak. Izan ere, hizkuntza politika egokia ez bada, hainbat kostu izan ditzake enpresarendako, bai ekonomikoa eta baita langile alorrari dagokionez ere. Era berean, saiatu naiz tokiko hizkuntzei eta hizkuntza gutxituei tokia egiten".



Eneko Barberena. GOIENA

2.000 euroko sariaz gain, 2024ko udaberriaren Klusterraren *Bat* aldizkarian artikulua idatziko du, eta "errespetuz" hartu du hori. "Horrek esan nahi du beste batzuek zientifikoki aztertuko dutela nire lana; hori beste mugari bat izango da".

### OHARRAK

#### 'Gure nortasuna' proiektuaren aurkezpena

Gaur egingo dute, Activos Por Un Mundo Solidariok eta Garagunek, 18:00etan, Kulturateko areto nagusian.

#### 'Hitz egin dezagun gure zaintzaz' hitzaldia

Olaia Aranek egingo du, Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, abenduaren 20an, Kulturaten, 17:30ean hasita.

#### 'Udalatx, ura eta atxa': hirugarren emanaldia

Aurrekoek gain, 20:00etan ere ikusi ahal izango da, bihar.

#### Familia meza, domekan, parrokian

Eukaristia familiarra ospatuko dute, 11:00etan hasita.





**BRONCO™**

# Ford **BRONCO BERRIA**

*Zatoz ezagutzera!*



**Hitzordua hemen: 682 909 625**



**Non gaude? San Andres Kalea, 6 Arrasate**

[www.grupoeasomotor.com](http://www.grupoeasomotor.com)



**Easo Motor**





2022ko maiatzean egindako lasterketaren helmugako irudi bat –pandemiagatik atzeratutakoa–. GOIENA

## "Korrikalarien profila asko aldatu da"

Domekan, Kuadrillen Arteko Santamas Krosak 45 urte beteko ditu. Bada, 1992a ezker lasterketak izan duen bilakaeraren gainean egin du berba Arrasate Atletiko taldeko presidente Jon Ormaetxeak: "Lehen, parranda giroan etortzen zen jendea"

**Xabier Urtzelai Atxa** ARRASATE  
Santamas krosaren 45. edizioan izena Internet bidez emateko gaur da azken eguna, hilak 15, *arrasateatletiko.com* webgunearen bitartez –egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera–. Bada, aurrean ere Arrasate Atletiko taldeko lagunak ibiliko dira lasterketa antolatzeko lanean. "Egutegian gorritz markatuta daukagun eguna da, bai klubeko atletek, eta baita guraso askok ere, lasterketa antolatzeko euren laguntza ere ezinbestekoa da eta. Egun polita da guretako, taldea egiten dugulako".

**Lau hamarkada pasatxo**  
Lasterketak izan duen bilakaeraren gainean galdetuta, Ormaetxeak garai bateko parranda giroa nabarmendu du. "Gaur egun, atleta izaera duten herriar gehiago etortzen dira. Garai batean, askok bezperako txikiteoan erabakitzen zuten krosera etortzea, bazkari bat egiteko

bildotsa irabaziko zuten itxaropenarekin. Egun, berriz, urtean zehar korrika ibiltzen den jende asko etortzen da; bai, behintzat, aurrealdeko postuen borrokan ibiltzen diren haiek. Bilakaera handiena, baina, emakumezkoen parte-hartzean gertatu da; lehen, apenas egoten zen emakumezkorik, eta gaur egun, berriz, neska asko animatzen dira las-

terketan esku hartzera. Eta horrekin batera, lehen ez genituen gaztetxoek lasterketak egiten".

**Sei kilometroko proba**  
Lasterketa Arrasateko erdiguneko kaleetan egingo dute eta zirkuituari hiru itzuli eman beharko dizkiote. Lehenago, 11:00etan hasita, gaztetxoek lasterketak jokatuko dira.



ARRASATE ATLETIKO

## Nile Agirretxe, azkarrena Orion

Joan den asteburuan, Arrasate Atletiko Taldeko atletak Orion izan ziren, Kamel Ziani krosaren bosgarren edizioan esku hartzen. Infantil eta alebin mailetako hamabost atleta joan ziren, guztira, eta, denak txukun ibili baziren ere, nabarmentzekoa izan zen Nile Agirretxek bere kategorian –alebin mailan– lortutako lehenengo postua.

## Santamasetako Padel Txapelketako finalak domekan

Domekan 11:00etan hasiko dute Santamasetako Padel Txapelketako finala, eta, hilabete pasatxoan norgehiagokak jokatzen ibili eta gero, antolatzaileek dagoeneko eman dute aditzera zeintzuk iritsi diren partidu erabakigarria. Hala, Jorge Aranese eta Patxi Vallejosek osatutako bikoteak Aitor Magallanesen eta Ander Barrosoren kontra neurtuko ditu indarrak finalean.

Txapelketa azaro erdialdean hasi zuten, eta 32 bikotek eman zuten izena. Bada, aipatutako bi bikoteak izan dira euren multzoetan gailendu direnak. "AKEtik jende guztia animatzen dugu igande goizean partida horretaz zuzenean gozatzera".

## Ander Murua, Abanca-DV txapelketako finalean

Ander Muruak bihar, zapatua, Abanca-DV txapelketako finala jokatuko du Zumarragan (11:00). Pilotari arrasatearrak Adrian Azpirozekin osatuko du bikotea, eta aurrean izango dituzte Iker Egiguren eta Aingeru Bernaola (sarrerak 10 euro). Pilotariak aste barruan izan dira materiala aukeratzen, eta Murua eta Azpiroz ez dira saskian aurkitutako pilotekin oso gustura geratu; pilota biziagoak espero zituzten.

Arrasateko pilotaria sasoi onean dago. Euskal Herria txapelketa irabazi berri du, Olidenekin, eta Manex Balerdirekin Gipuzkoako txapelketako finalera iritsi da.

**SAMPRU**  
INMOBILIARIA  
HOME STAGING

Ondo ibili santamasetan!

**Iruñe Elexpuru** **Oihana Garcia**  
☎ 607 791 000 ☎ 624 343 882

📍 Otalora Lizenziatua 5, 20500 Arrasate (Gipuzkoa)

✉ info@sampru.es 🌐 www.sampru.es

**Izpi**

Ondo ospatu santamasaak!

Maisu Arano 2 • Arrasate • Tel.: 685 49 26 18  
izpi@outlook.es • IZPI\_Arrasate



# Bertsoz jantziko dute antzokia santamasetan

Hamar euroren truke –AEDko bazkideek, zortzi eurotan– erosi ahal izango dituzte bertsozaleek datorren asteko egunean egingo den jaialdirako sarrerak. Ane Zuazubiskar, Oihana Bartra, Miren Artetxe eta Aitor Mendiluze igoko dira oholtzara

## Julen Murua Mesonero ARRASATE

Kultur ekitaldiek ez dute hutsik egingo aurtengo santamasetan; izan ere, arrasatearrek bertso jaialdi batez gozatzeko aukera izango dute. Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkarteak antolatatu du eta abenduaren 21ean Amaia antzokian izango du tokia jaialdiak; 19:30ean hasita.

Ez da bertso jaialdia antolatuko den lehenengo urtea izango, baina, aurreko urtekoarekin alderatuta, berezitasun bat izango du ekitaldiak: herriko ordezkariak. Lau bertsozaleek beteko dute Amaia antzokiko oholtza, eta lau horietako bat arrasatearra izango da: Ane Zuazubiskar. Gai-nontzeko bertsozaleak izango dira Oihana Bartra, Miren Artetxe eta Aitor Mendiluze. Lau parte-hartzaileek Olatz Zuazubiskar eta Maria Osés arrasatearrek jarritako gaiak erantzun beharko dituzte bertso bidez.

## Sarrerak salgai

Dagoeneko erosi daitezke bertso jaialdiko sarrerak, eta, agortu ezean, hilaren 21ean ere erosi ahal izango dira. Sarrerak Amaia antzokiko leihatilan zein Arrasateko Udalaren webgunean –*Arrasate.eus*– egongo dira esku-agarri, hamar euroren truke. AEDko bazkideek, berriz, behe-



Ane Zuazubiskar. GOIENA



Aitor Mendiluze. GOIENA



Oihana Bartra. GOIENA



Miren Artetxe. BERTSOA.EUS

rapena izango dute AEDn bertan erosiz gero; izan ere, gaur arte, zortzi eurotan erosi ahal izango dituzte sarrerak.

## "Hitzordu garrantzitsua"

Ane Zuazubiskar da oholtza gainera bertsoan egitera igoko den arrasatearra, eta hark dio AEDk "asmatu egin duela" horrelako jaialdi bat herriko jairik garrantzitsuenetako batean antolatzen, nahiz eta jaiekin lotura zuzena izango ez duen. Gaineratu du "maila handiko bertsozaleak" izango dituela lagun

oholtza gainean, eta hori jaialdira joateko eragingarria izango da ikusle askorentzat.

Harrerari dagokionez, dio "aldakorra izaten dela, eta Txapelketa Nagusiaren ostean beti egoten dela "ikusleen gorakada". Haiez gain, badaki batzuentzat "urteroko hitzordua" izaten dela bertso jaialdia, eta askok "egutegian nabarmenduta" izaten dutela: "Askok ez dute izaten aukerarik kanpoko jaialdietara joateko"; beraz, "harrera ona" izatea eta jendea antzokira joatea espero du.

## Arrasate Musikal, 'Ametsak betetzen' 50. urteurrenean

Mende erdia bete dutela aintzat hartuta, ekitaldi berezia antolatuko dute Arrasate Musikalekoek hilaren 17rako

## J.M.M. ARRASATE

Azaroan aurkeztu zuten eta aste-buru honetan, domekan, es-kainiko dute Arrasate Musikalekoek euren 50. urteurrena borobiltzeko kontzertu berezia. 13:00etan hasiko da ekitaldia, Uarkape pilotalekuan, eta *Ametsak betetzen* izenpean elkartuko dira orkestrako kide izandakoak eta gaur egungo kideak direnak; guztira, ehun bat musikari elkartuko dira eta zortzi pieza interpretatuko dituzte.

## Izen handiak

Juan Arzamendi zenaren alaba Beatriz Arzamendik –egun Madrilen dihardu lanean– eta Unai Urretxok –Hego Koreako Suwon Unibertsitateko orkestrako zuzendaria da– hartuko dute batuta domekan. Aiastuik "esker hitzak" besterik ez du izan, zuzendarien prestutasunagatik.

## Belaunaldiak batzen

Ehun musikari horien artean izango dira profesionalak, amateurrak, 1965ean Juan Arzamendik sortu zuen orkestrako musikariak, gaur egungoak eta Arrasate Musikaleko irakasleak.

## Sarrerak oraindik salgai

1.000 sarrera inguru jarri zituzten salgai Monte, Ezkiña, Aterpe eta Kajoi tabernetan, hamar euroren truke, baita Arrasate Musikalen ere –bertako bazkideek, zortzi eurotan–.

Dagoeneko Monte tabernako sarrera guztiak agortuta daude, eta hori bera gertatzea nahi du Edorta Aiastuik gainontzeko sarrerekin: "Tabernetan eta eskolan saldu ez diren sarrerak Uarkapeko leihatilan jarriko ditugu salgai, txartel guztiak agortzea eta Uarkapeko pilotalekua betetzea baita gure asmoa".

## Trikitixa Eskolak antolatutako pandero tailerra Kulturolan

Arrasateko Trikitixa Eskolako kideek antolatuta, pandero tailerra izango da Kulturolan bihar, 11:00etatik 12:00etara. Tailerra herritar guztiendako da, eta adin guztietako parte-hartzaileak joan ahal izango dira. Izena eman nahi dutenek mezu bat bidali beharko dute *arrasatetrikitixaeskola@gmail.com* posta elektronikoko helbidera.

## Umeez dantza erakustaldia egingo dute Herriko Plazan

Bihar, 13:00etan hasita, dantza erakustaldia egingo dute Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeetako umeez Herriko Plazan. Dantza erakustaldiaren ostean, Olentzeroren gutun banaketa egingo dute, Basajaunekin batera, plazan bertan. Eurria bada, berriz, ekitaldi horiek Kulturolako aterpean egingo dituzte.

J. Ramón Otamendi  
HARATEGIA

Ondo ospatu santamasa!

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

Josle  
LENTZERIA & BERTSIOIA

Zatoz zure jantziaren bila!

Ondu pasau santamasa!

Otalora  
Lizentziaduna 21  
Tel.: 943 79 71 30





Ingeotyc taldeko Valentin Ibarra eta Javier Aldai. A.E.G.

## Itsaraz parkeak izango duen eragina azaldu dute

Udalak Itsaraz parke eolikoaren proiektuari jarri dizkion alegazioak prestatu dituen ingeniari eta aholkularitza taldeko kideak kultura etxean izan ziren eguaztenean. Parke eolikoak herritarrengan izango lituzkeen kalteak nabarmendu zituzten

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Ingeotyc ingeniari eta aholkularitza enpresako Valentin Ibarra geologoak eta Javier Aldai ingeniariak Itsaraz parke eolikoak Aramaioko herrian eta lurretan eragingo dituen kalteak azaldu zituzten. Hain zuzen, ingeniari eta aholkularitza enpresa hori izan da Udalarik alegazioak prestatu dizkion taldea. Nabarmen-

du zuten zaratak eragina izango duela herritarrengan; batez ere, sentsibilitate handia dutenengan. "Aurreikusitako dorreak ia 200 metro luze dira", zioten. Zarataz gain, itzalak nabarmendu zituzten.

### Ingurumen-inpaktua

"Parkea errentagarria izateko, haizearen abiadurak 6,22 metro

segundokoa izan beharko luke; Aramaioren kasuan, Statkraft-ek ez du neurketarik egin", azaldu zuten. Proiektuari jarritako alegazio guztiek kontrako erantzuna izan dutela gehitu zuten. Gaur-gaurkoz, "proiektua garatzeko itxaropen bakarrenetakoa" Espainiako Estatuak ingurumen-inpaktuaren txostenari ezezkoa ematea dela esan zuten.

## Sinadura bilketa eta kamisetak

Azaroaren 29an Aramaioko udalbatzak onartutako adierazpena babesteko, sinadura bilketa egiten ari dira. Gaur, esaterako, 19:00etatik 21:00etara egongo dira Goiko taberna parean. Sinadura bilketa urtarillaren 10era arte izango da. Gainera, Aramaioko Bizirik taldeak atera dituen kamisetak salgai egongo dira, 15 eurotan.



Kamisetak horiak jarri dituzte salgai. A.E.G.

## Oletako isurketa-baimena Udalaren izenean egongo da

Ur hornidura eta isurketa Udalaren esku egongo da; aldaketak ez du eraginik izango aurrekontuetan

### A.E.G. ARAMAIO


Azaroaren 29an egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuten Oletako isurketa-baimenak Udalaren izenean jartzea. "Oletako junta administratiboak du uraren hornidura eta isurketak kudeatzeko ardura. Edateko uraren kasuan, aspaldi pasatu zen kudeaketa Aramaioko Udalaren esku egotera. Isurketa kudeaketa ez zen pasatu Udalaren izenera, baina kudeaketa Udalak egiten du. Hortaz, arazoa egoten da Urak Agentziak eskatzen dionean Oletako junta ad-

ministratiboari uraren azterketaren datuak aurkezteko, ez dituztela izaten eta Udalera jo behar dutela", azaldu zuen Martin Arriolabengoa zinegotziak. Aldaketak balio du egoera erregularizatzeko, eta ez du Udalaren aurrekontua eraginik izango.

Bestalde, ohiko bilkuren orduetara aldatzea onartu zuten. Orain arte, 19:00etan egin izan dira udalbatzaren osoko bilkurak, hileko azken egunetan; bada, aho batez onartu zuten aurrerantzean osoko bilkurak 18:00etan izatea.

## Kargua utzi du Iban Herrartek, arrazoi pertsonalak tarteko

Arrazoi pertsonalak argudiatuta, Aramaioko alkate Iban Herrartek kargua utzi du. 2023ko ekainean hartu zuen aginte-makila, eta sei hilabeteren ondoren etorri da erabakia. Udal Gobernuak jakinarazi du lantalde berria berregituratzeko lanean ari direla; bitartean, Martin Arriolabengoa izango du aginte-makila.



Iban Herrarte.

## Bi peoi kontratatuko ditu Udalak lan-jardun erdian

Aramaioko Udalak bi peoi kontratatatu behar ditu. Lanaldiak hiru hilabeteko iraupena izango du, eta lan-jardun erdikoa izango da. Zereginak izango dira: espazio eta eraikin publikoen eta espazio berdeen mantentze eta egokitzapena egiteko lanak burutzeko, eraikuntza, lorezaintza eta antzeko lanak egiteko. Kontratatuko diren pertsonak bete behar dituzten baldintzak: Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan lan eskatzaile gisa izena emanda egotea eta langabezian egotea. Lanbideren bitartez egin beharko da eskaria, abenduaren 20ra arte. 2022ko programan kontratatutakoek ezingo dute parte hartu.

## Arabako erpin geodesikoen sarea ezagutzeko proiektua

Foru Aldundiak Arabako erpin geodesikoen sarea ezagutarazteko eta herritarrei hurbiltzeko dibulgazio-proiektu bat jarri du abian, 15 ibilbide biltzen dituen argitalpena baten bitartez. Hala, ibilbide horiek lurralde osoan zehar banatutako 37 erpin geodesiko lotzen dituzte; tartean, Aramaioko bi ibilbide daude: Urkiolamendi (Abadiño) eta Orixol artekoa, *Ardoaren eta arrainaren usaina* izena duena; eta *Begiraden ibilbidea*, Durakogain eta Jarindo artekoa. Argitalpena udaletxeetan, turismo bulegoetan eta parketxeetan har daiteke formatu fisikoan, eta baita *GeoAraba* atarian ere, formatu digitalean.



# Gaur hasita, ekintza ugari Gabon jaietan

Alex Mendikute argazkilariak 2022an egindako argazkiekin sortutako proiektzioa kultura etxean eskainiko dute gaur, barikua, 18:30ean. Horrez gain, etxeko gaztetxoei zuzendutako tailerrak, antzezlanak eta kirol eta kultura ekitaldiak egongo dira

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Aramaioko Udalak, beste eragile batzuekin elkarlanean, Gabonetako egitarau oparoa aurkeztu du. Gaur hasiko dituzte ekitaldiak. Azken urteetako ohiturari eutsiz, Alex Mendikute argazkilariaren proiektzioa izango dute kultura etxean. "2022an egindako argazkiak erakutsiko ditut; Aramaioko herrian, hainbat ekintza berezitan egindako argazkiak izango dira", azaldu du Mendikutek.

Dagoeneko herrian errotuta dagoen ekitaldia da argazki proiektzioa: "2010ean hasi nintzen proiektzioarekin". Herriko ekitaldietan: Inauterietan, Santa Ageda batzean, jaietan... egiten ditu argazkiak, eta gehienak erretratuak izango dira. "Pertsonei egindako argazkiak dira; asko, lapurtutakoak. Kamera-ekin ibiltzen naiz eta zerbait ikusten dudanean argazkia egiten diot", dio Mendikutek. 20 minutu inguru iraungo du



Olentzero eta Mari Domingi, udaletxeko arkupeetan. GOIENA

proiektzioak, musikak lagunduta. "Behin proiektzioa bukatutakoan, gehiago eskatzen didate; beharbada, aurtengo Inauterietako argazkiak jarriko ditut, edo paisaiak, edo animalienak...", azaldu du argazkilariak.

## Izen-emateak

Gabonetako oporretan egingo diren tailerretan aurrez eman behar da izena. Hala, abenduaren 26ko eta 29ko tailerretan parte hartu nahi duten 5 urtetik gorako haurrek ludotekan eman

## Gabonetako egitaraua

Herritar guztiendako ekitaldiak.

### Zer egongo den

- **Abenduak 15** Alex Mendikutearen eskutik argazki proiektzioa, 18:30ean.
- **Abenduak 24** Olentzerori eta Mari Domingiri ongietorria, 18:00etan, frontoian.
- **Abenduak 26** Umeendako tailerrak kultura etxean, 11:30ean.
- **Abenduak 27** Ipuin kontalaria kultura etxean, 11:30ean.
- **Abenduak 28** Bilboko PINera irteera, 09:15ean.
- **Abenduak 29** Umeendako tailerrak eta *Kris eta Krash ile-apaindegian* antzezlanak, 11:30ean.
- **Abenduak 30** Lagun Artean dantza taldearen dokumentala kultura etxean, 18:00etan.
- **Abenduak 31** Orixolera mendi irteera kiroldegitik.
- **Urtarrilak 2** *Kangoo jumping* tailerra, kiroldegian.
- **Urtarrilak 3** DJ Anai musikariarekin disko festa kiroldegian, 17:00etan.
- **Urtarrilak 4** Puzgarriak kiroldegian, 17:00etan.

Oharra: Udaleko Kultura Sailak antolatutako egitaraua.

beharko dute izena abenduaren 21a baino lehen. Abenduaren 28an Bilboko Gabonetako parkera egingo duten irteerarako abenduaren 22a baino lehen eman behar da izena udaletxean, 9 euro ordainduta. 10 urtetik beherako haurrek heldu batekin joan beharko dute. Urtarrilaren 2ko *Kangoo jumping* tailerra 12 eta 18 urte bitartekoendako izango da eta abenduaren 21a baino lehen eman beharko da izena.

Abenduaren 27an Ixabel Agirresarobe izango da ipuinak kontatzen; bada, bi saio egingo

ditu: 11:30ean, 4 urtetik gorakoendako; eta 12:30ean, 7 urtetik gorakoendako. Hilaren 29an egingo duten antzezlanak 14 urtetik gorakoendako izango da.

Olentzeroren eta Mari Domingiren ongietorria Guraso Elkar- teak antolatuko du.

## BILBOKO GABONETAKO PARKERA JOATEKO 9 EURO ORDAINDU BEHAR DIRA

## Garai bateko kontuak modu digitalean irakurtzeko aukera

'Goiena.eus' atariko 'Aldizkariak' atalean kontsulta daitezke 'Txirritola' aldizkari zaharrak

### A.E.G. ARAMAIO

Garai bateko *Txirritola* aldizkaria modu digitalean irakurtzeko aukera badago. Goiena Komunikazio Taldeak 1988tik 2006ra argitaratutako Debagoieneko herri aldizkariak digitalizatu ditu azkenaldian; tartean, *Txirritola* aldizkaria.

Bada, atzera begira jartzeko aukera polita eskaintzen du sareak. Urte haietan herrian gertakari nagusi izan zirenak daude jasota. Baina ez gertakariak bakarrik, baita herritarrek ere; izan ere, gehien-gehienetan,

aramaioarrak izan ziren protagonista *Txirritola* aldizkarian argitaratutako berrietan. Berriz irakurtzeko moduko artikulu eta atal asko daude aldizkari horietan: herritarrek sinatutako iritzi artikulua, *Boteprontoan* ataleko elkarrizketak, *Erretratu zaharra* atala, *Nola aldatu diren gauzak* atala, kale-inkestak... Une politak pasatzeko eduki ugari dago bertan.

2000ko maiatzetik 2006ko urtarrilerako arteko *Txirritola* aldizkariak daude digitalizatuta *goiena.eus* atarian.

## Antzara-jokoa: txapeldunak



Askotariko ekitaldiak egin zituzten Euskararen Eguna ospatzeko. Tartean, partxis eta antzara-joko lehiaketak, Txirritolak antolatuta. Bada, argazkian ageri dira antzara-jokoan ondoen moldatu ziren

gaztetxoak. Horrez gain, Udalak antolatutako online lehiaketako irabazleak Laurane Zubia Balanzategi eta Blanka Rosa Maskariano Ibabe izan dira.



# Hamasei milioi euroko aurrekontu proposamena

Udal Gobernuak aurkeztu du 2024rako landu duen aurrekontua, eta hamasei milioi eurotik lau izango dira inbertsioetarako; ildo nagusiak ere zehaztu ditu: zaintza ekosistema garatzea, herrigintzarekin sinergiak sortzea eta auzoetan arreta jartzea

**Mirari Altube** ARETXABALETAKO

Udal Gobernu taldeak 2024rako aurrekontua landu du azken asteotan, eta hamasei milioi euro jaso dituzte hor; horietatik lau, inbertsioetarako. Proposamena dagoeneko helarazi dio oposizioari, eta udal langileekin ere partekatu du.

"Aurreko agintalditik bukatu barik dauden inbertsioek baldintzatutako aurrekontua" dela azpimarratu du Gari Iturbe alkateak. Hala ere, Udalak hainbat ildo zehaztu dituela azaldu du: zaintza ekosistema integrala garatzea, herrigintzarekin sinergiak sortzea, auzoetan arreta jartzea eta berdintasuna ardatz izatea.

**Gizarte-ongizatea: %20 gora**

Gizarte-ongizatera bideratutako partida "oro har %20 handituko" dutela zehaztu dute. Zaintzari dagokionez, adin guztiak kontuan hartzea dute helburu: "Arreta berezia eskaini gura diegu barkadate egoerei. Era berean, zaintzaileak zaintzeko bidean urratsak egin gura ditugu, eta horiendako aholkularitza sistema bat jarri". Aldi berean, eguneko arreta-zerbitzua martxan izango dela gogorarazi du. Nerabeen eta gazteen ongizate emozionala bultzatzeko prestakuntza eta laguntza eskainiko dela ere aurreratu du, eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako proiektu bat abiaraztea da asmoa. Gizarte-larrialdi kasuetarako Udalak dituen etxebizitzak konpontzea ere sartu dute.

**Berdintasuna, ardatza**

Ardatz nagusietako bat berdintasuna izango dela nabarmendu dute Udal Gobernuo kideek: "Teknikariaren lanaldia handitu egingo dugu, eta postua egonkortu. Emakumeen etxea ere iparra da guretzat, eta parte hartze prozesu bat egingo da beharrak identifikatzeko".

**Azpiegituretako inbertsioak**

Azpiegituretara, oster, lau milioi euroko inbertsioa bideratuko dute; hona hemen aipagarri batzuk: Andramari plaza eraberritzeko, 400.000 euro; kiroldegi aurreko kirol eta aisialdi gunearen lehenengo faserako, 450.000 euro; komentuko lorategia egokitzeko, 350.000 euro; Txarapeako igogailuarendako, 350.000 euro; Arkupeko klimatizazioa konpontzeko, 350.000 euro; gune estali bat egiteko, 200.000 euro; institutu berriarendako lurrak erosteko, 100.000 euro; eta kuarteleko instalazio elektrikoa konpontzeko, 80.000 euro.

Horiez gain, auzoetako "bizi-baldintzak hobetzeko apustu sendoa" egin gura dute. Horretarako, honako hauek jaso dituzte: partida bat sortzea, auzoen artean proportzionalki banatzeko; bideak konpontzeko beste

**AISIALDI ETA KIROL GUNEAREN LEHEN FASEARI EKITEKO 450.000 EURO AURREIKUSI DITUZTE**



Udal Gobernuo kideak, aurrekontu proposamena aurkezten. MIRARI ALTUBE

bat; eta jaiak antolatzeneko partidak handitzea.

Iturbek azaldu du pilotalekua atontzeari ere ekingo diotela: "Proiektua garatzen hasiko gara, parte-hartzea bultzatuta". Gainera, kirolaren alorrean, taldeentzako laguntzak handitzea eta emakumeen parte-hartzea sustatzea dituzte helburuen artean.

Herriko ingurumen balioen azterketa egitea ere aurreikusi dute: "Gure basoen eta ibaiaren egoeren diagnostikoa egingo da, aurrera begirako interbentzioak aztertzeko".

**Parte-hartze prozesua**

"Herrigintza, zentzu zabalenean, gure iparra izango da", adierazi du alkateak, eta "komunitatearen sinergiak indartzeko hainbat ekimen" dituztela zehaztuta azaldu; adibidez, elkarten arteko koordinazioa hobetzeko aplikazio bat. Horrez gain, aurreratu du prozesu parte-hartzaile bat jarriko dutela abian herritarrekin: "Ekarpenak jasota marraztuko dugu zelako Aretxabaleta izan gura dugun, hurrengo urteetako proiektuak eta aurrekontuak bideratzeko".



MIRARI ALTUBE

## 90 urteko bazkideei aitortza

Basotxo erretiratu elkarteak 90 urteko bazkideak omentzeko ohitura berreskuratu du, eta 1933an jaiotako hamabosti egin ziren aitortza martitzenean –lau ezin izan ziren han egon–. Arkupen elkartu ziren senideek eta Gari Iturbe eta Nerea Zubillaga udal ordezkariak lagun eginda, aureskua eta hainbat kantu eskaini zizkieten, eta opariak banatu.

## LGTBI+ kolektiboaren gaineko solasaldia izango da bihar

Pentsamendu kritikoa sustatzea helburu duen Hiruki Larroxa kooperatibako kideek LGTBI+ izatea zer den izango dute hizpide bihar, zapatua, udaletxe zaharrean (11:00-13:00). Aurten sortu den Atxabaltea Harro elkarteak gonbidatu ditu lanketa hori gidatzera: "Kolektiboko pertsonen errealitatearen gainean egingo dute berba, herri handi

eta txikiengan dauden ezberdintasunen gainean, adibidez. Guk Aretxabaletan jarriko dugu arreta, hemengo errealitateetik abiatuko gara eta horren gainean hausnartuko dugu", adierazi du elkarte kide Beñat Arizabaletak.

Ikastaroa irekia dela gaineratu du, eta edonork parte hartu ahal izango duela: "Herri osoaren kontzientzia piztu gura dugu, eta sentsibilizazio kanpaina zabaldu; horretan gabilta azken hilabeteetan, poliki-poliki".

## Erakusleihen lehiaketan botoa emateko aukera dago

Gabonetako erakusleihen lehiaketa abian da, Udalak antolatuta. Saltokiko ohiko artikulua erabili aipatzeko eskatu die, eta argizatuta izatea gomen datu. Bi sari banatuko dituzte: nagusia –300 euroko bonua– aditu batek erabakiko du, erakusleihen kalitatea, publizitate mezuaeren imajinarioa, originaltasuna eta argien erabilera kontuan hartuta; eta bigarrena –150 euroko bonua– herritarrek hautatuko dute. Botoa emateko kutxa Arkupen dago eta online ere egin daiteke, galdetegi bat bete ta; horretarako azken eguna abenduaren 18a da eta emandakoen artean 50 euroko bonu bat zozketatuko dute.

## Autodefentsa feminista ikastaroa egingo dute abenduan

Emakumeentzako autodefentsa feminista tailerra antolatu du Udaleko Berdintasun Sailak. Safo eskolako kide Esther Lopezek gidatuko du eta alderdi psikologikoa eta fisikoa landuko ditu. Bi saio izango dira, Ibarra kiroldegian: bata 26an eta bestea 28an; biak, 10:30etik 14:30era. Leku mugatuak daude eta izena alde aurretik eman behar da: [berdintasuna@aretxabaleta.eus](mailto:berdintasuna@aretxabaleta.eus).

Bestetik, Gehitu eta Mugen Gainetik elkarteek argitaratutako *Opil eta Muxilen binetak: komiki lesbikoak bi ertzetatik* izeneko erakusketa dago Arkupen. Berdintasun Sailak antolatu du hori ere, eta abenduaren 22a arte egongo da ikusgai.



# Aitortza hazia ereindako haiei, lanean jarraitzeko

Loramendi elkartearen 30. urteurrena ospatzen hasi da abenduaren 10ean, elkartearen sorrera egun berean, lehenengo zuzendaritza batzordeko kideak omenduta; 1993an hasitako bidetik jarraitzeko indarra eskuratu gura izan dute oraingoak

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Patxi Lazkano, Juanjo Arabaolaza, Jon Antxia, Jasone Gorroño, Joxe Mari Sarasua, Jon Iñaki Izarzelai, Alberto Trojaola, Julen Zuazabeitia, Maia Etxebarria eta Aitor Sarasua izan ziren Loramendi elkartearen lehenengo zuzendaritzako kideak. Eta guztiak –Sarasua aita-semeen hutsunea Jon eta Josu anaiek bete zuten– elkartu ziren joan den domekan egindako aitortza ekitalditzoan. "Pozik" eta "eskertuta" agertu ziren gogoratu izanarekin, baina lanean jarraitzeko dei egin zuten.

**Beinketik Loramendira**

Beinke elkartearekin –AEDn sartutako hainbat herritarren ekimenez– hasi zuten euskararen bueltako ibilbidea Aretxabaletan, "herritar mordoak babestuta". Zazpi urteko lanaren ondoren, Loramendi ikastolarekin bat egitea erabaki zen, eta, orduan, Joakin Arana Loramendi kultur elkartearen jarri zuten abian; 1993ko abenduaren 10a zen.

Egindakoa eskertzeko, udal-txe zaharrean batu zituzten eta gaur egungo presidente Lierni Zangituk gidatu zuen ekitaldia; Joxe Ugarte artista aretxabale-tarrak egindako oroigarria jaso zuten han. Lekaixoka bertso eskolakoek hartu zuten parte eta Jon Sarasuak euskarak gaur egun bizi duen egoeraren gaineko hausnarketaren zatitxo bat konpartitu zuen.

**Aurrera begirako lana**

Orain, baina, aurrera begiratu beharra dagoela adierazi zuten guztiak; lehenengo presidentea izan zen Lazkanok, esaterako: "Asko dago egiteko oraindik; herri euskalduna izanik erdara asko entzuten da-eta kalean".

Sarasuak azaldu zuen estrategia berriak behar direla: "Egindakoa ikaragarria izan da, baina orain arte egindakoa egiten



Lehenengo zuzendaritza batzordeko kideak omentzen, domekan. I. SORIANO

jarraitzearekin ez dugu aurrera egingo. Gizarte mugimendu dimentsioa aktibatu behar da; bereziki, tokiko euskara elkar-teetan".

Zangitu lanerako gertu agertu zen: "Egindakoa garrantzitsua

izan da eta bide horretatik jarraitu gura dugu; gaur egun ere erronka da zelan sustatu euskararen erabilera". Aurreratu zuen urteurrenaren bueltako beste hainbat ekitaldi egingo direla 2024an.

## 'Hamaika ibilbide eta istorio' bueltan

Loramendi elkartearen Toponimia taldeak argitaratutako *Aretxabaleta. Hamaika ibilaldi eta istorio* liburua bueltan da. 2022ko urtarrilean kaleratutakoari zuzenketak eta moldaketak egin dizkiote eta 200 ale atera dituzte oraingoan; Loramendiren bulegoan, Durana kalean, dagoeneko salgai dute, 20 eurotan.

Julen Abasolo Gallastegik eta Gorka Madinabeitia Perezek egindako lan mardula da.

Aretxabaleta inguruko auzo eta mendietako zein erdiguneko ibilbideak jaso dituzte, hamabi, guztira, argazkiekin eta argibideekin osatuta: argazki panoramikoak eta QR bidez *tracka* eta *earth* hegaldiak. Bereziki toponimiari eman diote garrantzia eta milatik gora toki izen eta istorio mordoak batu dituzte. Ez dute artxibo lanik egin, ahoz aho transmititutakoa jaso baizik.



Liburua azokan. L. ZANGITU

## Neguko azokak 27 postu batuko ditu Durana kalean bihar eta etzi

Hamar artisau, lau ekoizle, bost merkatari, lau elkarte eta herriko beste lau artista elkartuko dira

**M.A. ARETXABALETA**

Artisautza, merkataritzak eta bertako askotariko produktuen topagunea izango da Durana kalea zapatuan eta domekan. Postuak, 27 guztira, 11:00etatik 15:00etara bitartean izango dituzte zabalik bi egunetan.

Hamar artisau, lau ekoizle eta bost merkatari elkartuko dira, eta era askotako produktuak eskainiko dituzte: larruzko osagarriak, zilarrez egindako bitxiak, arropa, pintura-lanak eta jatekoa: ezti, ogia, hestebeteak, gozogintza... Lau elkartek ere

hartuko dute parte: Hiruatx gobernu kanpoko erakundeak, Gu Haziak Gara elkarteak, Zapareak elkarteak eta UDAk.

Gainera, herriko artistei ere egingo diete lekua eta hainbat idatzitako liburuak erakutsiko dituzte.

**Egubakoitzean, buzkantzak**

Azokaren aurretik, gaur, egubakoitzean, buzkantzak dastatzeko aukera eskainiko dute UDAk eta Aretxartek. Herriko Plazan jarriko dute postua, 18:30ean.



ARETXABALETAKO UDALA

## Auzoetako alkateak izendatuta

Landa-auzoetako alkateek hartu dute kargua baita Udal ordezkariekin lehen bilera egin ere; hona hemen horiek: Garbiñe Zubizarreta (Isurieta); Jose Ramon Urrutia (Galatza); Mikel Añibarro (Apotza-etxebarria); Gorka Arbulo (Oro); David Agirre (Larrino); Beñat Kortabarria (Aozaratza); Jaione Lazkano (Areatza); eta Miguel Moñux (Goroeta); eta Iñigo Trojaola (Arkarazo).

## Organo eta soprano kontzertua etzi, domeka, parrokan

Jose Luis Franzesena organo-jole azpeitiarrak eta Mariatxen Urkia soprano aretxabale-tarrak kontzertua eskainiko dute domekan parrokan, 19:00etan.

Aretxabaleta Abesbatzak, bestalde, abenduko ohiko kontzertua egingo du hilaren 30ean, parrokan, 20:00etan. Mozarten *Koroazio meza* abestuko dute, baita Gabonetako kantak ere.





# Dantzaldien aldeko apustua egin dute

Negu garaian, hilean behin, dantzaldi bat antolatzea erabaki du Eskoriatzako Udalak. Azaroan, Duo Imperial taldea izan zen, eta, arrakasta ikusita, zapatu honetan Imanol Intxausti eta Iñaki Larrañagarekin dantzaldia izango da, 18:30ean hasita

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** Azaroan hasi ziren Eskoriatzan Gabonei ongietorria egiteko ekintzekin. Izan ere, Duo Imperial taldearekin dantzaldia izan zen. Horren harira, hileroko dantzaldi bat antolatzea erabaki du Eskoriatzako Udalak.

"Negu garaian, Zaldibar antzokian, hilean behin hitzordua bat proposatzea pentsatu dugu. Azaroan, Duo Imperial talde errioxarra izan genuen, eta herritarrak oso gustura izan ziren. Saio ederra izan zen, eta, eskoriatzarrak proposamenarekin hain pozik agertu zirenez, euren eskaerari erantzun eta zapatu honetan ere izango dugu beste dantzaldi bat. Kasu honetan, Imanol Intxausti eta Iñaki Larrañagarekin dantzaldia izango da", adierazi du Arantxa Unzuetak, Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak.

## Giro ona jartzeko gogoz

Zapatu honetan Zaldibar antzokiko saioan izango den protagonistetako bat Eskoriatzan bizi den Imanol Intxausti segurarra da, eta gogoz dago egunerako. Soinua jotzen izango da agertoki gainean, eta estilo askotariko kantak joko dituela dio. "Goizean, Gasteizen izango dugu saioa, eta 18:30ean,

Eskoriatzako Zaldibar antzokian balsak, pasodobleak, tangoak, rantxerak eta bestelakoak eskaintzen izango gara. Helburua betikoa izango da: herritarrak dantzan jartzea", adierazi du Intxaustik.

## ZAPATUKO DANTZALDIRAKO SARRERA DOAKOA ETA HERRITAR GUZTIEI ZUZENDUTAKOA DA



Azaroan, Duo Imperial taldearekin egindako dantzaldia. **ESKORIATZAKO UDALA**

## Hainbat formatutan

Egitasmo horren lehenengo bi saioak talde formatuan egin badira ere, beti ez dela horrela izango adierazi du Unzuetak. "Ez da beti talde formatuan izango; zenbait kasutan zuzeneko musika eskainiko dugu, baina DJak ekartzea ere bada asmoa. Horrez gain, herritar guztiei irekitako proposamena izango da, eta dantza egin nahi duen orori zuzenduta egongo da", adierazi du Arantxa Unzuetak, Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak.



OMAR MARTIN

## Azken deia egiteko aukera barik

Martitzenean erretiratu zuten San Pedro auzoko Compostela taberna pareko telefono-kabina. Urte asko dira ez zebilela, eta, eskuko telefonoekin konpetentzia egitea ezinezkoa izanda, apurka-apurka kabina guztiak kentzen joan dira telekomunikazio enpresakoak; San Pedrokoa kenduta, herrian ez da kabinarik geratzen.

## Gabonetako parkerako begiraleak behar dituzte

Abenduaren 26an, 27an eta 28an izango da Gabonetako parkea, Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian, 3-12 urteko haurrei zuzenduta. Hala, abenduaren 26an igerilekuan izango da eta 27an eta 28an, kiroldegiko kan txan. Ordutegia, berriz, honako hau izango da: goizez 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 20:00etara. Hala, Udaletik jakinarazi dutenez, begiraleak behar dituzte bi egun horietarako.

Parkean lan egin nahi dutenek curriculumak helbide hauetako batera bidali beharko dute: [hazi@eskoriatza.eus](mailto:hazi@eskoriatza.eus) edo [gazteria@aretxabaleta.eus](mailto:gazteria@aretxabaleta.eus). Informazio gehiago, udal webgunean.

## Esti Markezen kontzertua izango da domekan, 19:00etan

Domeka honetan izango da Esti Markez musikariaren kontzertua, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Esti Markezek, beti musikarekin harreman estuan eta aitarekin hainbat kontzertutan kolaboratuz eta elkarrekin disko bat atara zuen arren, iaz *Hitzekin jolasean* –autoekoizpena– argitaratu zuen, bakarkako haren lehenengo diskoa, eta ahots bereizgarri eta goxoarekin, ahots kordetan korapilatu gabe kantu freskoak eskaintzen izango da. Haren kantuetan pop-rock doinuak dira nagusi, baina estilo askorekin jolasten da. Sarrerak salgai daude Manuel Muñoz kiroldegian eta *bibe.me* webgunean, bost eurotan.

## Intxaurtuetakoko ekintzak, gaur

San Pedro eta Intxaurtueta auzoetako bizilagun elkarteko kideek ere bat egingo dute Gabonen ongietorriarekin. Izan ere, iaz antolatu zituzten ekintzen moduan, gaurko ere antolatu dute egitaraua. Hain zuzen, herriko argien piztuera gaur egingo da, eta, ekitaldi berezirik egingo ez den arren, San Pedro eta Intxaurtueta auzoetakoek jai giroan ospatu

nahi dute, eta, bide batez, herritar guztiak animatu antolatu dituzten ekintzetara.

### Gabon kantak, 19:00etan

Gaurko ekintzak Intxaurtueta auzoan izango dira, Euskaltegi pareko plazan. 17:00etan, marrazki tailerra izango da, eta gero, txokolate-jana; kasu horretan, norberak bere edalontzia eramatea gomendatu

dute antolatzaileek. 18:00etan, berriz, txorizo egosien pintxoan salmenta egingo dute, eta barra txiki bat ere jarriko dute mokadutxoari laguntzeko; 19:00etan, berriz, De Norte A Sur taldearen emanaldia izango da. Hogei lagunekin koruak eta bost musikaririk osatzen duten taldea da, eta Gabon kantak eta flamenkoa uztartuko dituzte, San Pedro eta Intxaurtueta auzoetako bizilagun elkarteko kideek azaldu dutenez.





# Euskal mitologiara gerturatzeko gunea

Astelehen honetan ireki dute 'Baso guztien barnetik, uste guztien gainetik' mitologiari buruzko erakusketa Ibarraundi museoan. Hilaren 30a arte izango da ikusgai, eta abenduaren 24an eta 25ean, berriz, itxita egongo da erakusketa

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA  
Euskal mitologiako izakiak hobeto ezagutzeko asmoz eta Olenzero eta Mari Domingi pertsonaiak zeintzuk diren testuinguruan jartzeko antolatu du Eskoriatzako Udalak *Baso guztien barnetik, uste guztien gainetik* izeneko erakusketa, Ibarraundi museoan.

Pandemia garaian du oinarria sorkuntza horrek, nahiz eta orduko erakusketatik ezberdintzen den. Hala, aste osoan haurren taldeak izan dira euskal izaki mitologikoak gertutik ezagutzen, egunero, eta datorren astean ere izango dira. Eskoriatzako haurrez gain, Arrasatekoen bisita ere jasoko dute Ibarraundin. Erakusketa adin orotariko pertsonen zuzenduta dago; haurrak, gazteak zein helduak ongietorriak izango direla adierazi dute antolatzailleek, eta, beraz, bertatik pasatzera animatzen dituzte eskoriatzarrak.

## Erakusketako ordutegia

Abenduaren 11 ezkeron irekita dago erakusketa, eta abenduaren 30era arte izango da ikusgai, nahiz eta abenduaren 24an eta 25ean itxita izango den. Astegunetan 17:00etatik 19:00etara ikusteko aukera izango da, goizetan ikastetxeetako haurren taldeak



Saioa Altzua, erakusketaren gaineko azalpenak ematen. IBARRAUNDI MUSEOA

izango direlako bisitan. Asteburuetan, berriz, 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara bitartean izango da zabalik erakusketa.

## Bi gunetan banatuta

*Baso guztien barnetik, uste guztien gainetik* erakusketak bi gune batzen dituela dio Saioa Alzuak, Ibarraundi museoako langileak, eta emaitzarekin pozik agertu direla adierazi du: "Erakusketak bi gune ditu: batetik, Ibarraundi museo kanpoan Mari Domingiren ortua eta Olenzeroren txondorra ditugu,

ikazkinen txabola, eta baita Tartalo ere. Museo barruan, berriz, izaki mitologiko hauek ditugu, eta bakoitza bere testuinguruan kokatzen da: Olenzero eta Mari Domingi, Galtzgorria, Basajaun, Behigorri, Mari, Lamina, Gaueko, Sorgina, Ireltxo, Jentilak eta Sugar. Ez dugu panel informatiborik jarri, ezta bestelako informaziorik ere. Sartu eta norberak ikustea da asmoa. Hala ere, erakusketaren ordutegiaren barruan beti egongo da norbait interesa duenari azalpenak emateko".

lehenengo solairuko geletan batuko gara. Txistorraz gain, patata-tortilla eta postrea ere emango dugu. Bukaeran, urtero bezala, 22 otarre zozketatuko ditugu bazkide guztien artean", adierazi du Jasone Orbegozok, Olazar Erretiratuen Elkartearen kideak.

2023a amaitzeko, bestalde, urteko azken ekintza abenduaren 24an izango dute; hain zuzen ere, gaztaina erreteko dituzte Fernando Eskoriatza plazan.

## Txistor-jana egiteaz gain, 22 otarre zozkatuko dituzte

Olazar Erretiratuen Elkartearen hitzordua datorren egunean izango da, abenduaren 21ean

### I.B. ESKORIATZA

Txistor-janean izena emateko azken egunak martitzena eta eguna izango dira, eta, horretarako, 11:00etatik 12:00etara bitartean jubilatuen bulegoan beharko da, edo juntakoei

abisu pasa. Hala, bertaratu nahi dutenek bazkide-txartela aurkeztu beharko dute, eta bost euroko fidantza jarri. "140 lagunendako izango da jana. Jubilatuen tabernan, gure joko-gelan, eta kultura etxeko

# LEINTZ GATZAGA | 21

## Bide berdearen zatia egokitze lanak bukatzen ari dira

Tellerixa eta Gure Ametsa artean galdutako bidea berreskuratu eta egoki jarriko dute

**Imanol Beloki Unamuno** GATZAGA  
400 eta 600 metro inguru artean daude Tellerixa (Arlaban mendatea) deitzen den bidegurutzetik Gure Ametsa jatetxeraino. Tarte hori ari dira egokitzen Excavaciones Arrasatekoak, eta egunotan amaitzea aurreikusten dute. Aldundiak babestutako lan horiekin, Vasco-Navarro bide berdeko zati hori egokitu gura dute, eta Leintz Gatzagako biztanleen mugikortasunaren eta Deba ibaiaren iturburu eta inguruan dagoen hariztia ezagutzera bertaratzen diren bisitarien onerako izango dela adierazi du Juanito Bengoak, Leintz Gatzagako Mendi zinegotziak.

### Proiektua berrartu eta egin

"Oker ez banago, 2016an hasi ginen zati hori egokitze asmoarekin. Beti lokaztuta zegoen, bidea sasiekin... Jendea errepidean ere aritzen zen; beraz,

arriskua ere bazegoen. Hala, proiektua egin zen, baina bere horretan geratu zen. Aurten, berriz hartu dugu gaia eta Aldundiko Egonkortasun Sailetik ari dira gestionatzen. Oso pozik gaude egiten ari direnarekin", adierazi du Juanito Bengoak, Gatzagako Mendi zinegotziak. Lanak amaitzean, Tellerixako bidegurutzeari errepidea zeharkatzeko seinaleekin Trafikokoak arduratuko direla adierazi du.

### Lehentasunezko lana

Gatz Bidearen erreperazioan egin den lanaz gain, honako hau ere lehentasunezko zela adierazi du, bestalde, Dorleta Elkorobarutiak, Gatzagako alkateak. "Gatzagako Udalaren erronketako bat Gatzagari sarbide edo irteerak ematea edo daudenak ondo jartzea da. Arabarekin eta bailararekin loturak ematea, ikuspuntu jasangarritik".



Gure Ametsa jatetxe alboan egokitu duten bidea lanengatik itxita. IMANOL BELOKI

## Kantuan baserriz baserri, egutegiak banatzeko asmoz

Azaroaren 11n, argazki-saioa egin zuten gatzagarrek; izan ere, eurak izango dira Udalar urterotako banatzen duen egutegiko 2024ko protagonistak. Hitzordu hartan, "herria herritarrek egiten dutela" adierazi zuten, eta aukeratutako erretratuak egutegia egiteko inprentara bidali. 150 ale aterako dituzte, guztira, eta abenduaren 24an banatuko

dituzte. Horren ardura herriko gaztetxoek, Olenzerok eta Mari Domingik izango dute.

"Olenzerok eta Mari Domingik haurrekin batera baserriz baserri kantuan eginaz entregatzen dituzte urtero egutegiak, kantuan egin ostean. Hala, aurten ere, 09:00etan autobusa izango dugu hilaren 24an. Banaketa egunean bertan sorpresa izaten da egutegiko argazkiak ikustea, eta, aurten esfortzua eginda, herritarren gustuko egutegia izatea espero dugu".



# Irteerak, parke naturalak ezagutzeko asmoz

Euskal Herriko parke naturalen "ezaugarri nabarmenak" ezagutzeko, irteerak egiteko aukera izango dute datorren urtean herritarrek, Arrola mendizale elkartearen eskutik. Hilean bat edo bi egingo dira: lehena, urtarrilaren 20an; azkena, abenduaren 14an

**Amaia Ramirez de Okariz**

**Kortabarria** ANTZUOLA

Herritar talde baten ekimenez, Euskal Herriko parke naturalak ezagutaraztea izango du datorren urtean asmo nagusienetako bat Arrola mendizale elkarteak, eta atzo egin zuten horren berri emateko aurkezpena. Parke natural horien "ezaugarri nabarmenak" ezagutzea dute xede, ohikoak ez diren ibilbide zirkularrak zein linealak eginda.

Hilean behin egingo dira irteerak, zapatuetan; abuztuan, ordea, ez da egingo, eta urrian eta azaroan, berriz, bi antolatuko dituzte. Ekainean, gainera, asteburu osoko irteera bat egiteko proposamena ere esku artean dute. Era horretan, antolatzaileen nahia da antzuolarrak eta bailarako beste herritar batzuk elkartzeko eta jakintza partekatzea, kirola ez ezik, natura eta kultura ere sustatu nahi baitituzte. "Helburu bakarra ez da ibiltzea, ariketa fisikoa egitea, baizik eta zapaltzen ditugun lurralde eta eremuen ezagutza jasotzea, inguruko soziologia eta kulturarekin bat egitea". Aldez aurretik proiektuarekiko konprometitzea ere eskatu dute, era berean.

Irteeretan parte hartzeko, ordea, antolatzaileek aholkatu dute



Aizkorri-Aratz parke naturalera eginiko irteera bat, 2019ko abenduan. ARROLA

## HERRITARRAK BATU ETA, KIROLA EZ EZIK, NATURA ETA KULTURA ERE SUSTATU NAHI DITUZTE

hobe dela mendian federatuta egotea. Horrez gain, jakinarazi dute autobusa izango dela garraio tresna, eta Arrola elkarteak zein parte hartzaileek ordainduko dutela, erdi bana. Irteerei dagokienez, ezaugarrien informazio

fitxa izango du bakoitzak, eta GR 289 izeneko Whatsappeko taldean eskuratu ahalko da, aurrez alta emanda.

### 2024ko federazioa

Datorren urterako mendian federatzeko aukera ere zabalik dago, Arrola elkartearen eskutik. Horretarako aurrez aurreko saioa atzo izan zen, Olaran kultur etxean, baina abenduaren 22ra arte posta elektronikoz federatu daiteke. Eskerak eta zalantzak [arrolamt@gmail.com](mailto:arrolamt@gmail.com) helbidera bidali behar dira.



The Clayton taldea. THE CLAYTON

## The Clayton eta Letagin taldeak bihar gaztetxean

Antzuolako Gazte Asanbladak antolatuta, The Clayton eta Letagin taldeen kontzertuak izango dira bihar, abenduak 16, gaztetxean, 22:00etan hasita. Aramaioarrak dira The Clayton taldeko kideak, eta *Over the red light* diskoa aurkeztu berri dute. Letagin, berriz, Oñatiko taldea da, eta *Zurrunbiloan* da haren azken lana; kontzertuak ematen dabil egindakoa aurkezteko.



Antzuolako triala. IMANOL SORIANO

## Motor erakusketa egingo du Irain motor klubak etzi

Irain motor klubak antolatuta, motor erakusketa egingo dute domekan, hilaren 17an, Herriko Plazan. 11:30etik 13:30era bitartean egingo dira motorrak ikusgai, eta, eguraldi txarra eginez gero, eskolako patioara lekualdatuko dira. Antolatzaileek herritarrei dei egin diete parte hartzera; etxean motorren bat edukiz gero, hara joateko aukera dago.

## 'Azken hostoa' ipuin musikatuak izango dira domekan

Maidar Alcelay ipuin kontalaria eta Igor Sala musikariaren eskutik, *Azken hostoa* ipuin musikatuak izango dira domekan, hilaren 17an, Torresoroan, 18:00etan. Gabonetako ipuinak izango dira, eta 2 eta 12 urte arteko haurrentzako ikuskizuna da, familientzako. Udalak antolatuta du eta sarrera doakoa izango da.

## Musika eta gimnasia emanaldiak egingo dira datorren astean

Askotariko erakustaldien astea izango da datorrena Antzuolan. Hilaren 18an, astelehena, musika eskolako ikasleen emanaldia izango da, lehendabizi, 18:30ean hasita, Torresoroa aretoan. Eguaztenean, berriz, hilaren 20an, Ariznoa gimnasia erritmikoko taldeko gimnastena izango da, udal pilotalekuan, 17:30ean hasita.

## Irteeren egutegia eta parke naturalak

Arrola mendizale elkartearen eskutik, 2024an hamahiru irteera egingo dira Euskal Herriko parke naturaletara. Urtarrilaren 20an izango da lehena eta abenduaren 14an azkena.

- **Urtarrilak 20** Urkiola (Araba eta Bizkaia).
- **Otsailak 24** Armañon (Bizkaia).

- **Martxoak 16** Izki (Araba).
- **Apirilak 20** Pagoeta (Gipuzkoa).
- **Maiatzak 11** Bardeak (Nafarroa).
- **Ekainak 15-16** Irati eta Basabürua (Zuberoa).
- **Uztailak 27** Aiako Harria (Gipuzkoa).
- **Irailak 21** Urbasa-Andia (Nafarroa).
- **Urriak 12** Valderejo (Araba).

- **Urriak 26** Aralar (Gipuzkoa eta Nafarroa).
- **Azaroak 9** Bertiz (Nafarroa).
- **Azaroak 23** Gorbeia (Araba eta Bizkaia).
- **Abenduak 14** Aratz-Aizkorri (Araba eta Gipuzkoa).

Ekainaren 15ean eta 16an asteburu osoko irteera egingo da. Abuztuan, berriz, ez da irteerarik egingo.

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

MUJIKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34



# SANTAMASAK 2023

## Gabonen atariko feria Arrasaten



Txerria, feria, dantzak eta beste asko

Santamasetako kartelen egileak

Artisauen azoka

Urteko hitzordu nagusia Uarkape pilotalekuan

Euskal Pentatloia Zaldibarren

IMANOL BELOKI

**ION** ZORUAK  
LEHIOAK  
ATEAK  
HORMA ARMAIRUAK  
leihoak

*Gora santamasak!*

ARRASATE  
Telleria kalea 4 \* Pab. 11 \*  
943 79 11 35  
www.ventaion.com  
arrasate@ventaion.com

**THERMOFLOC**  
Sistemas de aislamientos inteligentes



**PRESTATU  
NEGURAKO!**

Hotzari aurre egin,  
isolatu zure etxea.



**ZAPATUA 16**

**11:30-13:30** JOSTAILU TRUKE AZOKA, Txatxilipurdi elkartearen eskutik, Biteri plazan.

**10:30-14:00** eta **17:00-20:00** GABONETAKO ARTISAUTZA AZOKA Eskuaratean Artisau Kolektiboaren eskutik, Seber Altuben.

**11:00-12:00** PANDERO TAILERRA, Kulturolan. Herritar guztiei zabaldua.

**12:00** ARTZAIN TXAKUR ERAKUSTALDIA, Giate Gipuzkoako Artzain Txakur Elkartearekin lankidetzan eta Jose Ramon Garcia artzainak gidatuta, Kondekuan.

**13:00** Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz taldeen eskutik UMEEN DANTZA ERAKUSTALDIA Herriko Plazan. Ostein, Olentzeroren gutun banaketa Basajaunekin. Euria bada, Kulturoloko aterpean.

**18:00** eta **19:00** Udalatx, ura eta atxa DOKUMENTALAREN PROIEKZIOA, euskaraz, Amaia antzokian.

**DOMEKA 17**

**09:30** PADEL TXAPELKETATAKO FINALAK, Musakolako kiroldegian.

**10:30-14:00** GABONETAKO ARTISAUTZA AZOKA, Eskuaratean Artisau Kolektiboaren eskutik, Seber Altuben.

**11:00** EKO MAKILLAJE TAILERRA, Ekoudalatxen eskutik, Seber Altubeko

# SANTAMASETAKO EGITARAUA

karpan. Izen ematea: 688 85 92 28 telefonoan Whatsapp bidez.

**11:00** HAURREN SANTAMAS KROSA. **12:30** KUADRILLEN ARTEKO SANTAMAS KROSA.

**13:00** Arrasate Musikaleko orkestra sinfonikoaren eskutik AMETSAK BETETZEN KONTZERTUA, Uarkape pilotalekuan.

**EGUENA 21**

**18:00** DANTZA IKUSKIZUNA, Santamasetako dantzaldia herriko musikariekin, Biteri plazan.

**18:30** ETXAFUEGOEN JAURTIKETA.

**18:30** ARRASATEKO ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSAREN KALEJIRA, Biteri plazan hasita.

**19:00** BIBI TXERRIAREN AURKEZPENA, Herriko Plazan.

**19:00** KANTU JIRA, Portaloi elkartearen eskutik, Portaloitik hasita eta herriko kaleetan zehar. Parte-hartze irekia.

**19:30** BERTSO SAIOA, Amaia antzokian. Bertsolariak: Ane Zuazubiskar, Aitor Mendiluze, Miren Artetxe eta Oihana Bartra. Gai-jartzaileak: Olatz Zuazubiskar eta Maria Oses. AEDK antolatuta.

**22:00** ZEZENSUZKOA, Herriko Plazan.

**22:00** Arene 6 eta Larru Beltzak taldeen Kontzertuak, gaztetxean.

**EGUBAKOITZA 22**

**09:00** ETXAFUEGOEN JAURTIKETA.

**09:30** Udalaxpe txistulari taldearekin DIANA, herriko kaleetan zehar.

**10:00** BIBI TXERRIAREN AURKEZPENA, Portaloian.

**10:00** GANADU FERIA, Jose Maria Arizmendiarieta plazan.

**10:00** FRUTA, BARAZKI ETA HERRIKO SALTOKIEN AZOKA, Seber Altuben.

**10:00** Euskal Herriko Produktu Gastronomikoen Salmenta, Biteri plazan.

**10:00** TALOEN SALMENTA, Herriko Plazan.

**10:30** ARTISAU LANGINTZEN JARDUERA FERIA, Jokin Zaitegi plazan eta Biteri etorbidean.

**11:00** eta **13:00** ARTILE MOZKETA ERAKUSTALDIA Mikel Velascoren eskutik, Jose Maria Arizmendiarieta plazan.

**11:00-14:00** eta **18:00-20:00** JAIOTZEN ERAKUSTALDIA, San Frantzisko elizan. Urtarrilaren 6ra arte zabalik. Abenduaren 23tik aurrera

ordutegi honekin: 18:00-20:30. Abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean itxita. Antolatzailea: Izartsua Arrasateko Belenzaleen elkarte.

**11:00** Txalboka –Ttakun txalaparta elkarte eta herriko albokariak– KALEJIRA, Portaloitik hasita.



Ganadu feria. IMANOL BELOKI

**11:30** Herrian zehar, KALEJIRA: Arrostitz eta Lore Gazteak dantza taldeak, Arrasateko trikitilariak, Udalaxpe txistulari taldea eta Arrasateko gaiteroak.

**11:30** ITURENGO JOALDUNAK, herriko kaleetan zehar.

**11:30** INCANSABLES TXARANGA, herriko kaleetan zehar.

**11:30** ARRASATEKO TRIKITILARIEN SAIOA, Herriko Plazan.

**12:00** ZALDI-FERRATZE ERAKUSTALDIA Jose Maria Arizmendiarieta plazan.

**12:10** LORE GAZTEAK dantza taldearen saioa, Herriko Plazan.

**12:30** Zaldibar frontoian, HERRI KIROLAK: Euskal Pentatloio desafioa; Karmele Gisasola eta Xabier Zaldúa, Julen Kafiamares eta Uxue Ansoerregiren aurka. Probak: harri-jasotzea, aizkora, txingak, korrika eta giza proba.

**12:50** ARROSTAITZ dantza taldearen saioa, Herriko Plazan.

**13:30** TXALBOKA –Ttakun txalaparta elkarte eta herriko albokariak–, Herriko Plazan.

**13:45** TXERRI DANTZA HERRIKOIA, Herriko Plazan.

**14:45** HERRI BAZKARIA, Musakolako kiroldegian. Doako autobus zerbitzua egongo da, 14:00-14:45, Maalako biribilgunetik joateko, eta 17:30-19:00 Musakolatik itzultzeko. Bazkalostean, AZ Gaubelaken eskutik dantzaldia.

**ALDEDI**

Gora santamasak!

24 orduko sarrailagintza zerbitzua • 665 71 05 99

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84





lazko santamasetako artisau azoka. IMANOL BELOKI

**17:30** Profesionalen PILOTA PARTIDUAK, Uarkape pilotalekuan. Binakako txapelketa. Ezkurdia-Tolosa, Artola-Imazen aurka. Sarrerak: aurrez 20 euro; leihatilan 25 euro. Sarrerak salgai: Monte Taberna eta Buenuena Taberna.

**19:00** BATZEN DANTZA herrikoia, Arbolapetatik, Seber Altube eta Herriko Plazaraino.

**19:30** TXERRI DANTZA herrikoia, Herriko Plazan.

**19:30** LARRAIN DANTZA herrikoia, Arrasateko gaiteroen eta Garin banden musikarekin, Herriko Plazan.

**20:00** TXERRI ZOZKETA, Herriko Plazan.

**20:00 eta 23:00** DANTZALDIA Mugi Pandero taldearekin, Herriko Plazan.

**23:00** DJ MONDONGO, Gaztetxean.

## ZAPATUA 23

**10:30-14:00** eta **17:00-20:00** GABONETAKO ARTISAUTZA AZOKA, Eskuaratean Artisau Kolektiboaren eskutik, Seber Altuben.

**11:00** ESTANPAZIOA OIHALEAN TAILERRA, Joana Manzisidorren eskutik, Seber Altubeko karpan. Izen ematea egunean bertan. Txandakako saioak, 5 pertsonako txandak.

**17:30** Apaxi eta Euskal Mitologiaren magia IPUIN KONTAKETA Gorka Olazabalen eskutik, Kulturateko Areto Nagusian.

**17:30** ESTANPAZIOA HAINBAT OINARRITAN tailerra, Miau estudioaren eskutik, Seber Altubeko karpan. Izen ematea: 688 85 92 28, Whatsappez.

**19:30** TU TUM PLATZ IKUSKIZUNA, Jon Plazaolaren bakarriketa, Amaia antzokian.

## DOMEKA 24

**10:30-14:00** GABONETAKO ARTISAUTZA AZOKA Eskuaratean Artisau Kolektiboaren eskutik, Seber Altuben.

**11:20** Txoronpiak, Txoronpiok eta Basajaunek OLENTZEROREN GUTUNAK jasoko dituzte Munarren, Uribe auzoan, San Andresen, Aprendices plazan, Zigarrolan eta Santa Teresan. 13:30ean, Herriko Plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Kulturolan.

**18:00** OLENTZEROREN ETORRERA, Monterronen. Ibilbidea; Arbolapeta, Zurgin kantoia, Kanpatorpea, Gariba etorbidea, Biteri plaza, Portaloia eta Herriko Plaza.

**19:00** OLENTZEROREN AGURRA, Herriko Plazan.

**19:00** Goikobalu abesbatzaren GABONETAKO KANTALDIA, herriko kaleetan.

## DOMEKA 31

**13:00** ARRASATE MUSIKALEKO BANDAREN KONTZERTUA, Amaia antzokian.

**18:30** TXORBELA OTXOTEAREN EMANALDIA, herriko kaleetan zehar.

## Azokaren gaineakoak

Urteroko santamasetako hitzorduetako bat izaten da azoka, eta hauek dira bertan izango direnek jakin beharrekoak:

### Fruta eta barazki azoka

Hamabi barazki eta fruta postu egongo dira Seber Altuben, eta, horrez gain, zortzi talo postu izango dira Biterin, Garibain eta Herriko Plazan banatuta. Azokako postu gehienetan Debagoieneko baserritarrak egongo dira, baina, tartean, bailaratik kanpokoren bat ere izango da bertan. Aurtengo berrikuntza gisa, ez da aurreko urteetan jokatu den lehiaketarik egongo; baserriko produktuz osatutako postuak soilik erakusketarako izango dira. Hala ere, *Herriarren aipamena* izeneko postu bat egongo da, non herriarrek euren botoa eman ahal izango dioten Seber Altube plazan gehien gustatu zaien postuari; irabazleak oroigarri bat jasoko du 13:00etan, baina ez du lehiaketa kutsurik izango.

### Ganadu feria

100 abelburu pasatxo izango dira aurtengo ganadu ferian, eta, iaz bezala, aurten ere ez da hegaztirik egongo. Iaz Mikel Velascoren artile mozketak erakustaldiak izan zuen arrakasta ikusita, aurten ere bi erakustaldi egingo ditu: lehena 11:00etan eta bigarrena 13:00etan. Berezitasun gisa, 12:00etan ferratzaile bat ikusteko aukera izango da Jose Maria Arizmendiarieta plazan.

### 'Bibi' txerria

Aretxabaletako Zaloña Aurrekoa baserritik ekarriko dute, aurten ere, santamasetako txerria. Emea da, 2 urte ditu eta 200 kilo inguru pisatzen du *Bibi* izena duen abereak. Komisiñotik jakinarazi dute *Bibi* "bereko izena" dela eta haiek "izena mantentzea" erabaki dutela. Txerri "mantso-mantsoa" dela adierazi du Ibai Alberdik, txerriaren jabeak, eta animaliaaren aukeraketan eraginik izan ez duela azaldu du, Santamasetako Komisiñoa arduratzen baita horretaz.



# Gualbi

aholkularitza

Gora santamasak!

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOAKULARITZA

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!

Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95  
erana@aserana.com • www.gualbiasesores.com



**Jokin Bereziartua Lizarazu** ARRASATE Hainbat adar dituen jai berezia da abenduaren 22koa Arrasaten. Eta zeinu bereizgarrien artean, kartela da ezinbestekoetako bat. Antton Olariaga (Usurbil, 1946) ilustratzaile ezagunari lotuta egon da kartela 1978tik 2008ra, eta 2008a ezkerro, lehiaketa irabazi ostean, Iban Galanek (Arrasate, 1985) hartu du lekukoa gaur egunera arte. Belaunaldi ezberdinak ordezkatzen dituen bi artistekin egon da GOIENA, horren bereziak diren kartelen atzetik zer dagoen jakiteko.

#### Antton Olariagaren formula

Komisiñoak 1976an antolatu zuen jai lehen aldiz eta Olariagaren lehen kartela 1978koa da: "Urte asko dira eta ez dut zehatz gogoratzen, baina Bilbon nengoen lanean garai hartan eta Komisiñoak etorri zitzaizkidan; Juan Bautista Agirre, Agustin Ibarluzea *Txispas* eta konpainia izango zirela suposatzen dut. Orduan nire erreferentzia Donostiako San Tomas jaia zen; hori bai, gogoan dut harritu egin ninduela Arrasaten hilaren 22an ospatzea jaia, egun bat ge-

# Adimen herrikoia kartelak sortzeko

Santamasetako kartelaren azken bi egileekin egon da GOIENA: 1978tik 2008ra egin zituen Antton Olariagarekin eta 2009a ezkerro lekukoa hartu dion Iban Galan 'Desegin' artistarekin

roago. Baiezkoa eman nien eta, egia esan, informazio askorik gabe egin nuen lehen kartela".

Gogoan du Olariagak kartelari "nortasun berezia" ematearen aldeko apustua "hurrengo urtean-edo" etorri zela: "Pentsatu nuen elementu bati ematea protagonismo nagusia. Barazki bat izatea oso zaila zen; arbigara, adibidez [arrasatearrentzat gutizia den barazkia]. Horregatik aukeratu nuen txerria. *Itun bat* proposatu nien Komisiñoakoei: txerriari ematea protagonismoa, baina beti sartzea Portaloia eta



**ANTTON OLARIAGA**  
ILUSTRATZAILE USURBILDARRA

"Kartelok egiten gozatu nuena ez dago ordaintzerik. Harreman oso berezia egin nuen Komisiñoako kide batzuekin; jende oso ona ezagutu nuen".



**IBAN GALAN 'DESEGIN'**  
ILUSTRATZAILE ARRASATEARRA

"Aurten denok gara kartelaren parte, jaiaren parte garen moduan. Izan ere, herritar barik jairik ez; eta hutsune hori ezin du adimen artifizialak bete".

Udalatx. Esan nien, gainera, kartelarekin besteak dibertitu daitezene ni ere dibertitu egin behar nintzela. Horregatik, askatasuna eskatu nien txerria nola aurkeztu nik erabakitzeke, eta hala izan zen beti: urteko gertaera batekin lotu izan nuen txerria. Urte olinpikoa bazen, txerri olinpikoa presente; Marino Lejarreta ziklista erretiratu bazen urte hartan, txerria bizikleta gainean...".

Urtez urte txerria egoera berri baten ateratzeak "zentzu transformista bat" eman dio kartelari, Olariagaren arabera: "Ez nuen jakiten arrasatearrek ze ondorio aterako zuten karteletik, baina beti izan dut argi jai berezia izatera ondo pasatzeko deia egin behar zuela irudiak". Baina 30 urte luzez santamasen irudia egin ostean, heldu zen lekukoa uzteko ordua: "Asmatu genuen formula betierekoa izan zitekeen, baina uste dut herriko artista bati pasatu behar niola lekukoa. Ez zen nekerik edo beste arrazoirik izan tartean; errelebo naturala izan zen. Ez dakit ekarpenik egin nion jaiari, baina kartelok egiten disfrutatu nuen



## EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIEK GABE

*Unai, Arbe eta Peixoto Arrasatera!*

## IRATI • TAUPA • BASATI • ILUNTZ


## JAI ZALE • DAT • OSORIK

## URTARRILAREN 13AN DENOK BILBORA!






Txerria Portaloia *jaten*, 1979koan. OLARIAGA



Txerri-jolasa 2002ko kartelean. OLARIAGA



Galanen lehen kartela, 2009koa. DESEGIN



Aurtengoa, herritarrei eskainia. DESEGIN

herritar guztiok osatzen dugula jaia, eta horregatik ez dago txerria eginda; arrasatear bakoitzak egitaraua etxean jasotzen duenean, osatu dezala txerria. Hau da, denok gara kartelaren parte, jaiaren parte garen moduan. Herritar barik ez litzateke jairik egongo, eta hutsune hori ezin du adimen artifizialak bete".

**Olariagaren "legatuari" eutsi**

Umetatik miretsi izan duela aintzat hartuta, "natural" irten zaio Galani Olariagararen "legatuari" eustea; betiere, haren ukitua emanda: "Olariagaren kartelak beti ziren zuri-beltzean eta, txerriaz gain, beti agertzen ziren Portaloia eta Udalatx. Hori mantendu nahi izan dut, baina baita nire ukitua eman ere. Olariaga txikitatik miretsi izan dut eta banekien nolako garrantzia zuen haren kartelak santamasetarako; niretzat Arrasateko jairik ederrenak eta sortzaileenak dira, eta ohorea da ekarpen hori egitea. Eskerrak eman nahi dizkiet Komisiñoari, kultura taldeei eta Udalari; ea nire lana gustuko duzuen, eta gozatu santamas jaietz!".

na ez dago ordaintzerik. Komisiñoako lagun batzuekin harreman oso berezia egin nuen; kartela egiteko erraztasunez gain, jende oso ona ezagutu nuen".

Bestalde, aldagai "oso inportantea" zen kartelaren tamaina: "Ez zen txantxetakoa, metro bat zuen altueran eta 60 zentimetro zabaleran. Ordenagailurik gabe, kartel osoa eskuz betetzen nuen; hau da, ideia pentsatzeaz aparte, kartela egiteak berak denbora askotxo suposatzen zidan... Horregatik, orain, liburu baten-edo argitaratzeko txikituz

gero asko galtzen dute, eta pena da. Garai hartan, baina, helburua zen kalean edota komertzioetan jartzea, 1/1 eskalan".

**Iban Galanen eguneraketa**

Olariagak aipatzen duen artista horietako bat da Iban Galan *Desegin*. 2009an estreinatu zen eta ordutik urtero eman dio buelta bat kartelari; betiere, beste diziplina batzuetako sortzaileekin harremanetan. 2023ko kartelera begira, adimen artifizialari kritika bat egitea izan da Galanen helburuetako bat:

"Ane Zuazubiskarren bertsoari *Adimen artifizialak ezin dau hau sortu* esaldia gehitu diogu, bereziki kultura sorkuntzan eremu asko jaten ari da-eta adimen artifiziala. Batetik, eskuz egiten den hori goraiatu nahi izan dut kartelean, ezin dugu-eta ahaztu santamasetan garrantzi handia ematen zaiola artisautzari. Eta eskuz egindako ilustrazioak ere aitortzeko, CMYK koloreak, pigmentu-koloreak edo eskuz egindakoak diren koloreak, erabili ditut *STM* hizkietarako". Zuazubiskarrek

honako bertso hau idatzi du aurtun: *Folklore ikutuko talo ta sagardau/nahiz tartien-tartien edozeini gustau.../ Ez, ez da museo bat ferixa bat da hau/ herri usaina dauko eta bizirik dau!*

Txerria ere badago kartelean, baina herritar bakoitzak margotu beharra dauka, zenbakiak lotuz: "Aurtun herritarrei eman diet protagonismoa, jendeari. Aurtengo kartelean ez dago barazkirik ez beste elementurik; aurtun jendea ageri da txerriaren bueltan dantzan. Kartelarekin azpimarratu nahi nuen

**CITROËN C3**  
2023ko MUNDUKO  
HIRI AUTORIK ONENA



**KIA SPORTAGE**  
2023ko URTEKO AUTOA



**SABAI ALTXAGARRIA,  
HEMEN MUNTATU  
DEZAKEZU!**

2023an EUSKAL HERRIKO  
CAMPER TECNOLOGIES  
SAREAREN GUNE OFIZIALA  
IZATEA LORTU DUGU

- ✔ Citroën Berlingo
- ✔ Peugeot Rifter
- ✔ Opel Combo
- ✔ Toyota City Verso

eta **2024an**  
MAPFRE  
ASEGURU-AGENTE  
ESKLUSIBOA  
CHAPIMEN

2024



Santamas jai zoriontsuak  
eta urte berri on!

  
**TALLERES CHAPIME**

  
**TXAPIME AUTOAK**

SAN ANDRES AUZOA 5, ARRASATE





lazgo santamasetako artisauen azokan, forja erakustaldia. GOIENA

# Artisauek zelan lan egiten duten ikustera

Santamas egunean 35 artisau postu jarriko dituzte Jokin Zaitegin eta Biteri etorbidean. "Artisautza tradizionala sustatzea da helburua eta artisauek zelan lan egiten duten erakusteari balio handia ematen diogu", adierazi du Nekane Atxak

## Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Santamas egunean, ohitura den moduan, herritarrek artisauek ofizio zaharretan ikusi ahal izango dituzte lanean. Hori da, hain zuzen, Santamas Komisiño-ko kide Nekane Atxak nabarmendu duena. "Helburu nagusia artisautza tradizionala sustatzea da, eta uste dugu oso polita dela azokan herritarrei artisauek lan zelan egiten duten erakustea, azokari balio erantsia ematen dio horrek. Hain zuzen, artisauei euren ere hori nabarmentzen diegu".

Hala, abenduaren 22ko goizean artisauen 35 postu jarriko dituzte Jokin Zaitegi plazan eta Biteri etorbidean, eta tartean egongo dira zeramikiariak, eskupilota egileak, tailugileak, otarreak egiten dituztenak, makilekin lan egiten dutenak... Eta Arrasateko taillaginak ere bertan izango dira; berezitasun bezala, tailugile bat izango da, harria lantzen. "Harri handiek zelan lan egiten duen erakusten ibiliko da. Aspaldi Arrasaten egondakoa dela esan digu, baina hamarkada pasatxoan ez da egon Arrasaten".

## Artisautza eraldatzen

Urteekin artisautza bera ere eraldatzen doa, eta aldaketa horretara egokitu egin behar du dela nabarmendu du Atxak. "Artisautza tradizionalarekin batera, gaur egun bestelako artisautza egiten dute askok, eta produktu horiek ere lekua dute azokan. Esaterako, bitxigintzak lekua izango du aurten ere".

## Eskuarteanekeen azoka

Bestalde, Eskuartearen artisau taldeak Gabonetako Azoka egingo du abenduaren 16an, 17an, 23an eta 24an, Seber Altube plazan -16an eta 23an 10:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta 17 eta 24an, goizean barrik-. Guztira, 12-14 postuk jantziko dute azoka eta denetarikoa artisau-artikuluak egongo dira salgai. Gainera, artisau taldeko kideek hiru ikastaro prestatu dituzte euren lana gertuagotik ezagutzeko, eta zabalik dago izen-ematea: 688 85 92 28. Ikastaroak dira Eko makillajearen gainekoa (15 plaza), estanzioa oihalean (5 plaza) eta estanzioa hainbat oinarritan (10 plaza).

**carrascaladapt**  
sukaldeak bainuak armairuak

EGUBERRI ON!



Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate • Tel.: 943 79 01 82 • carrascaladapt@gmail.com

Hasi gaur zure tratamendua, eta ez ordaindu otsailera arte\*

**VITALDENT**

ARRASATE

Otallora lizentziaduna kalea 1

943 06 03 22

\* Sabadell Consumer Finance S.A.U.-k onartu behar du finantzaketa. Solik 2023/12/02tik 2023/12/31ra bitartean eskatu eta onartutako finantzakentzat; 2024/02/01etik aurrera formalizatu eta hasiko dira ordaintzen. Osasun-erregistroa: CS10715. Eskura ordaindutako tratamenduaren adibidea (psp): 3.000 €. 49 hilabeteko epea; lehen hilean kapital eta interesaren erabateko gabezia. Gabezia sortutako interesak amortizatzen diren kapitalari gehituko zaizkio. Hileko 74,38 €-ko 48 kuota. %7,45eko ITN, %8,77ko UTB. %2ko inekiera-komisioa: 60 €, kuotetan finantzatua. Kredituaren guztizko kostua: 570,24 €. Interesen guztizko zenbatekoa: 510,24 €. Kredituaren guztizko zenbatekoa: 3.060 €. Epeakako guztizko prezioa eta zordundutako guztizko zenbatekoa: 3.570,24 €. Kuotak kalkulatzeko, amortizazio sistema frantsesa, aldizkako kuotak eta konstanteak erabili dira. RPS 141-19

Gabon hauetan,  
oparirik onena  
**ZURE IRRBARREA**

Ondo ibili  
santamasetan!



publicitatia



# Eskuz binakoa kantxan; giro aparta harmailetan

Azken urteotan gertatu den moduan, Uarkapeko harmailak goraino beteko dira santamasetako pilota jaialdia ikusteko. Eskuz Binakako Txapelketa barruan, Ezkurdiak eta Tolosak Artolaren eta Imazen kontra jokatuko dute (17:30, Uarkape)

**Xabier Urtzelai Atxa** ARRASATE

Santamasetako pilota jaialdirako Uarkapeko harmailak bete egingo dira aurten ere –aste barruan Monte eta Buena tabernetako sarrerak agortuta zeuden jada–. Eta, azken urteotan moduan, kantxan bai, baina harmailetan ere ikuskizuna egongo da, jendea jai giroan murgilduta joango da-eta frontoira.

Jaialdiko partidu nagusia Eskuz Binako Txapelketakoa izango da: hain zuzen ere Ezkurdiak eta Tolosak Artolaren eta Imazen kontra jokatuko dute. Eta atariko norgehiagokan, berriz, Bakaikoak eta



Uarkapeko harmailak, iazko pilota jaialdian. GOIENA

Elizegik Senarren eta Salaverri II.aren kontra neurtuko dituzte indarrak.

**Asteburuko partiduen zain**

Ikusteko dago bi bikote horiek zelan iritsiko diren Arrasateko hitzordura, Artolak eta Imazek gaur, egubakoitza, partidua dute-eta Oiartzunen (22:15, ETB1) Jakaren eta Mariezkurrenaren kontra. Eta eguaztenean Urretxun Peña II.aren eta Albisuren kontra 22-10 galdu zuten Ezkurdiak eta Tolosak, berriz, Barzelonan jokatuko dute zapatuan, Altuna III.aren eta Martijaren kontra.

Hain zuzen, Ezkurdiak eta Tolosak ezuste ederra eman zuten txapelketa hastearekin batera, lehen jardunaldian multzoko faborito ziren Peio Etxeberriari eta Jose Javier Zabaletari ondo irabazi zieten eta (22-11). Baina hasiera on horri ezin izan diote jarraipenik eman: hurrengo bi jardunaldiak galdu egin dituzte.

Edozelan ere, Artola eta Imaz ere ez daude etxafuegoak botatzeko: azken jardunaldian 22-17 galdu zuten Elordiren eta Rezustaren kontra.

## Pentatloi erakustaldia Zaldibarren

Zaldibarko frontoiak herri kirolen erakustaldia hartuko du santamas egunean. 12:30ean hasita, Euskal Pentatloi desafioa egingo dute eta honako lau lagun hauek hartuko dute esku: Karmele Gisasola eta Xabier Zaldua izango dira, batetik, eta Julen Kañameres eta Uxue Ansoerregi, bestetik. Hala, bi bikote horiek honako probetan neurtuko dituzte indarrak: harrijasotzea, aizkora, txingak, korrika eta giza proba.

Euskal Pentatloia herri kirol proba konbinatua da, bost ariketaz osatzen dena. 80ko hamarkadan hainbat edizio jokatu zituzten, eta 2018an ekin zioten berriz txapelketari. 2021a ezkerro jokatzen dute gizonezkoek eta emakumezkoek.



Abenduak 15 ostirala

Abenduak 16 larunbata

# GUZTIAREN BEZa

## oparituko dizugu

90 €-tik gorako erosketetan.



ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,  
Tel.: 943 71 10 30



EROSKI App-a lehen aldiz deskargatzen baduzu



**10€\*\*** opari

Abenduaren 31ra arte baino ez!



\* EROSKI klubeko bazkide bazara, EROSKI Hipermerkatuetan sustapenera abokatuak ataletan erositako produktuen BEZaren zenbatekoa sartuko dizugu EROSKI klub bartelean. EROSKI klub bartelean gehienez 250 € sartuko dira. Sustapenetik kanpo daude bitxigintza, testu-liburuak, esperientzia-paketeak, telefono-kargatzeak, E-pay aurreordainketa-bartelak, errebelatu digitala, entrega- eta instalazio-zerbitzuak eta zigilu bidezko fidelizazio-sustapenetako produktuak. Kontsultatu gainerako baldintzak zure chiko dendan. Baita [supermercado.eroski.eus](http://supermercado.eroski.eus) webgunean ere.

\*\*2023/12/31ren aurretik lehen aldiz aplikazioa deskargatzen eta beren burua identifikatzen duten lehen 50.000 bezeroei aplikatuko zale. Erosketarako 10x50€-ko bartela aplikazioan agertuko da, aplikazioa deskargatu eta gehienez 7 egunera.



# Gabon hauetan Oparitu esperientziak

Oparitu edertasuna eta ongizatea

## JONG BAO MASAJE ERLAXAGARRIA

5 sentimenez  
gozatuz

55€

## TRATAMENDU BEGANOA SKINIDENT

Edertasunaz  
gozatzea ingurunea  
errespetatuz

120€

## GORPUTZ PEELINGA: C BITAMINA

Esfoliazioa eta  
gorputzeko  
masajea

68€

## OXILIANCE AURPEGIKOA

Eman azalari  
distira eta bizita-  
suna

65€

## MIMA ZAITEZ

Gorputz osoko  
masaje lasaigarria  
eta aurpegiko  
higienea

98€

## LIRAIN ONGIZATE MASAJEA

Gorputzeko  
masaje erlaxagarri  
berezia

90€





# Magiaren lilurak hartuko du Elgeta, beste behin

Aste bukaerako kultura agenda beteta dator, baina bi hitzordu nagusi nabarmentzen dira: bi egunez lau ekitaldi hartuko dituen 'Euskal magoak on stage' magia asteburua eta Polito Ibañez kantautore kubatarraren emanaldia

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Udalak deituta, lau mago izango dira aste bukaera honetan Elgetan: Marsel, Tor, Txoborro eta Niala. *Euskal magoak on stage* jaialdirako etorriko dira. "Magiarako zaletasun handia dagoela Elgetan. Ondo dakigu hori, eta gogotsu datoz lau magoak aurtengo jaialdira", azaldu du antolatzaile lanetan diharduen Dramagiako Inma Verdosok.

Lau ekitaldik osatuko dute jaialdia. Lehenengo ikuskizuna zapatuan izango da, 18:00etan, Espaloian. Marsel magoak egingo du. "Ibilbide oso luzeko euskal magoa da. Elgetan aspaldi ezagutzen duzue. Umoretik jotzen du asko, eta trikimailu eta hitz joko asko egingo ditu zapatuan", aurreratu du Verdosok.

Domeka goizean egingo diren umeendako magia tailerrak ere Marsel magoak gidatuko ditu. "Bi adin tartetan antolatuta ditugu tailerrak, magia kontzeptu oso berezia delako azaltzeko. Marsel magoaren eskutik trikimailu batzuk ikasteko aukera izango dute umeek, baina ikasiko dute magia, batez ere, emozioen transmisioa dela". Ordubeteko bi tailer izango dira, 10:00etan eta 11:15ean, udaletxean. Izen-ematea zabalik egon da atzora arte.



Tor, domekako magia galan egitekoa duen trikimailuetako bat egiten. DRAMAGIA

## SORPRESA MAGIKOAK IRAGARRI DITUZTE ANTOLATZAILEEK; BEREZIKI, DOMEKAKO MAGIA GALAN

**Magia-poteoa eta gala**

Magoak tabernaz taberna ere ibiliko dira. Domeka eguerdian Lola, Haizea, Bolatoki eta Maialde tabernak bisitatuko dituzte, herritarren aurrean askotariko trikimailuak egiteko. "Torrek

eta Txoborrok egingo dute magia-poteoa. Ezin da gertuagokoa den magiarik egin. Jendea zur eta lur gelditzen da magoan trikimailuekin".

Domekako magia galak itxiko du jaialdia. Niala, Tor eta Txoborro magoak arituko dira. "Niala magoak sekulako ibilbidea egin du bizpahiru urtean. Proiekzio handiko euskal magoa da. Tor eta Txoborrori buruz zer esan? Azken nobedadeekin helduko dira Elgetara".

Saio guztietarako sarrerak doan izango dira.

## Galdetegi bat jaso dute etxean 65 urtetik gorako elgetarrek

Udalak bidali du; zahartzaro osasuntsua sustatuko duen zaintza sare komunitario bat eratzeke lehen urratsa da

**L.Z.L. ELGETA**

Hirugarren adineko elgetarrei zuzendutako ekimen berria jarri du martxan Elgetako Udalak, Xalbadorpe erretiratuen elkar-tearekin elkarlanean. Zahartzaro osasuntsu baten aldeko apustua dela azaldu dute: "Helburua da denon artean garatutako oinarriko zaintza sare komunitario bat eratzea; herriko beharrei eta premiei erantzun go dieten antolaketa komunitarioa eta zerbitzuak eskaintzea".

Lehenengo urratsa 65 urtetik gorako herritarren iritziak eta

kezkek ezagutzea da, eta galdetegi jaso dute etxeko postontzian aurreko egunotan. Galdetegiaren erantzunak udaletxean aurkeztu beharko dira. Udaletik zein Xalbadorpetik parte hartzera animatu dituzte elgetarrak. "Zuen iritzia garrantzitsua da", esan dute.

Urtarrilerako hitzaldi bat ere iragarri dute bultzatzaileek; asmoa da ekimenean sakontzea. "Hainbat adituk adinekoen zaintzaren gaineko gaiak jorratzeaz gain, herritarren iritziak eta ideiak elkar trukatu dira".



ONINTZA EGANA.

## Eskuz egindako apaingarriak

Herriko umeek auzolanean eskuz egindako apaingarriekin emango diote Gabon giroa herriari. Bi tailer egin dituzte asteon, Maala guraso elkarteak eta Herri Eskolak elkarlanean antolatuta. Olentzero eta Mari Domingi berriak ere egin dituzte. Gaur arratsaldean banatuko dituzte apaingarriak herriko tabernetan eta komertzioetan.

## OHARRAK

### Erretiratuen txistorra-jana, gaur

Xalbadorpe elkarteak antolatuta, txistor-jana eta Gabonetako saskien zozketa, 17:30ean, Ozkarbin.

### Musika ikasleen Gabonetako emanaldia gaur

Guztira, 29 ikasle arituko dira, 19:00etan hasita, Espaloian.

### Erretiratuendako podologoa astelehenean

Txanda hartzeko, deitu 669 99 81 65 zenbakira (Maite Elkoro).

### 'Liburu bat opari' ekimena liburutegian

Gomendagarria den liburu bat aukeratu, argazkia atera eta liburutegira bidali behar da martitzenerako. Sariak egongo dira.

## Polito Ibañez kantautorea ere Elgetan

Kubako kantautore ezagunak bermut kontzertua egingo du domekan, 12:45ean, Ozkarbin. Emanaldia egina du egun itxita dagoen gaztetxean, baina 20 urtetik gora dira, eta sonoritatea galdu ez duen eta esateko asko daukan kantari heldu bat dator, bi hamarkadaren ostean. Bakarka arituko da Goibekok eta Ozkarbik antolatutako saioan. Sarrera 5 euro da.



Polito Ibañez. P.I.



# Plaza eta Barrenkalea faseka berri nahi dituzte

2024rako aurrekontua 33.120.743 eurokoa izatea proposatu du EH Bilduk, iazkoa baino %9,2 handiagoa; agintaldiko "mugarri" izango dira San Martin plaza eta Barrenkalea berritzea. Oposizioak jaso du proposamena, eta urtarrilean eztabaidatuko da udalbatzan

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA  
EH Bilduren Udal Gobernuak 2024rako aurrekontu proposamena aurkeztu du asteon, "herria biziberritu eta bergararren bizi baldintzak hobetzen" jarraitzeko. Horretarako, 33.120.743 euroko aurrekontua proposatu dute, iazkoa baino %9,2 handiagoa.

**Oposizioak badu proposamena**  
Udal Gobernuaren arabera, aurreko urteetako inbertsio gaitasuna gainditu egingo da aurten, ia 6 milioi euroko inbertsiora iritsita: "Aurreko agintaldian Udalaren zorpetze maila jaitsi izanak horretarako baldintzak erraztu eta proiektu estrategikoetan sartzeko aukera eman digu". Hori dela eta, aurrekontua %9,2 igo nahi dute, eta, bestalde, Diputaziotik iritsiko den transferentzia %6 handituko da.

Gobernu taldeak dio 2023a pandemiaren ondorio ekonomiko ahazteko urtea izan dela, eta horrek "modu nabarmenean"



San Martin plaza eta Barrenkalea berritzeko proiektuak, "agintaldiko mugarrak". J.B.L.

lagundu duela Udalaren egoera ekonomikoa egonkortzen; proposamena aurkeztu diote oposizioari, euren proposamenak aztertzeke helburuarekin. Dena ondo bidean, urtarrileko osoko bilkuran onartzea espero dute.

## Inbertsio aipagarrienak

Aurreikusitako inbertsioei dagokienez, Arrizuriaga jauregiko lanak bukatu eta herritarrei irekitzeko 750.000 euroko inbertsioa gauzatuko du Udalak datorren urtean. Horrez gain, udal

pilotalekuko teilatua eta paretak konpontzeko 350.000 euro daude aurreikusita; bidegorria handitzeko, 400.000 euro; Agorrosin kiroldegiko gimnasioa berritzeko, 200.000 euro; eta Ipintza futbol zelaiko berdegunea berritzeko, 250.000 euro.

Gainera, agintaldi honetarako "mugarri" izango diren bi proiektu gauzatzen hasiko da Udala. Izan ere, herriko erdigunea zeharkatzen duen Barrenkalea eta San Martin Agirre plaza berritzeko 500.000 euroko diru partida bideratuko du 2024rako, baina proiektua ez da urte barrean gauzatuko. Martokoa kalean ere antzeko planteamendurekin berriro urbanizatzeko lanak garatuko ditu Udalak datozen urteetan, eta, kasu horretan ere, 500.000 euroko diru partida gordeko du Udalak 2024rako. Bi proiektu estrategiko horietarako behar ekonomikoak 2025eko eta 2026ko aurrekontuekin osatzeko proposamen ekonomikoa lantzen dihardu Udal Gobernuak eta 2024. urte hasieran aurkeztuko dute. Horren harira, Gorka Artola alkatearen arabera, "oparoa" izango da 2024a: "Bergararren bizimodu hobetzen jarraitu nahi dugu, gure herriaren etorkizunean pentsatuz. 2024a urte oparoa izango da bergararrentzat, urte luzeetako eskaera batzuei erantzungo diegulako eta beste hainbat proiektu berritzaile martxan jarriko ditugulako".

**Berdintasun arloan, %30 gora**  
Auzoetan ere inbertsioak egingo dira. Osintxu biziberritzeko planarekin jarraitzeko 185.000 euro bideratuko dira 2024an. Baserri bideen konponketa eta egokitzapenak egiteko 380.000 euro izango dira; azaldu dutenez, azken hamarkadetako partida handiena. Horrez gain, Udalarekin eraikinetan energia berriztagarriak ezartzeko eta udal ur-sarea hedatzeko asmoz 700.000 euro bideratuko dira. Eta Oxirondo azokan bukatu berri diren lanen barruan, eraikinen ezker alde txukuntzeko beste 80.000 euro bideratuko dira.

Eta, inbertsio zehatzez harago, berdintasun arloan ia %30 igoiko da partida; Arrizuriagan egokitu den Emakumeen Txorako parte-hartze prozesu bat jarriko da martxan eta lehen aldiz indarkeria matxista jasaten duten emakumeendako diru laguntzak eskainiko dira.

Bestalde, Adineko Pertsonen Kontseiluaren ekarpenei erantzuteko 8.000 euroko partida sortu dute; eta, gainera, etxeko zerbitzua eskaintzeko 1.100.000 euro erabilgarri izatea proposatu dute.

**INBERTSIO GAITASUNA HAZI EGINGO DELA AURREIKUSTEN DUTE, IA 6 MILIOI EURORA HELTZERAINO**

## Omenaldia egingo diete odol gehien eman duten herritarrei

Ekitaldia bihar izango da, abenduak 16, San Joxepeko Arin eguneko zentroan; 29 emaille omenduko dituzte

**J.B.L. BERGARA**

Urteroko ohiturari utsiz, Bergarako Odol Emailleen Elkarteak odol gehien ematen duten herritarrei omenduko ditu. Aurten, guztira, 29 herritarri egingo diete aitortza.

Honako hauek dira aurtengo datu esanguratsuenak, elkartetik helarazi dutenez: 19 herritar dira 25 odol-emate baino gehiago egin dituztenak; hiru emakumek 40 donaziotik gora egin dituzte; bost gizonezko izan dira 50etik gora aldiz eman dutenak; eta, azkenik, odola 60 eta 75



Emaille bati oroigarria ematen, iaz. GOIENA

aldiz eman duten emakume eta gizon bana ere badaude.

## Omendu eta eskertu

Esandako moduan, 29 herritar omendzeko asmoa dute –iaz, azaroan egindako ekitaldian, 12 lagun izan ziren–; ekitaldi xumea bihar izango da, hilak 16, San Joxepe elkarte Arin eguneko zentroan, 13:00etan.

Era berean, Odol Emailleen Elkarteak eskerrak eman nahi izan dizkio Udalari, bereziki San Joxepe elkarte Arin eguneko zentroa odol-ateratzeak egiteko egokitzen uzteagatik; horrez gain, San Joxepeko zuzendaritzari ere esker ona adierazi diote. Bide batez, dei egin diete herritarrei odola ematera; edozein argibideetarako honako hau da telefono zenbakia: 747 42 99 20 (Dulce).

## OHARRAK

### Ehunduko bulegoaren aholkularitza zerbitzua

Hilaren 19an, SOS Arrazakeriaren eskutik, etorkinei begirako aholkularitza juridikoa eskainiko da, 16:00etatik 20:00etara. Abenduaren 20an, Udalak antolatuta, zaintzako eta etxeko langileendako aholkularitza egongo da, 16:00etatik 19:00etara. Harremanetarako: 943 25 09 49 edo [ehundu@ehundu.eus](mailto:ehundu@ehundu.eus).

### Alvaro Beñaranen hitzaldia Angiozarren

Arbiaska guraso elkarteak hitzaldia antolatu du hilaren 19rako, Angiozarko Arbiaska aretoan (18:00). Izenburua da *Helduen eragina haurren garapenean, harremanen garrantzia*. Harremanetarako: [angiozargurasozuzendaritza@gmail.com](mailto:angiozargurasozuzendaritza@gmail.com).

### Txapa irratien jaia kartzela zaharreen

Herriko Harria eta Amustei taldeek joko dute Txapa irratia librearen alde; bihar, abenduak 16, 22:00etan hasita. Sarreraren prezioa da zortzi euro.

### Hatortxu Rock jaialdira joateko autobusa

Abenduaren 16an Atarrabian egingo den jaialdirako autobusa antolatu dute. 14:00etan irtengo da Bergaratik eta itzulera 06:30erako dago aurreikusita. Izena eman behar da Arranon.



Bergarako zenbait musikari martitzenean, *Loratzen* diskoa eskuan dutela. JOKIN BEREZIARTUA

# Loratu da Bergarako 23 musika talderen diskoa

'Loratzen' diskoa grabatu dute herriko 23 taldek eta bertan daude jasota bakoitzaren abesti bana; Labegarrietako Auryn estudioan grabatu dute eta Amaia Santamariak egin du diseinua. Hilaren 29an egingo dute aurkezpen kontzertua Seminarixoan

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

Bergarako musika eszenari balioa eman eta hura ezagutzera emateko asmoz, Bergarako 23 taldek *Loratzen* diskoa grabatu dute azken hilabeteetan. Udalen laguntzarekin. Asteon egindako aurkezpenean Bergarako Udaleko Herritarrak arloko arduradun-zinegotzi Maite Usabiagak adierazi zuen herriak musikalki duen aberastasuna islatu nahi izan dutela: "Daturik esanguratsuen da 23 taldek parte hartu dutela diskoan, bakoitzak abesti batekin. Gainera, diskoa zabala da eta askotariko estiloak jasotzen ditu. Hainbat belaunalditako taldeak daude, eta, alde horretatik, disko oso aberatsa da".

Emaitzaren balorazio positiboa egin zuen, eta azpimarratu zuen

Bergarak duen musika maila izatea "oso harro" egoteko modukoa dela.

## Musikarien esker ona

Diskoan 23 talderen kantu bana dago jasota, eta musikariak oso eskertuta agertu ziren lanarekin. Azkaiter Peloxeko Unai Azkarateren hitzetan, proiektu "zabala eta handia" da *Loratzen*: "Ez da disko baten aurkezpena soilik. Herriko musikariendako elkargune bat da, eta musikariendako da sentitzea babes batzuk, talde bakoitzak, gure proiektu eta helburuekin aurrera jarraitzeko".

Ez da lehen aldiz halako bilduma bat egiten dela Bergaran, Azkaratek gogoan duenez: "Akordatzen naiz *Astindu Bergarako fanzine* moduan atera genuela

disko bikoitz bat. Gogoratzen naiz *Txaparrada* musikarekin ere zelan egin genuen zuzeneko grabaketa bat kartzela zaharrean Bergarako hogeita hiru taldek baino gehiagok. Eta, orain, *Loratzen* proiektuarekin ikustea berriro argazki musikal honen haziak bere fruitua emango duela... Disko honetan disfrutatzea tokatzen zaigu".

## Etxean egindako proiektua

Taldeak bergararrak bai, baina diskoa Bergaran egin da bere osotasunean, Labegarrietan dagoen Auryn estudioko soinu ingeniari Tristan Iñiguezek grabatu baitu eta Amaia Santamaria artista arduratu baita diseinuaz.

Iñiguezek nabarmendu zuen Bergaran maila oso handia du-

ten musikariak daudela eta "sorpresa itzela" izan dela harrentzat. Ia 100 musikari pasatu dira haren estudiotik, nor bere apeta, gustu eta ordutegiekin. "Hori guztia kudeatzea ez da lan erraza izan. Musika estilo asko daude disko berean, eta talde batekin egindakoak ez dit balio izan beste talde batendako. Lan luzea bezain mardula izan da, baina izugarri ikasi dut prozesuan zehar, askotariko estiloekin eta instrumentuekin lan egiteko aukera izan dudalako", dio soinu ingeniariak.

Diskoaren diseinuari erreparatuta, Santamariak adierazi zuen argi zuela hasieratik abstraktua izan behar zuela diseinuak eta orduan erabaki zuela patroiz ezberdinekin eta testurekin jolastea. Analogikotik digitalera egin duen sormen prozesua azaldu zuen: "Transparentzia-proiektorea erabili dut. Orduan, bertan erabiltzen ditudan kristalezko ontzietara ura eta xaboa bota ditut, burbuilak egin, olioia... Horrelako gauza transluzidoekin jolasten nintzen eta bertan sortzen nituen proiektzioei argazkia ateratzen nien. Kolore beroak –laranjak eta gorriak– sortzen nituen eta kolore horien osagarriekin –urdina– jolasten nintzen. Hori xe izan da".

## Aurkezpen kontzertua

Azken hilabeteetako emaitza erakusteko asmoarekin, diskoaren aurkezpen ofiziala abenduaren 29an egingo dute, Seminarixoan, 20:30ean hasita. Hegazkin, Diablues eta Bluezifer, Azkaiter Pelox, Low Cost Deluxe eta Fango taldeak igoko dira oholtzara. Diskoa aurkeztu ostean, diskoa salgai egongo da liburutegian eta Laboratorium museoan, berderatzi eurotan

## 'Loratzen' disko talde eta abestiak

Hauek dira *Loratzen* diskoan parte hartu duten 23 taldeak eta abestiak:

### TALDEAK ETA ABESTIAK

- **Amustei**  
*Norvegiako erregina.*
- **Arragoa** Aukerak.
- **Asanblada Autoritarioa**  
*Noble villa de Bergara.*
- **Azkaiter Pelox**  
*Batera hegan.*
- **Aztarna Uzten**  
*Aztarna uzten.*
- **Baykat**  
*Beldurraren soka.*
- **Bertso Eskola**
- **Blind09, Steezy** Oreo.
- **DBQ** Oroitzapen galduak.
- **Diablues eta Bluezifer**  
*Burugogorra.*
- **Egino J. Itoak.**
- **Fango** Nortasuna galdu.
- **Fly Shit**  
*Esnatu lozorrotik.*
- **Golden Blend**  
*Zulostrich.*
- **Harria** Bihozgabeak.
- **Hegazkin**  
*Ekialde hurbila.*
- **Josu eta Maita**  
*Bizi(min).*
- **K-Po**  
*Qué dura es la espera.*
- **Ktarsia** Gorlako tren.
- **Lemak** Autokondena.
- **Low Cost Deluxe**  
*Apokalipsi plastikoa.*
- **Orhi** Barneko otsoa.
- **Ttipika** Okd.

**PATXI CASTRO**

Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikulu salmenta

• Besuulki, mahai, saskiak e.a

**943 78 71 65**  
**639 01 69 69**

**UGARTE**  
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

BERGARA  
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak · Koltxoak  
Horma-armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerrak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

**121**  
K  
KALITATEA

Entrega Registrada N°90/025

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA

**Kabutzia**

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62



# 'Miserableak'-en 30 urte Gabonetako kontzertuan

400 lagunek hartuko dute parte Bergarako Musika Eskolak hilaren 22an eskainiko duen kontzertuan; urtarrilaren 6an 30 urte beteko ditu BMEn euskarazko 'Miserableak' musikalak eta bertan parte hartutako abeslariak ere gonbidatu dituzte

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA  
Tradizioari jarraituz, Bergarako Musika Eskolak (BME) Gabonetako kontzertua eskainiko du abenduaren 22an, 18:30ean, Udal Pilotalekuan. 400 lagun inguruk hartuko dute parte talde ezberdinetan banatuta, eta berezia izango da emanaldia; izan ere, urtarrilaren 6an 30 urte beteko dira BMEk euskarazko *Miserableak* musikala estreinatu zuenetik, eta obra hartako abestiak izango dira entzungai, besteak beste.

Marije Ugalde BMEko zuzendariak adierazi du *Miserableak* "inflexio puntua" izan zela Musika Eskolarendako. "Inork ez zuen egiten horrelako proiektu musikal erraldoirik. Gainera, euskaraz egiten lehenak izan ginen, eta orain ere oso jende gutxik egiten du, oso zaila delako, baina guk jarraitzen dugu. Hori izan zen abiapuntua. Hori aurrera oso proiektu interesgarriak atera dira eta hortxe jarraitzen dugu. Azken proiektua ere *Bretxa* izan zen eta uste dut musikalak badirela Musika Eskolaren berezitasun", dio.

## 'Miserableak'-i omenaldia

Denera, 15 pieza joko dituzte pilotalekuan, eta horietatik sei izango dira *Miserableak* musikalekoak. Trikiti, pandero, perkusio eta dantza taldeak *Eguna amaitzean* joko du; hasiberrien eta haurren abesbatzek, berriz, *Laino arteko gaztelura* eta *Jende txikia*; gazte bandak, *Etxeko jauna*; orkestra sinfonikoak, *I dreamed a dream*; eta, amaitzeko, orkestra sinfonikoak, gazte bandak, abesbatzak, eskolako ikasleek, gurasoek eta BMEn *Miserableak* musikalean parte hartu zutenek -1994an eta BMEn 25. urteurreneko emanaldiko partaideak- *Finale-Miserableak* interpretatuko dute.

Zenbait abestiri bakarlariek jarriko diete ahotsa, eta *Etxeko*



BMEn 25. urteurrenean, 2009an, *Miserableak* antzeztu zuteneko une bat. BME

## MUSIKALEKO KANTEZ GAIN, GABON KANTAK ETA BESTELAKOAK INTERPRETATUKO DITUZTE

*jaunak* abestiaren kasuaz hitz egin du: "Alde batetik, Valen Moñux egongo da, hark musikalean duen *Thenardier*-en papera egiten. Baina gero, Julien Poza 9 urtekoak egingo du Moñuxen paper bera. Kontzertua da, baina, kasu horretan, antzeztuko dute zerbait. Garbi utziko du horrek etorkizuna ere badagoela. Gu hasi ginen eta ondorengoek ere egingo dituzte gauzak".

Era berean, abestien itzulpenen jarri du azpimarra, zuzenean ingelesetik euskara egin baitzituzten itzulpenak: "Azkenean, musikal pila egiten ditugu, eta *Miserableak*-en musika oso zaila da ahaztea, oso musika ona eta polita baita. Zuzenean ingelesetik euskara egin zuten itzulpena zoragarria da. Kantua eta letrak bikainak dira. Lan hori askotan ahaztu egiten dugu, baina itzulpena zuzenean eus-

karara egitea txispa horrekin aipagarria da".

**Gabonetako beste kontzertuak**  
Hilaren 22koa ez da BMEko ikasleek Gabonetan parte hartuko duten ekitaldi bakarra. Bihar, 18:30ean hasita, haurren abesbatza girotuko du haurren abesbatzak; domekan, berriz, Azkoitiko Gabon Kanten Jaialdian hartuko du parte hasiberrien abesbatzak. Abenduaren 23an, 18:00etan, Bolua auzoan ibiliko dira erraldoiak eta BMEko trikitilariak; eta, azkenik, hilaren 24an Olentzeroren eta Mari Domingiren desfilean hartuko dute BMEko trikitilariak.

## 'Merchandising'-a salgai

Ikasturte honetan 40 urte bete ditu BMEk, eta, hori ospatzeko, telazko poltsak jarriko dituzte salgai; baita *Peter Pan* eta *Alizia* musikalen DVDak eta *Bretxa* musikalaren USBa ere. Horiek Musika Eskolan egongo dira salgai, eta Gabonetako kontzertuan frontoian eskuratu ahal izango dira. Halaber, Ugaldek azaldu du urtarrilean iragarriko dutela urteurrena ospatzeko prestatu duten egitaraua.

## Salgai daude Gabonetako kontzerturako sarrerak

Sarreraren prezioa zortzi eurokoa da eta pertsona bakoitzak, gehienez ere, sei eros ditzake

### I.A.A. BERGARA

Abenduaren 23an eskainiko dute Bergarako Musika Bandak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Bergarako Orfeoak eta Aritzeta Abesbatzak Gabonetako kontzertua. 43. aldia da eta Udal Pilotalekuan izango da, 20:30ean hasita.

Sarrerak zortzi eurotan daude salgai eta [www.seminarixoa.eus](http://www.seminarixoa.eus) webgunean eros daitezke. Halaber, hilaren 20an egongo da aukera aurrez aurre erosteko, 18:00etatik 20:00etara bitartean Seminarixoko leihatilan jarriko baitituzte salgai. Era berean, kontzertu egunean sarrerak geratzen badira, txarteldegian erosi ahal izango dira, 19:00etatik aurrera; bestela, ez dute leihatila zabalduko. Bergarako Udalak aurreratu du pertsona bakoitzak gehienez ere sei sarrera erosi ahal izango dituela.



lazko kontzertuaren une bat. GOIENA

**Ate itxiera, 10 minutu lehenago**  
Emanaldia 20:30ean hasiko bada ere, Udalak adierazi duenez, kontzertua baino 10 minutu lehenago itxiko dituzte frontoiko ateak; hortaz, ikusleak ezin izango dira pilotalekura sartu 20:20tik aurrera.

## San Joxepe elkarteak abenduko ekitaldiak iragarri ditu

Azaroan, Aurretiazko Borondateen Dokumentuak osatzeko tailerra egin zuten; atzo eta gaur, berriz, dokumentu horiek Bergarako anbulatorioan erregistratzeko aukera izango dute, haiek emandako hitzorduaren arabera -dokumentuan agertuko diren pertsona guztien nortasun agirien fotokopiak aurkeztu beharko dira orriarekin batera-.

Bestalde, abenduaren 18tik 21era Gabonetako Billar torneo egingo dute. Bazkideek hartu dezakete parte soilik, eta irabazlea, saria eskuratzeaz gain, San Joxepe elkartearen ordezkari izango da 2024an Gipuzkoan egingo den txapelketan.

Azkenik, hilaren 21ean San Tomas eguna ospatuko dute elkartearen bazkideek. 18:00etik aurrera, txistor-jana egingo dute elkartearen tarte bat hartuko dute billarreko torneoaren sari banaketa egiteko.

## Pilota partidak jokatuko dituzte gaur eta bihar frontoian

Gaur, 18:30ean, IV. Reyes Azkoitia sariko final laurdenak jokatuko dituzte bigarren urteko benjaminen frontoian; eta 19:45ean, Gipuzkoako banakako txapelketako errendimendu mailako final laurdenak. Bihar, aldiz, 16:00etan hasita, eskolarreko txapelketa jokatuko dute Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Oñati eta Eibarko benjaminen.

## Botatu daiteke Gabonetako erakusleihen ederrena

2023ko Gabonetako erakusleihen lehiaketan hiru saltokik -Zare, Gorosti eta Wood Uhuru- hartu dute parte. Herritarrek botoa eman diezaioke gehien gustatutako erakusleihen [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus) atarian, hilaren 18ko 13:00ak bitartean. Udalak adierazi du pertsonako boto bakarra hartuko dutela kontuan. Sari banaketa hilaren 21ean izango da.



## KONTU KONTARI

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Azaroaren 13an bete zituen 73 urte Felix Zubia Larrañaga *Sanpru*-k (Bergara, 1950). Elorregin jaioa eta Aretxabaletako Coprecin 46 urtez lan egindakoa, 2015ean erretiratu zen kooperatibatik. Aisialdian lan boluntario handia egindakoa, izan Club Deportivorako edo Lokatza Ziklismo Eskolarako. Eta, besteak beste, Txibisto areto ezaguna eraman zuenetako bat ere izan zen, Fenando Otaño, Jesus Bolibar, Julen Narbaiza eta Iñaki Pedrejonekin batera. Elorregiko Alkartasuna elkartean egin du *Kontu kontari* saiorko hitzordua GOIENAK *Sanpru*-rekin; hango bazkide da egun eta haren lehen eskola izan zen, elkarte auzo-eskola izan zen-eta aspaldi.

**Ziklismoa pasio umetatik**

Sei anai-arrebetatik gazteena, auzoko "jostailua" izan zela oititzen du, urte batzuetan ez zelako beste umerik jaio: "5 bat urte egin arte ez zen beste umerik jaio eta auzotar askoren jostailua izan nintzen. Zorionsua izan nintzen; ez genuen ezer, baina ez zitzaigun ezer falta".

Ziklismoa pasioz bizi izan du *Sanpru*-k umetatik eta uste du Elorregi moduko auzo bateko bide ertzean jaio izanak baduela zerikusirik horrekin: "Ez genuen ez telebistarik ez halakorik. Pilotan jokatzera zen entretenimendu bakarrenetarikoa; pilota eta, domeketan bereziki, ziklismoa. Lasterketa mordo bat egoten ziren eta gerora profesionaletarako saltoa eman zutenetako asko niretzat ezagunak ziren afizionatuetan. Ume nintzenea ia urtero pasatzen zen Espainiako Itzulia auzotik; aho bete hortz geratzen nintzen tropelaren aurretik pasatzen zen karabanarekin. Orduan itzela zen".

**Coprecin 46 urtez, "oso gustura"**

Auzoko eskola 10 urterekin utzi eta Oñatiko Maristetan jarraitu zuen ikasten: "Oñatiarra izan barik, esan dezaket Oñatiko unibertsitatean ikasi nuela; askok ezingo dute hori esan... Bi urte egon nintzen han, maristak joan arte; sekulako deskubrimendua izan zen Oñati niretzat, mundu berri bat". Handik, 1963an-edo, Maestria ikastera joan zen Arrasatera: "Ikasketak ekainean bukatu eta berehala sartu nintzen



*Sanpru*, Elorregiko Alkartasuna elkartean; han egin zituen lehen ikasketak, auzoko eskola izan zen eta. MARKEL ARRAYAGO

# "Etekinik espero bako lanak izan dira aberatsenak nire bizitzan"

**FELIX ZUBIA LARRAÑAGA 'SANPRU'**

Oñatin eta Arrasaten ikasi, Aretxabaletan lan eta aisialdia Bergaran; ezizena jaio zen auzotik datorkio 'Sanpru'-ri. Gustura hartu du GOIENAREN gonbita 'Kontu kontari' saiorko

Coprecin; orduan, lan asko zegoen. Hasieran, pena sentitu nuen, orduko bandera-ontzia Ulgor zelako eta nire ikaskideetako asko hara eraman zituztelako; niri Copreci tokatu zitzaidan, eta, han egin ditudan urte guztien ostean, ez nuen aldatuko. Coprecin oso gustura ibili nintzen; oso eskertuta nago".

**Bergararra sentitu da, "beti"**

Elorregin jaio izanagatik nongoa sentitzen den galdetuta, dio "beti" sentitu dela bergararra: "Soldaduska ostean hasi nintzen bere-

**"IKASKETAK EKAINEN BUKATU ETA BEREHALA SARTU NINTZEN COPRECIN; LAN ASKO ZEGOEN"**

**"MOMENTU EDER ETA BURUHAUSTE UGARI BIZI IZAN GENITUEN TXIBISTON, ETA EZ NAIZ DAMUTZEN"**

**"Auzolanaren krisiari" buelta emateko nahia**

Gazteentzat gomendiorik baduen galdetuta, honako hau dio: "Gomendiorik ez daukat, baina gustura ikusiko nuke lan boluntarioa edo auzolana belanaldi berrien artean. Etekinik espero bako lanak izan dira aberatsenak nire bizitzan; hor ez daukat zalantzarik".

ziki Bergaran irteten; Donostian egin nuen soldaduska eta han bergarar batzuekin elkartu nintzen. Bergarako kuadrillarekin 1976tik aurrera hasi nintzen irteten". Frankismotik irten berri-tan, dena zegoen egiteko eta lan boluntarioa oso txertatuta zegoen gizartean. Haren kuadrillak Club Deportivoko -gaur egungo BKE-ardura hartu zuenean, diruzain aritu zen; betiere, diru iturri berriak bilatzen: "Orduan hasi nintzen *Boli* [Jesus Bolibar], Otaño [Fernando Otaño] eta konpainiarekin harremana sendotzen, eta handik aurrera hainbat abentura bizi izan genituen".

**'Espuela'-tik Txibisto aretora**

Abentura haietako bat izan zen *Espuela fin de semana*: "Gaur egun pentsaezina da, baina garai hartan Bergarako asteburuak itzelak ziren, eroak; sekulako parranda giroa egoten zen. Domekan oraindik bazegoen jendea ez zuena etxera joan nahi, eta bururatu zitzaigun Ariznoa taberna hartzea eta domeka gauean ere giro berezia sortzea". Ordu-rako dirua batzeko kontzertu bereziak ere antolatzen hasiak ziren udal pilotalekuan, eta herriko jaiak antolatzeko batzordean eragile oso garrantzitsuak ziren; oinarri hura ezinbestekoa izan zen 1984an Txibisto aretoa eraiki eta irekitzeko proiektuan sartzeko: "Jaialdiak antolatzen bagenuen esperientzia; ordura arte oso arrakastatsua, gainera. Bagenuen buruan areto bat aukera ona izan zitekeela, eta buruan genuena errealitate bihurtzeko lanean hasi ginen; Udalak ez zigun uzten herri barruan egiten. Elorregin jartzea ere pentsatu genuen, baina arazoak zeuden... Azkenean, erabaki genuen San Juanen egitea".

1984tik 1992ra iraun zuen Txibistoko abenturak: "Momentu eder asko eta buruhauste ugari bizi izan genituen han; gaur, seguruenik, gauzak beste modu batera egingo genituzke, baina ez naiz damutzen. Eta sekula ez dugu esan izan, baina gure bikotekideek aipamen berezia merezi dute: eskerrik asko, Anabel, Elisa, Kontxi eta Aintzane!".



Elkarrizketa bideoan ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.



**Oihana Elortza Gorostiza OÑATI**

Gustuko jolasgunea izan zuen Jabi Bujanda *Txebi*-k tren-makina; beti atsegin izan duen espazioa dela dio, eta horregatik erabaki zuen Historiako ikasketak amaitzeko lana trenari buruzkoa egitea. Irailean bete ziren 100 urte Elorregi eta Oñatiko trenbide sarea erabiltzen hasi zirela, eta hil honen azken egunean, abenduaren 31n, beteko dira 56 Vasco-Navarro tren bera itxi zutela, Oñatiko adarra barne.

**Lizarraraino**

Guztira, 44 urtez egon zen martxan Vasco-Navarro trenaren Oñatiko adarra, Elorregi eta Oñati lotzen zituena. "Olatz Osak egindako liburuaz gain trenaren historiari buruz ez dela askorik egin konturatu nintzen, eta beti gustatu izan zaidan tren-makina horri buruz ikertzea erabaki nuen. Trena Oñatira zelan etorri zen ideia jasotzea izan da nire ideia, zelan egin zituzten obrak, ze bizitza izan zuen eta zergatik itxi zuten. Osaren liburua bera, Araba aldeko zatia jasotzen duen beste bat, Zubillagari buruz egindako liburua, kultura etxeko beste batzuk, Internet eta, batez ere, Juanjo Olaizolaren laguntza izan dut tesia egiteko. Azpeitiko Tren Museoan agiri asko daude; asko lagundu dit Olaizolak".

Tesia eginda, trenak abantaila asko ekarri zituela eta "itxi gabeko historia" dela ondorioztatu du Bujandak. "Elorregin ezkerretara eginda Gasteizeraino heldu ahal ziren oñatiarrak, eta handik Lizarrako bidea hartu. Eskumara eginez, berriz, Mekolalderaino, eta han Urolako tren hartu, gura izanez gero. Mugikortasunean aurreapauso izan zen, baina baita industrian ere. Trenak berak lana sortu zuen, eta herrian, Zubillagan, batez ere, industriak sortu eta zeudenak indartu egin ziren. Kanpoko jendea ere heldu zen hona, nahiz eta Oñatik ez duen inoiz biztanleriaren langa historikorik pasa, Arrasatek bezala, era naturalean mantendu da hori".

**Lau geltoki zazpi kilometrotan**

Zubillagako auzotarrek egindako *Antxinako Zubillagari begirada* bat liburuan jaso zuten moduan, Zubillagako emakume talde handi samarra joaten zen



Jabi Bujanda *Txebi*, trenaren lokomotora zaharraren eta tren geltokia izandako eraikinaren aurrean. IÑIGO BARRENA

# Trenak ekarri eta emandakoak

Duela 100 urte martxan jarri eta 44 urtera itxi zuten Elorregi eta Oñati arteko trenari buruzko tesia egin du Jabi Bujanda 'Txebi'-k, eta informazio horrekin osatutako erakusketa dago zabalik Turismo Bulegoan. Egileak gidatuko duen bisita bihar da

kalera ortuko barazkiak saltzera. Otzaretan eramaten zituzten eta oso eroso zela zuten gogoan auzotarrek. Trena itxi ostean, autobusa hasi ziren erabiltzen, baina ez zen hain eroso. Bestalde, merkea zela ere gogoan

zuten Zubillagako auzotarrek; hasieran, erreala balio zuen, eta, gero, igotzen joan ziren poliki-poliki.

Ia zazpi kilometroko -6.723 metro- ibilbidean lau geltoki zituen Oñatiko trenak: Elorregin,

Zubillagan, San Pedron eta Oñatin bertan, gaur egun postetxearen eraikinean. Espainiako erregina Victoria Eugenia ere egon zen zati haren inaugurazio ekitaldian. "Hor argi ikusten da Espainiarendako ere garrantzi-

tsua zela tren hura. Ikatzarekin zebilen hasieran eta elektrifikatu egin zuten gero. Hori egin zutenean, baina, Espainiako gerra heldu zen eta horrek mugak jarri zizkion berez izango zukeen garapen naturalari". Zubillagarrek, esaterako, gogoan zuten lehenengo tren-makina poliki ibiltzen zela, makinistak bidean pasatzen zirenekin berbetan jarduten zuela. Baita elektrikoa jarri zutenean tunelak jaso behar izan zituztela, eta lan haiek egitera jende asko etorri zela kanpotik; galiziarrek, tartean. Auzoko etxeetan egon ziren hainbat, apopilo.

**Orduko egoera geopolitikoa**

Trenak, baina, 1967ra arte iraun zuen martxan. "Egia da ez zela errentagarria, baina itxiera bera ulertzeko orduko egoera geopolitikoari begiratu beharra dago. 1959an, Espainiari bizkarra emateari utzi zion nazioarteko komunitateak, AEB buru. Gainera, jesuitak sartu ziren Gobernuan eta horrek beste bira ekonomiko, sozial eta politiko bat eman zion gizarteari. Horren ondorio zuzena ibilgailuak izan ziren, diruduntzat aisialdirako eskainiz. Horrela, autogintza indartu egin zen".

Azkenean, Vasco-Navarro tren bera itxi zuten egun berean egin zuen azken bidaia Oñatiko trenak ere, 1967ko abenduaren 31n. "Trenbide osoa egiteko 40 urte behar izan zituzten, eta hemengo zatiak 44 baino ez zuen iraun martxan. Horregatik diot amaitu gabeko historia dela Oñatiko trenarena".

**Urteurrena**

1923ko irailaren 30ean, duela 100 urte, jarri zuten martxan Oñatiko tren bera, eta urteurren horri lotuta dago Jabi Bujandaren lana. Hilaren hasieran erakusketa bat jarri zuten Turismo Bulegoan hark jasotako informazioarekin osatuta, eta Jabi Erostarbe ilustratzaileak egindako seilua eta postala atera zituzten. Baita Juanjo Olaizola gonbidatu ere, trenari buruz berba egitera.

## ESPAINIAKO ORDUKO ERREGINA VICTORIA EUGENIA ETORRI ZEN INAUGURAZIO EKITALDIRA

### Erakusketa eta bisita gidatuak

Vasco-Navarro trenaren Oñatiko adarraren gaineko erakusketa zabaldu dute Turismo Bulegoan. Urtea bukatu bitartean egongo da zabalik, baina bisita gidatu bereziak egingo dituzte itxi aurretik. Bihar, abenduak 16, adibidez, Jabi Bujandak berak gidatu du bisita, Elorregin hasita, 11:00etan. Hilaren 30ean, ordu berean, Turismo Bulegoan egingo dute.



Turismo Bulegoan jarri dituzten informazio panelak. O.E.G.



# Zaintzak planifikatu, nahiak errespetatzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan eta Oñatiko Udalaren laguntzarekin, Gipuzkoako Gizartean Esku-hartzeko Etika Batzordeak 'Zuk jakitea nahi dut...' gida prestatu du. Zaintzak era adostuan planifikatzeko laguntza eskaintzen du tresnak

**Miren Arregi Amasorrain** OÑATI

Zainketak errespetuz planifikatzen laguntzeko helburuarekin, *Zuk jakitea nahi dut...* gida aurkeztu dute asteen Santa Ana aretoan. Tresnaren bitartez, arreta emateko modu berriak sortu nahi dira, "berrikuntzatik abiatuta, sare komunitarioak indartuz eta pertsonak erdigunean jarrita". Gidak zainketak planifikatzen laguntzeko balio du, pertsona bakoitzaren lehentasunak kontuan hartuta. "Egunerokotasunean edo aldaketa-uneetan erabakiak hartzea errazteko balio duen tresna da, pertsonen, haien familiei, lagunei edo haiei laguntzen dieten profesionalen zuzendutako jarraibide sinpleen bidez. Entzuteko eta pertsona bakoitzaren balioak, nahiak eta beharrak errespetatzeko aukerak sortzen ditu, eta horiek funtsezkoak dira zainketen pertsonalizazioaren aurrera egiten jarraitzeko", azaldu zuen Olaia Aranak, aldundiko teknikariak. Doku-

mentu irekia da eta pertsona bakoitzak modu desberdinean bete dezake, haren lehentasunen arabera. Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuaren ustez, dokumentu honek aukera ematen du arreta modu kolaboratiboagoetarantz jotzeko; horrela, pertsonari bere bizitzaren eta jasotzen dituen laguntzen gaineko kontrola itzultzen zaio eta "pertsona Gipuzkoako gizarte zerbitzuen eredu berriaren ardatz nagusi bihurtzen da".

**Etorkizunera begira**

Lan hori ezagutarazteko asmoz, hitzaldi informatiboak egiten ari dira Gipuzkoako hainbat udalerritan; tartean, Oñatin. Herritarren arretarako Aldundiak telefono zenbaki bat eta helbide elektronikoa bat ahalbidetu ditu; 943-24 48 35 eta [zukjakiteanahidut@gipuzkoa.eus](mailto:zukjakiteanahidut@gipuzkoa.eus). Dokumentua deskarga daiteke Gizarte Politiketako Departamentuaren webgunetik ere.

## Elkartasun Azoka bihar eta artisau azoka domekan

Elkartasun Azoka plazara itzuliko da bihar, zapatua, Elkar Heziren eskutik. "Gure bailarako ekosistema solidarioa ezagutu eta sustatu nahian, herri mailan diharduten talde txikiak izango dira protagonista nagusiak", azaldu dute antolatzaileek. Hamar erakunde egongo dira: Acesma, 7 Udaberri, Erei, Bunbulum, Bidezko Merkataritza, Hotz, Sahara, Misio Taldea, Ndank eta Gurutze Gorria. 10:00etatik 14:00etara egongo dira plazan.

Bestetik, domekan, 10:30etik 14:30era herriko artisauek Gabonetako azoka egingo dute, berdura plazan. Larruzko osagarriak, oihalez egindakoak, bitxiak... izango dira erosgai.

## 25 komertzio erakusleho lehiaketan

Martxan da Gabonetako erakusleho lehiaketa. 25 komertzio hartuko dute parte eta dagoeneko apaindu dituzte erakuslehoak. Horrela mantendu beharko dira, gutxienez, abenduaren 31ra arte. Dagoeneko Haurren eta Herritarren Sarirako botoak emateko aukera irekita dago. Erakuslehoetan QR-dun kartelak dituzte jarrita eta botoa online emateko esteka aktibatu da Udalaren webgunean. Herritarren Sarirako botoa Internetez bakarrik eman ahal izango da eta Haurren Sarirako botoak, berriz, azken *Kontzejupetik* aldizkarian argitaratu ziren orritxoak beteta eman ahal izango da. Azken eguna abenduaren 20a izango da.



Santa Ana aretoan, asteen egindako hitzaldian. M.A



# ONATI institutua

Larraña FP-LH

## EKINTZAIETZA ASTEA

formakuntzak  
hitzaldiak  
testigantzak  
lehiaketak  
tailerrak

**ABENDUAK 11-15**

➡

**Oinarizko Zikloak**

DBHO TITULUA LORTZEKO

➡

**Erdi mailako Zikloak**

TEKNIKARI TITULUA LORTZEKO

➡

**Goi mailako Zikloak**

GOI TEKNIKARI TITULUA LORTZEKO

**Lanbide bat ikastea nahi duten gazteentzat**








# Ilusioa berreskuratzen ari da denboraldia izaten ari da

laz jaitsi ostean, Gipuzkoako txapelketan ari da eskubaloiko emakumezkoen talde gorenaren. Orain arte egindakoarekin sailkapenaren goialdean dira, eta ilusioz daude igoera lortzeko lehian izateko. Bihar, beste aukera bat dute goian jarraitzeko

## Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Azken urteak ez dira errazak izan Aloña Mendiren eskubaloiko emakumezkoen senior taldearentzat. Denboraldi batzuk aritu zen, kostata, Euskal Ligan mantentzen, iaz jaitsiera baieztatu zen arte. Aldaketa ugari izan ditu taldeak azken urteetan, baina badirudi aurten ilusioa berpiztu dela. Urte luze Euskadiko txapelketan aritzetik Gipuzkoako txapelketa jokatzera igaro dira aurten, eta, askotan esaten den bezala, pauso bat atzera egitea ona izaten da, ondoren bi aurrera egiteko. Momentuz, denboraldi txukuna egiten ari da Iñaki Zabartek, Gorka Ugartek eta Alaitz Atxak zuzentzen duten taldea. Bigarrenak dira euren multzoan, eta bihar (16:00) Legazpiko taldeari irabazten saiatuko dira, etxean, goialdean jarraitzeko. Zabarte entrenatzailea gustura dago orain arte egindakoarekin: "Abuztuan hasi ginenetik talde honek, batez ere, fisikoki, mentalki eta kolektiboki izan duen hobekuntza ikaragarria da. Edozeini irabazteko gai direla sinesten dute, eta hori oso garrantzitsua da, azken urteak nolakoak izan diren ikusita".

Halaber, prestatzaile oñatiarrak aitortzen du kategoriaz jaistean "beti" igartzen dela maila jaisten dela; batez ere, fisikoki eta erritmo aldetik. Hori ikusita, argi dauka, beste taldeekiko "errespetu guztiarekin", Aloña Mendi "Euskal Ligako taldea" dela.

## Gakoa, konpromisoa

Emaitzek laguntzen dutenean dena errazago ikusten da, baina denboraldi ona egiteko beste faktore asko izan behar dira kontuan; esaterako, konpromisoa. Hain zuzen, oñatiarren prestatzaileak hori azpimarratu du orain arteko bolada onaren zergatia azaltzeko. Gainera, egoera ez da erraza, talde gazte



Aloña Mendiko emakumezkoen senior taldea. IÑAKI ZABARTE

## JOKATU DITUZTEN BEDERATZI NEURKETETATIK SEI IRABAZI DITUZTE ALOÑA MENDIKOEK

delako Aloña Mendiko neskena eta ikasketak eta bestelakoak medio ez delako erraza izaten guztiek batera entrenatu ahal izatea. "Adin zailean iristen dira seniorretara. Batzuek kanpoan ikasten dute eta argi dago euren etorkizuna ez dela eskubaloia. Horregatik, erakusten ari diren konpromisoa eta inplikazio maila itzelak dira, eta, era berean, iaz erakutsi ezin izan zutena astebururo erakusteko gogoz kantxaritzen dira" dio Zabartek.

Konpromisoari emaitza onak batuz gero, errazagoa izaten da bidea, eta horrek ere eragin zuzena izan du orain arte egin duten ibilbidean. "Jokalariek ikusten ari dira astean egindako lanak zerbaiterako balio duela, eta horrek hurrengo neurketara edo entrenamendura begira hobetzeko gogoia ematen die", adierazi du Aloña Mendiko entrenatzaileak.

ten die", adierazi du Aloña Mendiko entrenatzaileak.

## Helburua, igoera borrokatzea

Jaitsiera baten ostean galdutako tokira itzultzea izaten da helburu nagusia, eta Aloña Mendiko nesken kasuan ere halaxe gertatzen ari da. Denboraldia hasi aurretik igoera borrokatzeko lehian egoteko helburua jarri zuten, baina oinak lurrean ditzutela. "Helburu nagusia igoera lehiaz da, baina ez bada lortzen ez da ezer gertatzen, ez da porrot bat bezala hartu behar", dio Zabartek.

Gainera, argi dauka "taldea" osatzea dela garrantzitsua etorkizunera begira: "Taldea sendoa osatuz gero, igoera lortzeko aukera gehiago daude, eta horrek izan behar du helburua". Ilusioz ekin zioten erronka berri horri Zabartek eta bere lantaldeak, eta ilusio hori taldeari helaraztea ere begiz jota dute. "Gazte hauek ilusioa berreskuratzea merezi dute, baita aurretik eskubaloian aritu direnek ere, talde hau Euskal Ligakoa delako eta Euskal Ligan egon behar duelako", adierazi du Iñaki Zabartek.

## NIRE USTEZ

AMAIA EROSTARBE

## Herribusa Elorregira

Aurrekontua da erakundearen dokumentu ekonomiko nagusia, eta tokiko politika publikoaren lehentasunak zehazten ditu, urtebeterako. Oñatiko Udalean abenduaren 14ko osoko bilkuran aurkeztuko da 2024ko aurrekontu-proiektua; ondoren, irizpena adieraziko dute udalbatzako bi alderdi politikoek. EAJko udal taldeak zortzi emendakin aurkeztu zituen azaroaren 28ko Ogasun batzordean, Udal Gobernuaren aurrekontu-proiektua hobetzeko. Besteak beste, proposatu du Herribusaren hirugarren linea ezartzea –Oñati-Elorregi-Oñati–; 100.000 euroko aurrekontua aurreikusitako du, *Jasangarritasunerako inbertsioak* diru-lerrotik finantzatuta –150.000 euro–. EAJko zinegotzior iritzia apalean, hirugarren linea, PESAk ematen duen zerbitzuaren osagarri, Elorregirako konexioak –hiriburuekin, bereziki– era erosoagoan eta osoagoan ahalbideratuko ditu. Izan ere, lotura horiek arazo bihurtu dira garraio publikoa erabili ohi dugun oñatiarrentzat. Elorregirako auzoen komunikazioa ere nabarmen hobetuko du. Udal Gobernuak ez du onartu emendakina: ez du egoki ikusi Oñatiko Udalaren aurrekontuen baitan egitea.

## "Irabaztea ez zen helburu nagusia; beraz, oso pozik nago"

AIMAR MADINA TXIRRINDULARIA

Gipuzkoako ziklo-kros txapeldun izan berri da

## I.B.K. OÑATI

Aimar Madina Caja Rural taldeko txirrindularia Gipuzkoako ziklo-kroseko txapeldun izan zen, 23 urtez azpiko kategorian, domekan Seguran jokatu zen proban.

## Gipuzkoako txapeldun zara; ze sentazio dituzu?

Ez nuen helburu finko bezala irabaztea, baina egutegian zegoen, eta oso gustura nago lortutakoarekin.

## Nolako lasterketa izan zen?

Ondo ekin nion, aurreko postuetan kokatu nintzen eta hor aritu nintzen une oro. Lasterketa azkarra eta gogorra izan zen; batez ere, korrikako zatietan asko sufritu genuen.

## Sailkapen orokorrean bosgarren. Hori ere azpimarratzekoa, ezta?

Orain arte lortu dudak posturik onena da. Gipuzkoa mailan, gainera. Batzuek bosgarren postua, agian, ez dute hain ondo ikusten, baina, ikusita ze maila zegoen, oso pozik.

## Badirudi neurria hartu diozula ziklo-krosari...

Betidanik txukun aritu naiz ziklo-krosean, baina iaz igarri egin nuen kategoria aldaketa eta kosta egin zitzaidan. Aurten,



Aimar Madina. CAJA RURAL ALEA

ordea, iazko esperientziatik ikasita, askoz hobeto nabil.

## Errepidean eta ziklo-krosean ari zara. Zein duzu gustukoena?

Biak ditut gustuko. Errepidean nabilenean errepidea eta ziklo-krosean nabilenean ziklo-krosa. Egia da ziklo-krosa denboraldiaurre moduan hartzen dela, baina biak ditut gustuko.

## Zeintzuk dira aurrera begira dituzun helburuak?

Taldeari laguntzen jarraitzea, lasterketa gehiago amaitzea eta aurrerapauso bat ematea izango da helburu nagusia.



# Elkartasunaren alde abestuko dute domekan

Urtero bezala, herriko abesbatzek eta bandek parte hartuko dute Gabonetako kontzertuan. Aurtengoa ere solidarioa izango da, eta batutako dirua Dhagguel-en (Ginea) eraikitzen dabiltzan emakumezkoen eskolaren hirugarren faserako izango da

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI  
Urtero legez, Gabonetako *Hator, hator 2023* kontzertua egingo dute domekan, Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan, 12:30ean hasita. Iaz estreinakoz egin zuten emanaldia Zubikoan, eta, arrakasta ikusita, aurten ere errepikatzea erabaki dute. Hain zuzen ere, pilotalekua txukun atonduko dute, harmaila, argiteria eta soinu ekipamenduarekin. Ganbara Abesbatzak, Hots Abesbatzak, Oñati Abesbatzak eta Oñatiko Musika Bandak eta Banda Gazteak parte hartuko dute emanaldian. Lehenik, talde bakoitzak tarte propioa izango du, taula gai-

nera bi pieza eramanda. Guztiek batera abestuko duten *tutti*-rako, berriz, African Harmoy Afrikako bost herri abestitan oinarritutako suite berezi bat aukeratu dute. *Sansa Kroma, Thula Thu Baba, Khuluma, Ilanga libuya, ilanga liyaphuma* eta *Tshotsholoza* izan dira aukeratutako piezak. Gainera, ohitura den bezala, amaieran Gabonetako kanta ezagunak entzun ahalko dira: *Adeste Fideles* eta *Hator, hator*.

Kontzertua doan izango da, baina emanaldira joan nahi duenak gonbidapenak hartu beharko ditu Txokolateixan. Kontzertua puntual hasteko as-

moz, jendeari kiroldegira garaiz joateko eskatu diote.

## Kontzertu solidarioa

Iaz gertatu bezala, aurten ere kontzertua solidarioa izango da, eta pilotalekuak dituen bi sarreretan Oñatiko Misio Taldeko boluntarioak egongo dira, jendeak egin nahi dituen ekarpenak jasotzen. Batutako diru guztia Oñatiko Misio Taldeari emango zaio, duela bost urtetik Kronakryko (Ginea) Dhagguel herrixkan egiten ari diren hezkuntza proiektuekin jarraitzeko. "Aurten ere aukera izango da Gabonak kontsumismoan ez erortzeko eta gehien behar du-



Aitor Biain eta Manu Egaña, kontzertuko kartelarekin. IÑIGO BARRENA

tenekin gogoratzeko. Izan ere, Afrikara begira jarriko gara, kontzerturako programa hangoa aukeratu delako eta dirua hara bideratuko delako", adierazi du Manu Egañak, Oñatiko Misio Taldeko kideak.

## Emakumeen eskola

Urte hauetan gazteentzako Oñati eskola martxan jarri dute. Oraingoan, eraikitzen ari diren emakumeentzako eskolaren hirugarren fasera bideratuko da

dirua. Eraikina eginda dago, baina barrualdea osatzea falta da. Helburua da emakumeen eskola era autonomoan martxan jartzea. "Itxaropen argi bat piztu zen duela urte batzuk Dhagguel herrian Oñati eskolari esker. Orain, emakumeen eskola errealitate bihurtzea nahi dugu. Neskek ofizio bat ikasi, independentzia ekonomikoa izan eta ahalduentzako aukera izateko toki bat izatea nahi dugu", dio Egañak.

## Gailu eta Braulio taldeak gaur gauean Antixena gaztetxean

Burrunda Faktoriaren lehenengo kontzertu denboraldiko azken emanaldia izango da gaur gauekoa (22:00). Gailu eta Braulio taldeak izango dira oholtza gauean. Lehenek (Andoain) rocka eta elektronika uztartzen dute; eta bigarrenek (Ondarroa) rock doinuak eskainiko dituzte. Sarrerek 3 eta 8 euro balioko dute.

## 'Makilakixki' ipuina aurkeztuko du etzi Ganbara Faktoriak

Duela bi urte martxan jarri zuten Oñatiko Ipuinak proiektuaren barruan dago *Makilakixki*. Santa Anan izango da emanaldia, etzi, arratsaldeko seietan, eta sarrerak Txokolateixan eta Udalen webgunean daude eskuragarri, 3 euroren truke. Liburua ere salgai egongo da etzi, eta baita Txokolateixan eta ganbararen webgunean.

**AUTLAN**  
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako  
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

DEBAGOIENEN  
**GREMIOAK**

**AROTEGIAK**  
AZKARATE AROTEGIA  
BERGARA  
Telleria 19 B02-B03  
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20  
[blogak.goiena.net/azkarate](http://blogak.goiena.net/azkarate)

**LOREZAINZA**  
MAKAI KOOP. ELKARTEA  
ARETXABALETA  
Basabe poligonoa D-2-1  
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98  
Faxa: 943 79 78 45

**ITURGINTZA**  
EGIA ITURGINTZA  
ARRASATE  
Gipuzkoa etorbidea 39, behea  
Tel.: 943 77 01 85

**URKO MANTENIMIENTO SL**  
ARETXABALETA  
Basabe industrialdea B-3  
Tel.: 943 77 19 88  
Faxa: 943 79 59 97

Irargkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



# Egungo futbolak dituen argi-ilunez berbetan

**FUTBOLA** 'Zergatik aldatzen gara futbol zelaietan?' galderari erantzuten saiatu ziren eguaztenean egindako berbaldian UDAko presidente Agurtzane Elkoro, Realeko jokalaria ohi Jose Javier Barkerok eta Irati Garzon kirol psikologoa eta futbol jokalaria

**Xabier Urtzelai Atxa** ARETXABALETAK Agurtzane Elkoro behin baino gehiagotan nabarmendu izan duen esaldi batekin hasi zuten eguaztenean jende gutxi batu zuen baina egondakoek oso gustura entzun zuten berbaldia. "Futbolak kirol moduan ez du aparteko arazorik; futbola ez dago gaixorik, gizartea da gaixo dagoena".

Hala, futbolaren bueltan dauden arloen gainean egin zuten berba Elkoro berak, Jose Javier Barkerok eta Irati Garzonek: harmailtan egoten diren gurasoen –eta bestelako zaleen– jarrerak, gurasoek eurek seme-alabengan proiektatzen dituzten nahi, desira eta frustrazio pertsonalak; gaur egun futbol zelaiak gune edo espazio seguruak ote diren; futbol klubek izan behar-k lituzketen balioak; edota eraso sexisten –eta bestelako erasoen– aurrean landu dituzten protokoloak.

## Gurasoen eragina

Berbaldiaren zati handi baten arreta gazteengan jarri zuten, harrobiko taldeetan jokatzeko duten neska-mutikoengan. "Ikustekoa izaten da guraso batzuek izaten dituzten jarrerak. Seme atezainaren atzean jarri zen aita etortzen zait gogora; nori pasesa



Garzon, Elkoro, Barkerok eta Maider Etxaniz aurkezlea. X.U.

eman eta nori ez eman esaten zion semeari atzetik, taldekide batzuk besteak baino hobeak zirela argudiatuta". Adibide hori partekatu zuen Elkoro. Eta Athleticen eta Eibarko harrobiko jokalariekin lan egiten duen Irati Garzonek jarraitu zuen berbetan: "Jokalaria batekin baino gehiagorekin lanketa egiten hasi eta konturatu gara ez zeukala futboleko jokatzeko aparteko interesik, nahiz eta Athleticen harrobian egon. Gurasoen desira zen seme-alaba hori ikustea, baina ez harena. Eta uste

duguna baino gehiago daude horrela".

Barkerok, berriz, datu gordinak ekarri zituen gogora: "Gipuzkoan belaunaldi bakoitzean 3.000 gazte badaude, gehienez jokalaria bat iritsiko da elite mailara, eta, belaunaldi ona izan bada, gehienez, bi. Hori horrela, normalena da jokalaria batek bere herriko futbol taldean egitea kirol ibilbidea", eta Garzonek jarraitu zuen berbetan: "Gurasoen partetik seme-alabengan gehiegizko espektatibak jartzea akatsa da, presioa areagotzen diegulako".


"Eta urteren bat edo beste maila goreneko talde baten harrobian jokatu badu, baina gero bere herriko klubera itzultzen bada, jarrai dezala futbolaz gozatzen, har dezala talde horretan bizi izandako esperientzia opari baten moduan, baina ez galdutako aukera baten moduan. Nik behin baino gehiagotan izan nuen herriko taldera bueltatuko nintzen sentazioa, ez nuelako taldean jokatzeko. Eta esango nuke prest nengoela horretarako", gaineratu zuen Barkerok.

Hain zuzen, jokalaria profesional baten argi-ilunen gainean ere zintzo egin zuen berba Realeko jokalaria ohiak: "Askotan, bakardade sentazio handia izan dut kanpoan ibili naizenean. Badaude momentu oso onak, ekonomikoki dirua irabazten duzu, baina etxekoengandik, lagunengandik, zure herrikerik urte batzuek urrunduz egiten zara. Donostia, Frantziako Tolosa, Eibar, Ejido, Albacete, Numantzia, Levante, Zaragoza... Iritsi zen une bat nondarra nintzen ere ez nekiela. Eta horri garrantzi handia ematen diot. Futbola amaitu zela erabaki nunean, nire herrira etorri nahi nuen, eta saiatzen zara etxekoekin, lagunekin... bizi izan ez dituzun bizipenak erre-kuperatzen. Baina konturatzen zara ezinezkoa dela, horiek joan direla eta zuk beste bizipen batzuk izan dituzula".

## Klubek balioak


Klubek izan behar-k lituzketen balioen gainean ere jardun zuen Elkoro: "Alde horretatik, klub handien eta herri mailakoan artean ez luke alde handirik egon behar. Baina geroago eta diru gehiago dagoenean, balio horiek behera egiten dute".

## Futboleko bizi izan duzu une gogorrik?



**JOSE JAVIER BARKERO**  
JOKALARI OHIA

"Aitor Zabaleta hil zuten egunean han nengoan, ordezkoren aulkian. Harrika hartu gintuzten zaleek. Gero, polizia entzun genien gertatutakoa, eta senitartekoak harmailtan nituen. Amorrua dut, partidu hura bertan behera utzi behar zelako".



**IRATI GARZON** KIROL PSIKOLOGOA

"Duela gutxi, komunikabidetan azaldu da Bizkaian emakumezkoen partidu baten zaleek egin zituzten irainak. Bada, gure taldean jokatzeko zebilena, eta irainak 16-17 urteko gazteengandik etorri ziren".



LOKATZA ZE


## 2024ra begira lanean jada

**ZIKLISMOA** Bolintxo Okindengia-Lana eta Igamo Packaging taldeek egonaldia egin dute Nafarroan. Talde horiek 2024ko denboraldiari begira doitze lanak aspaldi hasiak dituzte, eta egun hauek

lan-karga handitzeko aprobetxatu dituzte. Entrenatzeaz batera, berbaldiak ere izan dituzte: zelan elikatu, taktika hobetu, inteligentzia emozionala landu...

## ZIKLO-KROSA Madina eta Uriarte Gipuzkoako txapelkun Seguran

Domekan Seguran izandako ziklo-kros lasterketan Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten, eta bertan Debagoieneko bi ziklista nabarmendu ziren, Aimar Madina eta Markel Uriarte. Caja Ruraleko ziklista oñatiarra 23 urtez azpikoen artean gipuzkoar onena izan zen eta Aretxabale-takoak, berriz, master 30 kategorian lortu zuen txapela.



Madina podiumean. SEGURAKO ZIKLO-KROSA



# Gabonetara lehenengo postuan iritsi nahi dute

**FUTBOLA** Ohorezko erregionalean urtea amaitzeko bi jardunaldi geratzen dira, eta Aretxabaletak eta Bergarak oporretara lehenengo postuan joateko aukera dute; gorengo mailan ere Mondra eta Aloña Mendi egoera oso antzerakoan daude

**Xabier Urtzelai Atxa** ARRASATE  
Maila ezberdinetan, Aretxabaleta eta Mondra sailkapenean agintzen dabilen taldeak dira. Gorengo Mailara jaitsi berri-tan, aurreikustekoa zen talde arrasatearra eta Aloña Mendi oilar izateko hautagai zirela, eta, hamabi jardunaldi jokatu eta gero, aurreikuspenak bete dituzte. Oñatiarrak bigarren daude sailkapenean (25 puntu), eta Mondra da liderra (29). Hala, urtea amaitzeko geratzen diren bi jardunaldietan gauzak ondo egiten dituenak lehenengo postuan agurtuko du 2023a.

Maila bat gorago, Aretxabaletak eta Bergarak ezustea eman

dute. Eta ezustea da, iaz bi talde horiek aurretik aipatutako beste biekin batera ibili zire-lako mailari eusteko lanean. Aretxabaletak partidu bakarra galdu du orain arte (33 puntu). Bergara bi koska beherago dago, eta, azken bi partiduak berdinduta, hirugarren daude sailkapenean (28).

## Liderrek partidu zaila etxean

Bi kategoria horietan lider dauden Aretxabaletak eta Mondrak kontrario gogorak izango dituzte asteburuan. UDAkoek laugarren postuan dagoen Eibarren bisita izango du domekan (16:30), eta Gorengo Mailan,

Mondrak hirugarren dagoen Ikasberriren bisita Mojategin zapatuan (16:30). Hala, aurrealdeko postuetan dabilen Bergarak eta Aloña Mendik ere etxean jokatu dute (Ikus ondoko taula). Eta nabarmentzekoa da Gorengo Mailako azken postuetan dauden Antzuolak eta Bergarak jokatu duten derbia; behar gorrian daude.

**Emakumezkoek, Azkoagainen** Debagoiena Bailarako neskek kontrario zuzena den Hernaniren bisita izango dute zapatuan Azkoagainen (15:30). Oiartzuni irabazi ostean, urtea amaitzeko beste garaipen bat nahi dute.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### OHOR. ERREGIONALA

**Bergara-Deusto**  
Zap. 16:30. Agorrosin.  
**Aretxabaleta-Eibar**  
Dom. 16:30. Ibarra.

#### OHOR. ERREGIO. EMAK.

**Debagoien B.-Hernani**  
Zap. 15:30. Azkoagain.

#### GAZTEAK, MAILA NAZ.

**Bergara-Hernani**  
Dom. 17:00. Agorrosin.

#### GORENGO MAILA

**Antzuola-Bergara**  
Zap. 16:00. Eztala.

#### Mondra-Ikasberri

Zap. 16:30. Mojategi.  
**Aretxabaleta-Urki**  
Zap. 17:45. Ibarra.

#### Aloña Mendi-Segura

Dom. 16:30. Azkoagain.

#### GAZTEAK EUSKAL LIGA

**Aretxabaleta-Hondarribia**  
Dom. 18:30. Ibarra.

### ARETO FUTBOLA

#### MAILA

**Jaixkiareto-Mondrate**  
Egub. 20:50. Lezo..

**Zarautz-Mondrate**  
Zap. 16:00. Aritzatalde.

#### GIPUZKOAKO 2. MAILA

#### Miren Tab.-Eskoriatza

Gaur. 20:00. Oiartzun.

#### Zarautz-Mondrate

Zap. 16:00. Aritzatalde.

#### GAZTEAK

#### Mondrate-Eskoriatza

Zap. 13:00. Musakola.

#### KADETEAK

#### Eskoriatza-Coinbroker

Zap. 11:30. M-Muñoz.

#### Ingou Mondrate-Lasko.

Dom. 12:00. Musakola.

### ESKUBALOIA

#### EUSKADIKO TXAP.

#### Tolosa-Fagor

#### Professional

Dom. 12:00. Tolosa.

#### GIZ. GIPIZ. SENIOR.

#### Soraluce BKE-Donibane

Zap. 17:45. Labegariet.

#### Mugarri Ingou-Ordizia

Zap. 19:00. Iturripe.

#### EMAK. GIP. SENIOR.

#### Aloña Mendi-La Salle

Zap. 16:00. Zubikoa.

#### GIZO. BIGARREN SENI.

#### Urola-Erreka Bergara

Dom. 11:15. Zumarraga.

### SASKIBALOIA

#### EBA

#### MU-Venta de Baños

Dom. 18:30. Iturripe.

#### EUSKAD. LEHEN EMAK.

#### MU-ABN Centro.

Dom. 18:30. Ibarra.

#### EUSKAD. LEHEN GIZON.

#### MU-Navasket

Zap. 16:00. Iturripe.

#### EUSKADI. BIG. GIZON

#### Indautxu-Biotz Aloña

Dom. 17:00. Bilbo.

#### Soraluce BKE-Beotibar

Dom. 18:45. Zornotza.

### ERRUGBIA

#### SENIOR GIZONEZKOAK

#### Durango RT-Arrasate

#### Kanpanzar

Zap. 18:00. Durangon.

#### SENIOR EMAKUMEZK.

#### AGT/ERT- Uni. Bilbo

Dom. 11:00. Unbe.

### ATLETISMOA

#### Koadrilen Arteko

#### Santamas Krosa.

Domeka. 12:30

Arrasaten. (11:00etan

hasita gaztetxoan

lasterketak).



Aurten, June Larzabal artista eskoriatzarrak egin du urte berria zoriontzeko Goienaren mezurako irudia:  
*Beti izango gara gu.*

"Etorkizunean ere, Debagoieneko herriek berezko duten izaera mantentzeko aldarrikapena egin dut".  
Hala bedi.

## 2024 on guztioi!



*Beti izango gara gu*  
Egilea: June Larzabal  
Teknika: tornua eta modelatua  
Neurriak: 100 x 70 x 10 cm

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA



# Miguel Okina pintoreari gorazarre egiteko gogoz

Beart margo taldeko Bingen de Pedrok, Antton Arrillagak, Xabier Agirrek eta Josu Okinak osatzen duten batzordea Miguel Okinaren jaiotzaren mendeurreneko ospakizunetarako lanean ari da; 2024ko irailean abiatuko du egitarau mardula

## Aitziber Aranburuzabala Juldain

BERGARA

1924ko irailean jaio zen Miguel Okina, Bergaran, eta 2021ean hil zen, 96 urte zituela. Pintore "eredugarria eta herrian maitatua" izan zen, eta horren erakusle da datorren urteko irailean abiatu eta 2025eko irailera bitartean haren omenez egin gura dituzten askotariko ekitaldiak. "Profesional handia izan zen pintura arloan, oso ordenatua eta diziplinatua lanean. Marrazkilari aparta, oso trebea ikatzarekin marrazten eta abila eta langilea pintzelarekin ere. Pinturatik bizi izan zen bizitza osoan, eta ondo bizi, gainera; horregatik ere eredugarri izan zen haren ikasle izan ginenendako. Oso herrikoia, alai eta maitagarria zen Miguel", kontatu du Beart margo taldeko eta mendeurreneko antolatzaile batzordeko kide Xabier Agirrek.

## Erretratuak eta gehiago

Enkargu asko jasotzen zituen Okinak; erretratuak egiteko eskatzen zioten gehienetan, baina hamaika natura hil -bodegoiak- eta paisaia ere margotu zituen, bezeroek hala eskatuta. "Trazu soltea zuen pintzelarekin eta oso oparoa zen materiarekin, pintzelkada erabakigarria zuen

eta argiaren eta itzalen tratamenduan ere maisua zen. Errealismotik gertu zegoen haren pintura, errealismoak eskaintzen duen bide zabalarekin".

## Liburua eta katalogazio digitala

Emankorra izan zen oso, eta haren askotariko lanak daude gaur egun Bergarako zein De-

bagoieneko etxe askotan, eta baita elkarte gastronomikoetan eta bestelako txokoetan ere. Mendeurreneko batzordeko kideen ilusioa da Okinaren ahalik eta obra gehien aurkitzea eta horiekin guztiekin katalogazio digital bat egitea. "Denbora dezente beharko dugu obra guztiak biltzeko; ari gara dagoeneko

## Okinaren margolanen bila

Bergarako pintorearen ekoizpen artistiko zabalaren katalogazioa osatzeko asmoz, kanpaina bat abiatu du mendeurreneko ospakizunak prestatzen ari den batzordeak. "Okinaren 600 lan baino gehiagoren dokumentazio fotografikoa dugu, baina, kasu askotan, ez dakigu margolanen protagonistak zeintzuk diren, eta ezta margolan batzuk non dauden ere", diote batzordeko kideek, eta zera gaineratu dute: "Hortaz, Okinaren margolanak dituztenei obraren argazkia atera eta gurekin harremanetan jartzeko eskatu gura diegu".

Batzordeko kideekin harremanetan jartzeko bideak honako horiek dira: Josu Okina: 670 67 82 43 eta [josuokina@gmail.com](mailto:josuokina@gmail.com); Bingen De Pedro: 670 60 70 26 eta [bingendepedro@gmail.com](mailto:bingendepedro@gmail.com); Antton Arrillaga: 646 90 68 85 eta [a.arrillaga@telefonica.net](mailto:a.arrillaga@telefonica.net); eta Xabier Agirre: 615 79 72 62 eta [agirreunamuno@gmail.com](mailto:agirreunamuno@gmail.com).



1969an egindako margolana. M. O.



Miguel Okinaren omenezko ospakizunak antolatzen ari den batzordea. OIHANA ELORTZA

bilketa lanetan eta herritarrei ere laguntza eskatu gura diegu bilketan kolaboratzeko, eta, ondoren, Bergarako Udaleko artxiboan katalogoa kontsultatzeko aukera izatea da gure asmoa".

Miguel Okinaren bizipenak batzen dituen liburua argitaratzeko asmoa ere badutela azaldu du Agirrek. "Miguel Anjel Elkoroberezibarrek idatziko du, eta dagoeneko ari da lanean. Ondo ezagutzen zuen Miguel eta hari egindako elkarrizketa asko ditu grabatuta, baita argazkiak eta bestelako datu gehiago batuta. Eskarmentua du Elkoroberezibarrek herriko artistei buruz idazten; hark idatzi zuen-eta Simon Arrieta-ri buruzkoa, eta, geroago, Lorenzo Askasibar eskultorearena".

## Bestelako jarduera gehiago

Udalaren babesia izango dute pintorearen lagunek mendeurrena prestatzeko eta 2024ko irailean abiatuko dute ospakizun egitaraua. "Datorren ur-

teko irailean hasi eta 2025eko iraila bitartean, Miguel Okinaren urtea izango da Bergaran".

Margolari baten omenaldian, ezin erakusketarik falta. "Erakusketa bi egiteko asmoa dugu: batetik, ikatzarekin egindako marrazkiak erakutsi gura ditugu; zuri-beltzeko erakusketa bat egitea aproposa iruditu zaigu. Ikatzeko marrazki asko egin zituen eta horietako gehienetan bergararrak dira protagonista. Eta beste erakusketa margolanekin osatutakoa izango da, bere hiru arloei tokia eginda; hau da, erretratuak, natura hilak eta paisaiak".

Ez dira, baina, hor bukatzen Okinaren lagun margolarien asmoak: "Margolanetan adituak diren lagun batzuk gonbidatuta, koadro-forum bat egin nahiko genuke, haren obra aztertzeko asmoz; eta Erromesaldiak deitu diogun ekimenarekin herriko elkarte gastronomikoetaraino hurbiltzea nahiko genuke, Okinaren margolan asko aurkituko ditugu-eta bista horietan".

## 'ARGI GORRIEN GAINETIK'

GOIENA TELEBISTA, ERREPORTAJEA

ABENDUAREN 19AN, MARTITZENEAN, 19:30, 21:30 ETA 23:30.

THE CLAYTON TALDEAREN DISKO BERRIA, BARRU-BARRUTIK.



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
Zu hemen zaude.







June Larzabal artista eskoriatzarra, zeramikazko lanekin. MARKEL ARRAYAGO



Aurtengo Gabonetako mezua. I.I.

# Debagoieneko izaerari eusten jarraitzeko desioa

June Larzabal artista eskoriatzarrak egin du urte berria zoriontzeko Goienaren mezurako artelana, material "preziatua" duen buztina erabilia eta eskualdeko hainbat ikur aintzat hartuta; Goienaren medio guztietan dago iragarkia ikusgai, gaur, egubakoitza, hasita

## A. Aranburuzabala ESKORIATZA

Azken urteetako ohiturari eutsiz, eskualdeko sortzaile batekin elkarlanean ondu du Goiena Komunikazio Taldeak bere komunitateko kideentzako sortu duen Gabonetako mezua. "Orain dela hiru urte abiatu genuen bidetik jarraitu dugu; hau da, Debagoieneko artistekin elkarlanean. 2021ean, Larriz Garai aretxabaletarrari proposatu genion, eta harearekin margotutako irudi ederra egin zuen; iaz, Aramaioko Edurne Kortabarria ilustratzailearen atea jo genuen, eta irudi berezia sortu zuen hark ere; eta oraingoan, zeramika lantzen duen June Larzabal eskoriatzarrari

eskatu diogu", azaldu du Goienako Marka lantaldeko kide Iñaki Iturbek.

## 'Beti izango gara gu'

"Sorpresa polita" hartu zuen Larzabalek Goienaren proposamena jasota. "Artelan bat egiteko eskatu zidaten, urte berrira begirako nire desio batekin lotuta dagoena; hori horrela, ideia lantzen hasi nintzen eta, poliki-poliki, ideia hura buztinarekin garatzen joan nintzen, hainbat plater sortuta. *Beti izango gara gu* izena eman diot, urte berrirako nire desioa gure eskualdeko izaera mantentzen jarraitzea baita; bizi garen mundu globalizatu eta azkar honetan

bertakoa mantentzea aldarrikatu nahi dudalako", azaldu du Eskoriatzako artistak.

Debagoieneko elementu eza-gunak islatu ditu plateretan. "Adibidez, Arantzazu gogora ekarri dut arantzatxoak dituen platerean; Atxorrotx mendiaren silueta ikusten da beste batean; Leintz Gatzagako gatza beste batean; Urkuluko urtegiko uraren uhinak ere bai...".

## Hainbat euskarritan

Gaur hasita, bere euskarri guztietan zabalduko du Goienak mezua, hainbat formatutan aurkeztuta, eta June Larzabalen lana guztietan izango da ikusgai.

## Kalean da Mila Modu taldearen hirugarren lana: 'Kenopsia'

Abenduaren 20an aurkeztuko dituzte jendaurrean kantu berriak, Oñatiko Eltzia Topagunean, 20:00etan hasita

## A. A. J. OÑATI

*Absurdoaren paradisua* (Elkar, 2020) eta *INTRA* (Elkar, 2022) argitaratuta, *Kenopsia* izenekoa sortu du 2019an abiatutako Oñatiko Mila Modu taldeak. "Jendez beteta egoten den baina une

jakin batean hutsik dagoen leku batean kokatzen garenean izaten dugun emozioa adierazten du *kenopsia* hitzak. Edozein geltokitan egon daiteke kokatuta, non bizitzak, istorio pertsonalak, nahiak, aldarrikapenak eta amets

anonimoak elkartzen diren", dio taldeko abeslari Xabier Yanizek.

Doinuei dagokienez, 90eko hamarkadako rock-poparen ildotik jarraitu du orain arte Xabier Yanizek, Andoni Camposek, Oscar Arlanzonek eta Rober Ferreirok osatu duten laukoteak, lan berriarekin boskotea bihurtu dena, Miren Fernandez sintetizadore eta teklatu-jolea taldera batuta. Erregistro berriak bilatuz, abesti koloretuagoak, freskoagoak eta potenteagoak lotu ditugu".

Goienakideen txokoa

ABENDUKO SARIAK

**Telebista**  
Parte hartzeko sariaren izena: telebista

**EROSKI**  
ARRASATE

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ  
GRATIKO O B A K

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremanetanda.org  
Merkatuaren berriak

## PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus | Whatsapp: GOIENAKIDE  
"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzailean arloan egingo da zozketa.  
Inbentario dagun: DPD 15/1998 legaren arabera jalarazteko dugu, zuei daguztenak Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitxategi automatizatu baten sartze diru. Datu bilaketaren helburuak erabiltzeko indarrez dagoen sustapena goienakide@goiena.eus  
Eskualdeko egoerak dituzten sariak, hark zuzentzeko eskatutako, helbide honetan idatzi goienakide@goiena.eus

## Irabazi bi lagunendako otordua

### BERGARAKO BATZOKIA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!  
Parte hartzeko azken eguna: abenduak 19

☎ 043 25 05 05 | ✉ goienakide@goiena.eus | 📱 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

📞 GOIENAKIDE Jotetxea  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 15€  
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



## ZORION AGURRAK



ARRASATE  
**Julen Barquero Berrio**  
Abenduaren 21an, 8 urte. Zorionak, maitia!



ARETXABALETA  
**Pau Barkero Kortabarría**  
Abenduaren 19an, 4 urte. Zorionak, Pau! Gozatu egunaz zuk dakizun moduen, asko maitxe zaitzugu!



BERGARA  
**Lier Agirre Gonzalo**  
Abenduaren 18an, 6 urte. Zorionak, txapelkun! Disfrutatu zure eguna, asko maitxe zaitzugu. Patxo handi bat Julene, Oier, Asier, Maddi eta Aneren partetik.



OÑATI  
**Izar Zulueta Igartua**  
Abenduaren 18an, 5 urte. Zorionak, Izar! Etxeko txikiak 5 urte! Ondo pasau zure eguna eta patxo potolo bat etxeko danon partetik!



BERGARA  
**Jare Olabarria Sanz**  
Abenduaren 18an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako, Jare! Oso ondo pasa zure egunian! Besarkada erraldoi bat eta 4 belarri tirakada etxekuen partetik!



BERGARA  
**Ekai Aranzabal Etxeberria**  
17an, 2 urte. Zorionak, Ekai! Ondo pasa zure egunian eta primeran ospatu! Patxo handi bat familia danan partetik. Izugarri maitxe zaitzugu.



ARRASATE  
**Maddi Bereziartua Zabala**  
Abenduaren 16an, 4 urte. Zure irribarrez kutsatzen jarraitzeko irrikaz gaudelako... Zorionak, Maddi!




ESKORIATZA  
**Amets Aguirre Gandarias**  
16an, 8 urte. Zorionak, Amets! Ederto pasau zure egunian. Patxo handi bat etxekuen partetik. Jarraitu zaren bezala izaten, asko maite zaitzugu!



ANTZUOLA  
**Markel Elkoro GabilondoKE**  
15an, 7 urte. Zorionak, Markel! Primeran ospatu urtebetetzea familia eta lagunekin! Jarraitu jator, asko maite zaitzugu! Muxu handi bat.



ARRASATE  
**Aner Horrillo Zallo**  
Abenduaren 14an, 10 urte. Aimar, gurasuak, birramama Inmaculada, amama eta aitona partetik, zorionak!



ARETXABALETA  
**Martin Astondoa**  
14an, 18 urte. Zorionak, Martintxo, zure lagun partetik! Ederto pasau eguna eta segi ametsak egi bihurtzen! Jarrai dezagu elkarrekin irri egiten!



BERGARA  
**Mikel Basauri Davila**  
Abenduaren 14an, 5 urte. Zorionak, Mikel! Gure txikiak dagoeneko 5 urte. Muxu handi handi bat etxeko guztien partetik.



BERGARA  
**Uhaiñtz Gutierrez Cenitagoia**  
14an, 10 urte. Zorionak! Jarraitu orain arteko mutil jatorra izaten! Ondo pasa. Muxu potolo bat bereziki Araizen partetik.



ESKORIATZA  
**Lucia Kortazar Uribesalgo**  
Abenduaren 13an, 82 urte. Zorionak zure urtebetetzean. Eguneroko gazte eta ederragoa zaude. Muxu potolo bat familiaren partetik. Disfrutatu zure eguna.



BERGARA  
**Elene Garcia de Andoin Igartua**  
Abenduaren 13an, 8 urte. Zorionak preioxoa! Segi gure etxia pozez betetzen! Askok maitxe zaitzugu! Patxo erraldoi bat danon partetik!



BERGARA  
**Haitz Haas Zabaleta**  
Abenduaren 13an, 9 urte. Zorionak, Haitz! 9 urte beteta,....muxu bat eta ondo ondo pasau lagun eta etxekuekin.




BERGARA  
**Malen Aretxaga Arabaolaza**  
Abenduaren 12an, 11 urte. Zorionak, Malentxo! 11 urte konturatu orduko! Ondo ondo ospatu zure eguna! Patxo handi bat etxeko danon partetik!



ARAMAIO  
**Paule Avila Hernando**  
12an, 9 urte. Zorionak Paule! Ondo pasa zure egunian! Zelako aguro doian denbora. Muxu pila bat aitatz, amatxo eta Maddiren partetik. Askok maite zaitzugu!



BERGARA  
**Paco eta Marisa**  
Abenduaren 12an, Urtebetetzea. 12an Pacok 65 urte eta 31an Marisak 63 urte. Zorionak amama eta aitxitxa!! Espero dogu zure eguna merezi dozuen bezala ospatzia. Pila bat maite zaitzuztegu! Kenar, Alaine eta Izeiren partetik.




ARETXABALETA  
**Mikel Inurategi Alberdi**  
12an, 4 urte. Zorionak, Mikeltxo! Etxeko txikiak 4 urteko! Ondo ondo pasau eguna eta patxo handi bat etxekuen partetik.



OÑATI  
**Aiur Etxezarreta Castillo**  
Abenduaren 11n, 6 urte. Zorionak, Aiur! Primeran ospatu zure eguna, bitxo! Patxo handi bat familia danan partetik! Askok maite zau!



ARRASATE  
**Aitz Balerdi Zeberio**  
Abenduaren 11n, 2 urte. Zorionak, Aitz! Egun ederra euki deizula, politx hori! Patxo potolo bat etxekuen partetik!



OÑATI  
**Beñat Leturiaga Zabaleta**  
Abenduaren 11n, 22 urte. Zorionak, Beñat! Ondo pasa eguna, ea noiz ikusten dugun elkar. Zure maitale ezkutua.



OÑATI  
**Peru Orueta Santos**  
11n, 12 urte. Zorionak, Peru! Jarraitu orain arteko mutiko jatorra izaten! Patxo bat zure familia danan partetik, bereziki Natale eta Martxelen partetik!



ARETXABALETA  
**Joane Laspiur Rubio**  
6an, 7 urte. Zorionak, Joane! Oso ondo ospatuko dugu zure eguna. Jarraitu hain bihotz onekoa izaten! Familia eta lagun partetik besarkada potolo bat maitia!



OÑATI  
**Oihan Elorza Zabala**  
6an, 10 urte. Zorionak, maitia! Ondo ospatu zure urtebetetzea ta primeran pasau zure eguna! Patxo handi bat bereziki aita, ama, Intza ta Junen partetik!



OÑATI  
**Teo Bolivar Galdos**  
Abenduaren 4an, 5 urte. Zorionak maitia, ondo pasa zure urtebetetze egunian!



OÑATI  
**Garazi Beitia Urkia**  
Abenduaren 3an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako!



ARRASATE  
**Benja Ramos**  
Abenduaren 2an, 41 urte. Zorionak, aitatz! Disfrutatu asko zure eguna! Patxo handi bat familiaren partetik.

## OROIGARRIA



## Aitor Iria Carmona



2022ko abenduaren 14an hil zen, 24 urte zituela.

*Honen guztiaren amaieran elkartuko gara.*

*Eskerrik asko azkenengo urte honetan babesa eta gertutasuna adierazi, eta gurekin egon zareten guztioi. Baita Aitorren bizitzaren parte izan zareten guztiei ere. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.*

Arrasaten, 2023ko abenduaren 15ean.

## OROIGARRIA



## Visi Aldana Aldana



2023ko azaroaren 25ean hil zen, Arrasaten, 94 urte zituela.

*Eskerrik asko bizitza honetan guregatik egin duzun guztiagatik.*

*Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana, familiaren izenean.*

Zure iloba-semeak: Balen eta Aitor Gorosabel.  
Bergaran, 2023ko abenduaren 15ean.

## ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Orogarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 200 € / Goienakideko bazkideendako 175 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 175 € / Goienakideko bazkideendako 155 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

## BERRI-ZAKUA



## Mari Carmen eta Juan Carlos

Mari Carmen eta Juan Carlos. Abenduaren 9an, 50 urte ezkontuta egingo genituzke, urrezko ezteiak ospatzen. Faltan igartzen zaitzugu, Juan Carlos.



OROIGARRIA

## Manolo Igartua Zumalde



2023ko abenduaren 4an hil zen, 71 urte zituela.

---

*Zintotasunez jokatu eta beti puntuala izanda, bihotzean eraman dituzu familia eta Reala.*

*Eskerrik asko, gure Manolo, eredu eta aparta, ea zerutik ikusten duzun hemen utzitako marka.*

---

Arrebak, koinatuak eta ilobak.  
Oñatin, 2023ko abenduaren 15ean.

OROIGARRIA

## Manolo Igartua Zumalde



2023ko abenduaren 4an hil zen, 71 urte zituela.

---

*Betirako, zu gurekin eta gu zurekin.*

---

Araozko zure kuadrilla.  
Oñatin, 2023ko abenduaren 15ean.

OROIGARRIA



## Txaro Zubia Telleria



2023ko abenduaren 5an hil zen, 76 urte zituela.

---

*Beti izango zara gure oroimenean eta bihotzean.*

---

Aranguren Guridi familia.  
Oñatin, 2023ko abenduaren 15ean.

OROIGARRIA

## Juan Mari Zabaleta Mujika



2023ko abenduaren 6an hil zen, 71 urte zituela.

---

*Txipiron, Bergarako zure kuadrilla.*

---

Bergaran, 2023ko abenduaren 15ean.

OROIGARRIA

## Juan Mari Zabaleta Mujika



2023ko abenduaren 6an hil zen, 71 urte zituela.

---

*Betiko gure bihotzetan.*

---

Zure familia.  
Bergaran, 2023ko abenduaren 15ean.

ESKELA

## Maria Dolores Erostarbe Leibar



2023ko abenduaren 4an hil zen.

---

*Ama, amama, iñoiz ahaztuko ez ditudun zenbat kontu, barre ta kantu alkarrekin. Eskerrik asko emundako danatik. Betirako egongo zara gure bihotzian.*

---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi diguzuen guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

---

Haren aldeko meza zapatuan izango da, abenduaren 16an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

---

Oñatin, 2023ko abenduaren 15ean.

URTEURRENA

## Juan Odriozola Igartua



2022ko abenduaren 12an hil zen, 80 urte zituela.

---

Urteurreneko meza zapatuan izango da, abenduaren 16an, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokian.

---

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2023ko abenduaren 15ean.

URTEURRENA

## Lucia Farras Lascurain

Donato Ormazabalaren alargun



2022ko abenduaren 21ean hil zen.

---


Urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 17an, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.

---

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2023ko abenduaren 15ean.

URTEURRENA

## Maritxu Berroya Pildain



2022ko abenduaren 24an hil zen, 94 urte zituela.

---

*Beti zaitugu gogoan, beti gure bihotzean.*

---

Anaia eta koinata: Jesus (†) eta Conchita Egaña (†); ilobak: Manu eta Nerea, Conchi eta Jose Ramon, Martin eta Amaia; iloba txikiak: Imanol, Iñaki, Nora eta Jesus, Uma, Beronika, Ruben eta Itziar, Borja, Maria; eta beste senide guztiak.


---

Urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 17an, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.


---

Bertaratuko zaretenoi alde zurekin eskerrik asko.  
Bergaran, 2023ko abenduaren 15ean.

ESKER ONA



## Jose Angel Ugalde Olalde



2023ko abenduaren 7an hil zen, 90 urte zituela.

---


Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

---

Bergaran, 2023ko abenduaren 15ea.

ESKER ONA

## Jose Antonio Gonzalez Perez



2023ko abenduaren 9an hil zen, 71 urte zituela.

---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

---

Bergaran, 2023ko abenduaren 15ean.

BABESLEA

# Oroilore

Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiak euren bidaiarako lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango ditue agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gugan izan dituzten konfiantzazatik eta maitasunagatik.

**Marie, Iban, Maribi eta Cristian**

**617 44 21 55**  
BERGARA • ANTZUOLA • Miegua OÑATI





## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 104. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Oñati lan egiten duten bikote arduratsua gara eta errentan hartzeko ebte baten bila gabiltza. Ez dugu umerik ezta etxeko animaliarik ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 602 42 71 27

**Oñati.** Hiru logela dituen etxea errentan hartuko genuke bi hilabeterako. 677 98 43 58

## 2. GARAJEAK

## 201. SALDU

**Antzuola.** Garaje itxia salgai Antzuolako Ondarre plazan. Deitu telefono zenbaki honetara: 699 80 26 55

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Arrasateko Udalpe kalean. Telefonoa: 676 32 23 88

## 4. LANA

## 402. ESKAERAK

**Arrasate eta Bergara.** Titulazioa duen neska orduka zaintza lanetarako eta garbiketarako prest. 634 94 30 78

**Arrasate.** Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke; orduka zein etxean bertan bizi izateko gertu. 602 16 00 89

**Arrasate.** Neska arrasatearra, arduratsua eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatza lagundu edota konpainia egiteko gertu. 695 73 87 95

**Arrasate.** Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Baita garbiketa lanak egiten ere. Telefonoa: 605 13 97 08

**Debagoiena.** Asteburuetarako edozein motatako lan bila nabilen neska naiz. Ostalaritza, garbiketak, umeen zaintza. Soziosanitario titulua dut. Telefonoa: 642 49 94 09

**Debagoiena.** Etxeen, hotelen, tabernen... garbiketak egin, nagusiak zaindu eta ostalaritzan lan egingo nuke. Esperientzia dut eta ordutegi aldetik malgutasuna. 631 91 71 69

**Debagoiena.** Lan egingo nuke pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanak egiten. Telefonoa: 632 19 08 26

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketa

lanetan edo tarbnetetan lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. Ordutegi aldetik malgutasun osoa. 632 54 48 28

**Debagoiena.** Lan egingo nuke pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanak egiten. Telefonoa: 602 82 64 84

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Telefonoa: 624 09 66 51

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke, umeen zaintza. Ordutegi aldetik malgutasun osoa. 682 40 53 38

## 5. IRAKASKUNTZA

## 502. EMAN

**Bergara: Ingeleseko klaseak ematen dira.** Bergaran, goizean, eguerdian zein arratsaldean, maila guztietako ingeleseko klaseak ematen ditut, eta Cambridge-ko zein Hizkuntza Eskola Ofizialeko azterketetarako ikasleak prestatzen ditut. Talde txikiak. 618 91 32 89

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 15

**OÑATI Mahai-jolasen txapelketa**  
Tute, briska, txintxon, mus eta xake txapelketak, besteak beste.  
*Pake Lekun, 16:00etan.*

**ELGETA Gabonetako apaingarrien banaketa**  
Dendaz denda eta tabernaz taberna.  
*Elgetan, 16:30ean.*

**ELGETA Txistor-jana, erretiratuek**  
Ostean, Gabonetako saskien zozketa.  
*Ozkarbi elkartearen, 17:30ean.*

**OÑATI 'Bertoko eta urrutiko ipuinak' saio musikatua**  
Nerea Ariznabarreta kontalariaren eta Mariano Hurtado musikariaren eskutik. Gonbidapenarekin.  
*Haurren liburutegian, 18:00etan.*

**BERGARA Gabonetako gala**  
Camden Town dantza akademiaren eskutik, 18:00etan eta 19:00etan.  
*Seminarixoan.*

**ESKORIATZA Gabonetako kontzertua**  
Behoko Errota Musika Eskolako ikasleen emanaldia.  
*Kiroldegian, 18:30ean.*

**ESKORIATZA Dantzaldia**  
Imanol Intxaustirekin eta Iñaki Larrañagarekin.  
*Zaldibar antzokian, 18:30ean.*

**ARRASATE** Zinema-foruma  
*Pentsatzen du edo pentsatua naiz?*  
delako saioa egingo dute.  
*Kulturaten, 18:30ean.*

**ARAMAIO Alex Mendikuterren argazki proiektzioa**  
2022an ateratako argazkiekin.  
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**ARETXABALETA Buzkantz dastaketa**  
UDAren eta Aretxarteren eskutik.  
*Herriko Plazan, 18:30ean.*

**ELGETA Musika ikasleen kontzertua**  
Gabonetako emanaldia.  
*Espaloian, 19:00etan.*

**BERGARA Xinporna Fest**  
20:00etan, Turtukiña DJa eta 22:00etan, Olor eta Ginger taldeak. Sarrerak, zortzi euro.  
*Kartzela zaharrear.*

**OÑATI Gailu eta Braulio taldeak**  
Burrunda Faktoriaren eskutik. Sarrerak: zortzi euro arruntak eta hiru murriztuak.  
*Gaztetxean, 22:00etan.*

**BERGARA Bertso-saioa**  
Miren Amuriza, Alaia Martin eta Iker Garitagoitia bertsolariak oholtzan.  
*Arrano tabernan, 22:30ean.*

## ZAPATUA 16

**OÑATI Elkartasun azoka**  
Elkar Heziren eskutik.  
*Foruen plazan, 10:00etan.*

**ARRASATE Artisanen Gabonetako azoka**  
Eskuartearen Artisanu Kolektiboaren eskutik. Ordutegia: 11:00-14:00 eta 16:30-20:30.  
*Seber Altube plazan.*

**ARETXABALETA Neguko azoka**  
Herriko ekoizleak, artisauak, merkataria, elkarteren bat edo beste eta hiru bat idazle elkartuko dira.  
*Durana kalean, 11:00etan.*

**ARETXABALETA 'Zer da LGTBI+ eta Atxabaltan zer?' hitzaldia**  
Hiruki Larroxa kooperatibako kideek egingo dute berba, Atxabalta Harro elkarteak gonbidatuta.  
*Udaletxe zaharrear, 11:00etan.*

**OÑATI Vasco-Navarro trenari buruzko historia**  
Bisita gidatu berezia egingo dute, Jabi Bujanda oñatiarrak gidatuta. Debalde. Elorregin elkartuko dira.  
*Elorregin, 11:00etan.*

**ARRASATE Pandero tailerra**  
Herriar guztiendako.  
*Kulturolan, 11:00etan.*

**ARRASATE Jolasak**  
Umeendako eta gazteendako. Ordutegia: 11:30-14:00 eta 16:30-20:00.  
*Biteri plazan.*

**ARRASATE Jostailu truke merkatua**  
Jostailuak trukatzeko eguna, Txaxilipurdiren eskutik. Ordutegia: 11:30-13:30.  
*Biteri plazan.*

**ARRASATE Artzain txakur erakustaldia**  
Jose Ramon Garcia artzainak gidatuta.  
*Kondekuan, 12:00etan.*

**ARRASATE Umeen dantza erakustaldia**  
Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz taldeen eskutik. Euriarekin, Kulturolan.  
*Herriko Plazan, 13:00etan.*

**ESKORIATZA Gabonei ongietorria**  
17:00etan, txokolate-jana eta pintura tailerra; 18:00etan, pintxoak; eta 19:00etan, Gabon kantak De Norte A Sur taldearekin.  
*Intxaurtxuetako plazan.*

**ELGETA Magia ikuskizuna**  
Marsel magoaren eskutik.  
*Espaloian, 18:00etan.*

**ARRASATE 'Udalatx, ura eta atxa' dokumentala**  
18:00etan, euskaraz; eta 19:00etan, gaztelarazko azpituuluekin.  
*Amaia antzokian.*

**ARRASATE Talo tailerra**  
Gaztetxoendako.  
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

**BERGARA Musika eskolako haurren abesbatza**  
Gabonen aurreko emanaldia.  
*Bolua auzoan, 18:30ean.*

**BERGARA 'Kortxoaren dilema' antzezlan**  
Etikari, koherentziari, traiziori eta mendekuei buruzko lana, Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreekin. Sarrerak, zortzi euro.  
*Seminarixoan, 20:00etan.*

**BERGARA Harria eta Amustei taldeak**  
Txapa Jaiaren baitan. Sarrerak, zortzi euro.  
*Kartzela zaharrear, 22:00etan.*

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uztenik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Korosti**  
inmobiliaria

**Bergara:**  
Lizaria kalea, 79m<sup>2</sup>  
erabilgarri, 3 logela, 2  
komun, igogailua, garaje  
itxia eta trasteleku.  
220.000€



**Bergara: San Antonio**  
kalea, 69m<sup>2</sup> erabilgarri,  
2 logela, terraza,  
trasteleku eta garajea  
igogailuarekin.  
210.000€



**Antzuola: Kalegoi,**  
126,5m<sup>2</sup> erabilgarri,  
4 logela eta garaje  
itxia barne eraikin  
berean.  
250.000€



Ibargarai 3 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 97  
www.inmokorosti.com

Informazio  
gehiago:







ESTI MARKEZ

**ESKORIATZA Esti Markez**

Aiako musikariak *Hitzekin jolasean* diskoa aurkeztuko du. Hamar kanta jaso ditu diskoan; tartean daude Mikel Markezekin eta Eñaut Elorrietarekin egindakoak. Sarrerak, bost euro.  
*Etzi, domeka, Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

**ANTZUOLA Letagin eta The Clayton taldeak**

Debalde.  
*Gaztetxean, 22:00etan.*

**DOMEKA 17**

**ARRASATE Padel txapelketako finalak**  
Santamasetako txapelketa.  
*Musakolan, 09:30ean.*

**ELGETA Magia tailerrak**  
Marsel magoarekin, 6-9 eta 10-12 urte arteko umeendako.  
*Elgetan, 10:00etan.*

**OÑATI Gabonetako azoka**  
Herriko artisauen eskutik.  
*Azoka plazan, 10:30ean.*

**ARRASATE Gabonetako azoka**  
Eskuartean Artisau Kolektiboaren eskutik. Orduetgia: 11:00-14:00.  
*Seber Altube plazan.*

**ARRASATE Santamas krosa**  
11:00etan, haurren lasterketak; eta 12:30ean, kuadrillen artekoa.  
*Garibai etorbidean.*

**ARETXABALETA Neguko azoka**  
Herriko ekoizleak, artisauak, merkataria, idazleak...  
*Durana kalean, 11:00etan.*

**ARRASATE Eko-makillaje tailerra**  
Ekoudalaxen eskutik. Izena emateko: 688 85 92 28.  
*Seber Altuben, 11:00etan.*

**ARRASATE Familia-meza**  
Katekesi familiarrean parte hartzen dutenendako.  
*Parrokian, 11:00etan.*

**ANTZUOLA Motor erakusketa**  
Irain motor klubaren eskutik.  
*Herriko Plazan, 11:30ean.*

**ARRASATE Jolasak**  
Umeendako eta gazteendako. Orduetgia: 11:30-14:00 eta 16:30-20:00.  
*Biteri plazan.*

**OÑATI Gaboneko kontzertua**  
Herriko abesbatzen eta banden eskutik.  
*Zubikoan, 12:30ean.*

**ELGETA Polito Ibañez kantautorea**  
Sarrerak, bost euro.  
*Ozkarbi elkartearen, 12:45ean.*

**ARRASATE 'Ametsak betetzen' kontzertua**  
Arrasate Musikalen 40. urteurreneko kontzertua, Beatriz Arzamendik eta Unai Urretxok gidatuta.  
*Uarkapen, 13:00etan.*

**ELGETA Magia poteoa**  
Tor eta Txoborro magoekin.  
*Elgetan, 13:00etan.*

**OÑATI 'Ilunpeko altxorrak' Arrikruten**  
Familian, 3 urtetik gorako umeekin egiteko. Izena: 943-08 20 00.  
*Arrikruten, 15:00etan.*

**OÑATI Ipuin kontaketa musikatu**  
Urgain Herri Eskolako guraso taldearen eskutik, 16:30etan eta 18:00etan.  
*Urgainen, 16:30ean.*

**OÑATI 'Makila kixki' ipuin musikatu**  
Ganbara Txikirekin. Sarrerak, hiru euro.  
*Santa Anan, 18:00etan.*

**ANTZUOLA 'Azken hostoa' ipuin musikatuak**  
Maidar Alceyarekin eta Igor Salaren eskutik, 2-12 urte artekoendako. Debalde.  
*Torresoroan, 18:00etan.*

**ELGETA Magia gala**  
Niala, Tor eta Txoborro magoekin.  
*Espaloian, 18:30ean.*

**ESKORIATZA Esti Markez**  
*Hitzekin jolasean* diskoa aurkeztuko du. Sarrerak, bost euro.  
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Organo eta soprano kontzertua**  
Jose Luis Franzesenarekin eta Mariatzen Urkiarekin.  
*Parrokian, 19:00etan.*

**ASTELEHENA 18**

**ARRASATE 'Mariano Ferrer: kazetaritza eta konpromisoa' hitzaldia**  
Elixabete Garmendiak eta Esther Ferrerrek egingo dute berba.  
*Kulturaten, 10:00etan.*

**BERGARA Billar txapelketa**  
Erretiratuendako.  
*San Joxepe elkartearen, 11:00etan.*

**DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea**  
Antzuolan, Oñatin, Bergaran eta Arrasaten.  
*Herri horietan, 12:00etan.*

**OÑATI Gimnasia erritmiko erakustaldia**  
Aloña Mendiko gimnastekin.  
*Zubikoan, 18:00etan.*

**OÑATI Idazketa tailerra**  
Joxemari Iturralderekin.  
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ANTZUOLA Musika eskolako ikasleen emanaldia**  
Bergarako musika eskolan diharduten antzuolarren saioa.  
*Torresoroan, 18:30ean.*

**ZINEMA**

**ARRASATE**  
AMAIA ANTZOKIA  
**Napoleon**  
Domeka eta astelehena: 19:30.  
**Trolls 3**  
Zapatua: 17:00.

**BERGARA**  
SEMINARIXOA  
**La Navidad en sus manos**  
Zapatua eta domeka: 19:30.  
**Wish: el poder de los deseos**  
Zapatua: 17:00.

**OÑATI**  
KULTURA ETXEA  
**Ocho apellidos marroquis**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.  
Domeka: 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:30.

**ARETXABALETA**  
ARKUPE  
**O corno**  
Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua eta domeka: 19:30.  
Astelehena: 16:00.

**GASTEIZ**  
FLORIDA  
**El chico y la garza**  
Zapatua eta domeka: 12:00.  
**El maestro que prometio el mar**  
Egubakoitzetik domeka: 17:00, 22:30.  
Astelehenetik eguenera: 19:15.

**ANATOMIA DE UNA CAIDA**  
Egubakoitzetik domeka: 19:00, 22:00.  
Astelehenetik eguenera: 16:45, 19:45.  
**Golda**  
Egubakoitzetik domeka: 19:00, 22:00.  
Astelehenetik eguenera: 16:45, 19:45.

**LA NAVIDAD EN SUS MANOS**  
Egubakoitza: 16:30, 18:30.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 18:30.  
Astelehenetik eguenera: 16:30.

**CHAMPIONS**  
Egubakoitza: 16:30, 19:00, 21:30.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 19:00, 21:30.  
Astelehenetik eguenera: 18:30, 21:00.

**Sobre todo de noche**  
Egubakoitzetik domeka: 21:30.  
Astelehena, martitzena eta eguena: 21:00.  
Eguaztena: 21:15.

**MARTITZENA 19**

**BERGARA 'Helduen eragina haurren garapenean, harremanen garrantzia' hitzaldia**  
Alvaro Beñaranek egingo du berba.  
*Angiozarren, 18:00etan.*

**OÑATI Literatura solasaldia**  
Edmund de Waal idazlearen *La liebre con los ojos de ambar* liburuaren gainekoa, Monika Leivak gidatuta.  
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**EGUAZTENA 20**

**OÑATI Dana Moyaren kantaldia**  
Esperientzia Gelak gonbidatuta.  
*Santa Ana antzokian, 10:00etan.*

**ARRASATE 'Hitz egin dezagun gure zaintzaz' hitzaldia**  
Olaia Aranak egingo du berba.  
*Kulturaten, 17:30ean.*

**ARETXABALETA Ipuin kontalaria**  
Dorleta Kortazarren saioa, 5 eta 8 urte artekoendako. Leku mugatuak.  
*Liburutegian, 18:00etan.*

**ARRASATE Arrasate Musikaleko ikasleen kontzertua**  
Gabonetako kontzertua egingo dute.  
*Juan Arzamendi Musika Etxean, 18:30ean.*

**OÑATI Mila Modu taldea**  
*Kenopsia* diskoa aurkeztuko dute  
*Eltzian, 20:00etan.*

**EGUENA 21**

**ELGETA Gabonetako azoka eta kantak**  
Herri Eskola umeen eskutik  
*Mendizaleen plazan, 09:30ean.*

**ARRASATE Sasoibide**  
Donostiara joango dira, hango San Tomas egunaz gozatzeraz.  
*Zalduspe geralekuan, 09:40ean.*

**BERGARA San Tomas eguna**  
Txistorra pintxoak San Joxepeko bazkideendako.  
*San Joxepe elkartearen, 18:00etan.*





AZKEN BERBA

MIKEL ARREGI  
ASKASIBAR

## Ahozabal


Goizeko bederatzia. Esnatu eta leihotik begiratuta, giro goibela da Milango Centralen. Behe-laino itxia, giro gris eta umela. Bezperako garagardoen ajeak, gainera, ez du laguntzen. Segundo bat, baina, nahikoa da aldaritari buelta emateko, albista iritsi baita mugikorrera: EH Bilduk eta PSNk ituna egin dute UPN Iruñeko Gobernutik kanporatzeko.

Poztu nau albisteak, erreketen oinordekoek botere-guneak galtzea beti baita berri zorionekoa. Lagunei notizia kontatuta, erreakzio bila hasi naiz segidan, eta aitortu behar dut esperotakoa aurkitu dudala sareetan.

Berriak sortu dien mina ezin ezkutatu, eskuin muturreko ordezkariak hiperbolera jo dute, beste behin. "PSOEK ETako terroristekin Nafarroaren etorkizuna negoziatu du", dio UPNko Javier Esparzak. "Alkatetza Bilduri emateak goragalea sortzen dit", bota du, aldiz, Sergio Sayas-ek, UPNtik PPra ihesi joandako transfugak.

Noraino bortxa daiteke hizkera? Nola saldu zure burua zentroko demokratizatze, ahoan pozoia bakarrik badaukazu? Euren burua ispiluaren aurrean jartzea besterik ez dute lortzen, besteonganako sentitzen duten gorrotoa bistan utzita.

## BUKATZEKO



Argitaratu berri diren aplikazioaren berrikuntzak; diseinu aldetik modernoago. CODESYNTAX ENPRESA

# 'Mendiak' aplikazioa: arinagoa eta osatuagoa

CodeSyntax enpresak 2016an sortu zuenetik, hainbat aldaketa izan ditu 'Mendiak' aplikazioak. Aurten, hasierako helburu berarekin jarraitu arren, aldaketa "handiak" egin dituzte; hala, inoiz baino aplikazio osatuagoa eskaintzen dute

**Miren Arana Pagalday** DEBAGOIENA  
"CodeSyntaxek kaleratu dituen aplikazioen artean arrakastatsuenetakoa da *Mendiak*. Euskal Herriko 3.000 mendiren informazioa biltzen duen *app*-a da eta mendizaleei euren igoerak markatzeko, gordetzeko eta partekatzeko aukera ematen die", azaldu zuten Josu Azpeitiak, CodeSyntax enpresaren ordezkariak, uztailean Gipuzkoako Foru Jauregian aplikazioaren berrikuntzen inguruan egindako aurkezpenean. Euskal

mendizaleei zuzenduriko aplikazioak zazpi urtean 20.000 deskarga baino gehiago izan dituela ere nabarmendu zuen, eta hori euskara hutsean dagoen aplikazio batentzat "marka adierazgarria" dela.

*Mendiak* aplikazioa 2016an CodeSyntax enpresak argitaratutako aplikazioa da, euskal mendizaleentzat aplikazio arin eta erabilgarria eskaintzea helburu duena, mendiaren alderdi ludikoena eta aisialdiko bula-

tzatu nahi dituen. Gainera, doakoa, euskara hutsekoa eta Apple eta Android gailuekin bateragarria den aplikazioa ere bada. Sortu zenetik 50 eguneraketa baino gehiago egin dituzte; azkena eta handiena, joan den urrian. Hala ere, helburua "bera" izaten jarraitzen duela adierazi dute enpresatik.

*Mendiak* aplikazioa ez da bakarrik mendi igoerak markatu eta gordetzeko, abantaila gehiago ere eskaintzen ditu: Euskal

Herriko mendien zerrendak, fitxak eta informazio praktikoa eskaintzen ditu; gainera, norberak igotako mendia markatu eta gordetzeko aukera dago eta horri esker estatistika pertsonalak ematen dizkio erabiltzaileari.

### "Aldaketa handia"

"2023ko urrian, bertsio erabat berria argitaratu genuen: antolaketa berarekin, baina tekniki berriak, arinagoa, erabilgarriagoa eta diseinu modernoagoarekin", adierazi dute CodeSyntaxetik. Egin dituzten aldaketekin, mapen sistema eta mapa bidezko nabigazio eguneratua eta hobetua dutela azaldu dute: "Eduki aldetik azken aldaketak uztailean egin genituen, eta orduan argitaratu genuen lehenengo beta bertsioa, erabiltzaile batzuen artean testatzen hasteko, baina aldaketa handia orain etorri da, urrian. Izan ere, orain bertsio berria zabaldu zaie erabiltzaileei".

# SANTAMAS JAIK

GOIENA TELEBISTA

ABENDUAREN 22AN, EGUBAKOITZA, 18:00, 20:00 ETA 22:00

BABESLEA:

LIRAIN  
ARRASATE | ESTETIKA



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

**goiena**  
Zu hemen zaude.

